

HIRUR ANTZERTI ERDARAZKOEN

ITZULPEN BILDUMA

*

Marivaux, Giraudoux, Brecht.

* *

*

Jean-Baptiste Orpustan-ek euskarara itzulirik

*

N.B. *Itzultzailearen aitzin-obarra*. Joko guzia izkiriatura den bezala, zuzen-zuzena, hitzez-hitz, erran eta jokatu behar da.

MARIVAUX

*Arrazoinaren irla
edo
Gizon xipiak*

AITZIN-SOLASEKO JOKARIAK

Markesa,
Zalduna,
Kondesa,
Aholkularia,
Jokari bat.

Erakustokia Antzokiko bilgunean da.

KOMEDIAKO JOKARIAK

GOBERNARIA,
PARMENEZ, Gobernariaren semea,
LOREDI, Gobernariaren alaba,
BELEKTURU, Gobernariaren aholkularia,
IRLATAR bat,
IRLATARSA bat,
MEGIZTE, irlan mutil,
GOBERNARIAREN laguneria,
GORTELARIA,
KONDESA,
FONTIÑAK, Gaskoina, gortelariaren segetaria,
ELHORRIÑO, Kondesaren sehia,

POETA,
 FILOSOFOA,
 MEDIKUA,
 BLADI laboraria.

Erakustokia Arrazoinaren irlan da

AITZIN-SOLASA

AGERRALDI LEHENA

MARKESA, ZALDUNA

Markesak, *Zalduna eskutik atxikiç.* – Alajinkua, Zaldun, hemen hire ikusteaz xoratua nuk ; elgarrekin mintzatuko gituk, komedia has artean.

Zaldunak. – Gogotik, Markes.

Markesak. – Ikusiko diagun antzertia *Guliber* delakotik hartua datekek ?

Zaldunak. – Eztakiat. Zertarik dadukak ?

Markesak. - Alajinkua, izena *Gizon xipiak* dik ; eta iduriz liburu angeles hortako gizon ttipiak dituk.

Zaldunak. – Baina, aski duk ñaño bat ikusia ukaitea gizon ttipiak zer diren jakiteko.

Markesak, *lebiatuç.* - Zer ! seriocki, uste duk eztela *Guliberr*-ez ari ?

Zaldunak. – He ! zer egiten daukuk ?

Markesak. – Zer egiten dautan ? Hortaz ezpaliz ari, sarri berean banindoakekala.

Zaldunak, *irriç.* – Entzuk. Hortaz ari dela duda handian duk ; eta zinez, hire orde, enikek batere duda horren irriskutan izan nahi : enindaiketik fida, hori biziki gozagaitz baituk, eta orduan berean banindoakek.

Markesak. – Jostatzen hiz. Trufa doinu batekin hartzen duk. Baina egileak, hitz batez, ideia hortan, gauza gogoetatu, erakaskarri batzuetara jarria nik, eta ezpaldin bazazkok jarraiki, eztiaguk hortarik ezer ukanen.

Zaldunak, *trufan*. – Behar bada ba : are gehiago nun oro har (eta komedia oro bertze), guk, Frantzesek, ezpaitiaguk gogoetarik ; antze hortarik gabe gituk.

Markesak. – He ! gogutzen diaguk bada, nahi baduk.

Zaldunak. – Eztuk beraz nahi, hik ?

Markesak. – Alafe, sinets nezak, ezkituk hortan azkar : izpiritua, badiaguk zertan balia ez jakiterano ; orotan ezartzen diaguk ; baina zentzua, gogamena, odol hotza, zuhurtzia, hitz batez, hortarik (*bekokia erakutsiz*), ezkaiten mintza, zaldun maitea ; ixil gaiten hortaz : eztiakute biziki emaiten ; eta, gutartean, eztituk huts osoan.

Zaldunak, *irriz*. – He ! he ! he ! miresten haut, Markes maitea, hire erranaldiaren bururatzean dukan itxura dolutu hortako ; enauk alta batere izitzen ; ehaiz gordekari bat baizik ; eta ontsa badakiat gutaz ehizala handieriaz baizik lastimatzen.

Markesak. – Ha ! handieriaz : urragarri duk.

Zaldunak. – Ba, urgulu hutsez. Nola bada! Debrientxoal! Gogorik aski ukan behar dik guk eztiagula senditzeko ! Eztea hor egina izan dadin nahi dukan gogamena ? Ukho egiten diat konzienziaren gainean.

Markesak, *irriz*. – Ha ! Ha ! Ha ! Alajinkua, Zaldun, hire gogoeta gozagarri duk alta. Egia dela erraiteko gutizia diatala badakika bada ?

Zaldunak. – Egi-egia ; eta, gainera, ezpaituk egiten dukan aithorra bezain arrazoinekorik jeus. Hutsala izaitez salatzen haut, onhartzen duk ; hihauren hutsalerialiaz irri badagik ; Frantzes baizik eztuk, behar bada, hori egin dezakeenik.

Markesak. – Alafe, jeus etzatak gostatzen ; atzerritar bat khexa laitekek ; eta ontsa ikusten diat jitez filosofoak girela.

Zaldunak. – Horrela, zentzukorik ezer ezpadiaguk antzerti huntan, etzakek hori herriaren izpirituari lotu beharko.

Markesak. – Egina ukanen duen Frantzes bakarrari izanen duk.

Zaldunak. – Ha! Horra bat gitukala; eta arrazoina badugula hiri phorogatzearen bururatzeko, hoa, behazunez, bertze herri bati bere irigarrikerien erakustera, eta hihaurena hautesten dukala goraki erraitera: eztuk horren jasaiteko aski azkar izanen, leihotik egotziko haute. Hemen jende oso bat ikusi duk, erkidatzen zaikan bertze herri bat baino ontsa beherago ezarriz hartaz trufatzen den ikuskarri batean irriz, esku zartatzen, laudoriotan. Hor laudatzen den arrotzak eztik hark bezain gogo onez irri egiten, eta xoragarri duk.

Markesak. – Egiazki guretako ohore duk hori; gure urguluak trufa entzuten baitik.

Zaldunak. – Bertzerena baino gutiago berri duk. Erresuma batzuetan jakintsun direa? jakitateak zamaten ditik; behin ere eztituk hartara jartzen, osoki hartuak dituk. Zuhurrak direa? zuhurtziaz nardatzen dikan garraztasun batekin izaiten duk. Eroak direa, xoriburu eta buru arin deritzeeten hetarik? haien arintasuna eztuk solasera ekharria; badie halako gogor, bortitz, egiazko bozkarioari arrotz zaikan zerbait; arrazoina gozagarririk gabea die, eskas die guk dugun eztitasun hura, arrazoinakoak eztirenak hala izaitera gomitatzen baititik; haien baitan, guzia serio duk, guzia larri, guzia hitzean hartua; iduri dik eztitukala oraino aski luzaz elgarrekin egonak; bertze gizonak etzezteek oraino anaiak, bertze izaita batzu bezala ikusten ditie. Bereak ez bezalako bizi molde batzu ikusten ditie? horrek haserretzen ditik. Eta gu, horrek guziak jostatzen, gutartean orori ongi ethorri, erresuma guzietako jaiok gituk; gutartean eroak zuhurra jostatzen dik, zuhurrak eroa narda-arazi gabe zuzentzen. Ezer eztut phizurik, ezer ez larririk hala izaitea merezi dikana baizik. Gizatasuna gehienik khondutan hartua dugun munduko gizonak gituk. Arrotzak erraiten dauzkua gure hutsak? onhartzen

diaguk, haien edireiten laguntzen ditiaguk, eztazkikanak erakusten dauzkoguk ; gure buruaz gaitzerraiten diaguk harendako jendetasunez, edo haren ahuleziarendako ikustatez. Antzedunetz mintzo dea ? haren erresumak gureak baino gehiago baditik ; gure liburuak gaitzesten ditik, eta guk harenak miresten. Zor dauzkun ikustatetan huts egiten dika ? ikustatez lehertzen diaguk, desenkusutzen. Hura hor baldin bada ezkituk guhauren etxean ; haren begietarik kasik ihes egin behar diaguk, harenean baldin bagituk. Gure urrikalmendu guzia, gure laudorio guziak, miresmen guziak, zuzenbide guzia, oro arrotzarendako duk ; gure baitako amodioa eztuk, azkenean, guhauren erresumari baizik aiher ; atzerritar guziena eztuk guri baizik aiher, eta gureak ezitik hek baizik fagoratzen.

Markesak. – Haugi, herritar ona, haugi besarka hezatan. Jinkoaz ! izenburua salbu, khexa nintaiketik orai ikustera goazen komedian *Guliber*-en ideia hartua ukana balie ; hala baliz, banoakek. Baina aski hortaz. Agur dezagun Kondesa, ditikan gozagarri guziekin heldu baituk.

AGERRALDI II

MARKESA, ZALDUNA, KONDESA, AHOLKULARIA

Kondesak. – Ha ! zu hemen, Markes ! Egun on, Zaldun ; andere horiekin ethorriak zireztea ?

Markesak. – Ez, Anderea ; eztugu biek elgarrekin gertatzea baizik egin.

Kondesak. – Ereman nahi ninduten ibilaldiari hautetsi daukot komedia ; eta Jaun hunek ene laguntzea onhartu du. Berrikeria horietaz guziez jakin-nahian niz : nola diote jokatuko denari ?

Zaldunak. – *Gizon Xipiak*, Anderea.

Kondesak. – *Gizon Xipiak* ! Ha, izenburu itsusia ! Zer dira gizon xipiak ? Hortaz zer egin daiteke ?

Markesak. – Andere guziek badiote horrek eztuela jeus hitzemaiten.

Kondesak. – Segurki, izenburua nardagarria da ; zer diozu, Aholkulari Jauna ?

Aholkulariak. – *Gizon Xipiak*, Anderea ! He ! baietz ! Zergatik ez ? Hori gozagarri iduritzen zata. Behar bada *Guliberr*-ean bezala izanen da ; pollitak dira ! Bada hor bere sakelan ezartzen dituen gizon handi bat, edo erhi muturrean, eta berrogei-ta hamar edo hiruretan hoge berekin baderamatzanak ; horrek azkarki josta nindezake.

Markesak, *irriz*. – Etzaizu atsegin horren emaita errex izanen. Baina horra jokari bat iragaiten ; zer den galda dezogun.

AGERRALDI III

JOKARI GUZIAK

Kondesak, *jokariari*. – Jauna! Jauna! Erran nahi daukuzua zer den zuen *Gizon Xipiak* hori? Nun hartuak dituzue?

Jokariak. – Alegian, Anderea.

Aholkularia. – Zinez etzirela xipiak jelostu niz bada.

Jokariak. – Hori ezin zen, Jauna, nun ezten aurkitzen diren irlara joaiten.

Zaldunak. – Ha! eztu balio: gureak biziki onak dira ttipirik agertzeko; eniz ni goratasunaz axolatuko.

Markesak. – Alajinkua! Sei oinez gora diren ñañoak ikusten dira egun oroz. Bertzela ere, antzokian gizon bat edo emazte bat ezin ikusiak bilakatzen direla gerriko baten bitartez eztea asmatzen?

Jokariak. – Eta hemen asmatzen da, ephe batendako bakarrik, gizon batzu badirela bertze batzu baino ttipiago.

Kondesak. – Baina zertan jar hori?

Markesak. – Zuen izenburua aldatu behar zintuten anderen gatik.

Jokariak. – Etzintuztegun enganatu nahi; zer den erraiten dautzuegu, eta ethorri zirezte gizon ttipi batzu hitzemaiten zaizkitzuen iragarkia ikusiz; bertzela ere ezarri dugu oraino *Arrazoinaren irla*.

Kondesak. – *Arrazoinaren irla!* bada! ezta hori bozkarioaren egoitza.

Jokariak. – Anderea, zertaz ari den ikusiko duzu. Komedia hunek atsegin zenbait emaiten ahal badautzu, xehekiago emaita horren ekhentzea lizateke: onhar dezazun othoizten zitugu bakarrik. Sarri berean hasiko dira.

Markesak. – Goazen bada gure lekuen hartzera. Nik, zure gizonak nahiko duzun bezain ttipiak ikusiko ditut.

EGITALDI LEHENA

AGERRALDI LEHENA

IRLATAR BAT, ZORTZI EUROPATARRAK

Irlatarrak. – Oizue, jende xipiak, hor jar zaitezte gobernaria zuen ikustera jin artean; etzirezte gehiago eneak: hari emanak zituztet. Goraintzi, berriz ikusiko zituztet oraino, neure etxera itzuli baino lehen.

AGERRALDI II

ZORTZI EUROPATARRAK, *lastimatuak*.

Bladik. – Mekatxes, pollitak gituk!

Poetak. – Horrek guziak zer erran nahi du? zer zoria den gurea!

Kondesak. – Baina, Jaunak, orai hemen ezarriak gituen irlatar horrek hartuak gituen sei ilabetez geroztik, zer gertatu

zazue? ezen berexiak gintuen, nahiz etxe berean ginen. Izaite arrazoindun batzuer bezala behatu dautzuea, gizon batzuer bezala?

Orok, *hasperenka*. – Haa!

Kondesak. – Ihardespen hori badantzut.

Bladik. – Eni doatanaz, gure zaintzalyak, andryak eta haurrek, eztautate denek gehi ez guti abre bati bezala baizik so egiten. Gure laur zangotako adixkidea erraiten; ene eskuak aitzineko patendako hartzen, zangoak gibeleskoendako.

Fontiñak, *Gaskoinak*. – Zaldalez hazi nahi ukana nie.

Kondesak. – Eninduten ere ni neska batendako hartzen.

Bladik. – Ha! bekan izanaren gatik da.

Fontiñakek. – Baietz, hortan duda perdungarri duzu.

Gortelariak. – Ene aldetik, lehenik perruketer bezala mintzatzen ikasi nahi zautaten bi irlatarren eskuetan egona niz.

Fontiñakek. – Hixtuka hasi zazta, eni.

Bladik. – Ikasi dautzietea den-dener herriko hizkuntza?

Orok. – Ba.

Bladik.- Bono: jende guziak ahozkatu du beraz hemen? Baina mekatxes! elgarri erraiteko jeus eztea gehiago? Hor, lagunak, hunki zuen buruak; hunki zite ere, Andereño.

Kondesak. – Zer?

Bladik. – Ziharez eztiziea jeus erraiteko? Jeus eztea zien baitan aldatu denik?

Filosofoak. – Hori zergatik daukuzu erraiten?

Bladik. - Lur huntaratu baino lehen, nola egina nintzan? Enintzana barrika bat bezein lodi, eta haga bat bezein xuxen?

Elhorriñok. – Arrazoin duzu.

Bladik. – Ta bono! Gehiago ez barrikarik, ez hagarik; ene baitarik hori guzia gana da.

Medikuak. – Zer bada...?

Bladik. – Zer den, ni Bladi haundia nindiotena, ni mintzo nizauzuna, nitaz berririk eztela gehiago; etzakiat zer bilakatu nizan; eztut ene jakan nihauren ondar pixkila baizik hatzemaiten, xipa batek baino leku gehiago eztaukan ttirritta xipi bat.

Orok. – He!

Bladik. – Hain ttipitua sendi niz, hain gorputzara exkaxekoa; hain hertsitua, hain eroria, nun lanterna bat har bainezake ene bilatzeko. Ontsa ikusten dut zapalduak zireztela ere; baina nizan bezala ikusten nauziea ziek?

Fontiñakek. – Hik erran duk, “praube” zipa. Eta nitaz, zer zaik iduritzen?

Bladik. – Zu? Xarbo baten heinekoa zira.

Fontiñakek. – Horra ni.

Gortelariak. – Eta ni, Fontiñak, bilakaturia nizala iduri zatan bezain ttipi niza?

Fontiñakek. – Musde, ene nagusia zira, gorteko gizon eta jaun handi; zer ziren galdegiten dautazu; baina etzitut ikusten; mikrozkoa batean jar zite.

Filosofoak. – Gure xipitasuna egiazkoa dela ezin nezake sinets; herrialde huntako aireak gure gorputzetan aldamen handi bat egin behar ukana du, eta behargabe zenbait gertatua dateke gure betsarean, horren ondorioz baitugu xipi girela uste.

Gortelariak. – Giren izanara baino hiltzea hobe lizateke.

Bladik. – Ha! alafe, soina ontsa apurtua dut; baina gelditzen zatan puxkañoaren ez ukaitea batere baino nahiago; baina oizie, horra iduriz hemengo gobernaria guri beha luneta batekin.

AGERRALDI III

GOVERNARIA, HAREN SEMEA, BELEKTURU,
IRLATARRA,

MEGIZTE, GOVERNARIAREN LAGUNERIA, ZORTZI
EUROPATARRAK

Irlatarrak. – Horra nun diren, Jauna.

Gobernariak, *urrundik, hurbiltzeko luneta batekin*. – Ontsa ohigabeko zerbait erakusten dautazu hor: holakorik deus ezta segurki munduan. Zer ttipitasuna! eta bizkitartean ihizi ttipi horiek gizon begitartea dute osoki, eta ere nunbait han gure jestuak eta so egiteko moldea. Zinez, emaiten dautzazunaz geroz, atseginekin hartzen ditut. Hurbil gaiten.

Parmenezek, *Kondesa hartuz*. – Aita, eme xipi hau ene gain hartzen dut, uste baitut hala dela.

Loredik, *gortelaria hartuz*. – Huna bat ontsa atseginez har bainezake ere: ar xipi bat dela uste dut.

Gortelariak. – Anderea, dutan izanaraz etzaitela sobera balia.

Loredik. – Ha! aita, uste dut ihardesten dautala; baina eztu mintzo xirrixta ttipi bat baizik.

Irlatarrak. – Egia, mintzo dira; gogoia badute, eta gure hizkuntza ikas-arazia dauet.

Loredik. – Nola jostatuko nizan! Ha! ene ñimiño pollita, zein maitagarria ziren!

Parmenezek. – Eta ene emeñoak, zerbait erranen dauta?

Kondesak. – Bihotz onekoa iduritzen zaizkit, Jauna; lagun nezazu, erakutsatazu, ahal baduzu, ene itxura zuzena nola har.

Parmenezek. – Arreba, ene emeak zure arra balio du bada.

Loredik. – Oi! bertze guzia baino nahiago dut ene arra; baina eztutea bederen ausikitzen?

Bladik, *irriz*. – Ha! ha! ha! ha!

Loredik. – Huna diotanaz irri badagien bat.

Bladik. – Mekatxes! eztut alta hortzen punttatik baizik irri egiten.

Gobernariak. – Eta bertzeak?

Filosofoak. – Bertzeak suminduak dira izaite arrazoin-dun batzuetarik hemen duten ikustate gutiaz.

Fontiñakek, *subarki*. – Musde, gogoari emazu zure erresuman duzun hobeki egina. Horra zer nizan, gerria zer k andeatzen dautan axolatzerik gabe.

Bladik. – Mekatxes! Jaun Gobernari, ala Jaun Errege, zein den ezpaitakit; eta zu hunen alaba Andereño, eta seme Jaun, eztu hitz batek baizik balio. Zauzte ene jatekoaren jaten ikustera, hobeki laxatzen den gizonik eztela ikusiko duzie; eniz pinterdia baino gorago, baina mekatxes! pinterdi hortan edukitzen ikusiko duzie pinta.

Gobernariak. – Badidurit khexatzen ari direla: hea, sar diten berriz kaiolan, eman zaiela jatera; horrek behar bada eztituko ditu.

Gortelariak, *Lorediri, eskua zapatuz*. – Andere maitagarria, enezazula ene zorigaitzean utz.

Loredik. – He! Ikusazu bada, aita, eskua nola aphabetzen dautan! Ez, ene arratoiñoa; enea izanen zira, eta zutaz artha hartuko dut. Egiaz, urrikitzen nau.

Filosofoak, *hasperenka*. Haa!

Bladik. – Zin-zinez, ze bizia!

AGERRALDI IV

IRLATARRAK

Gobernariak. – Horra, behazunez, itxura izpirik eztuten gauza horietarik! Gure ixtorioek ihizi horiek behin ere aipatu dituztea?

Belekturuk. – Jauna, gauza batez orhoit niz; Estatuko errexistroetan irakurri baitut duela berrehun urte hurbil horien

berdin batzu hatzeman zirela; berdin erakutsiak dira. Ihizi batzu zirela uste izan zen, eta gizakiak ziren bizkitartean; ezen badiote gu bezain handi bilakatu zirela, eta haien goratasuna ikus ahala handitzen ari zela, gure arrazoina eta ideiak gustatzen zizezteen arau.

Gobenariak. – Zer derasatazu hor[?] gure arrazoina eta gure ideiak gustatzen zizezteela? Arrazoinez xipiak zirelakotz ote zuten gure jainkoek soinez xipi iduri zezaten nahi?

Belekturuk. – Behar bada.

Gobernariak. – Haien xipitasuna etzen beraz lilluramen zenbaiten ondorioa baizik, edo haien arimen nahasmenen eta andeatzearen zigor bat?

Belekturrek. – Gogotik uste nuke.

Parmenezek. – Are gehiago nun mintzo baitira, guk bezala ihardesten baitute eta urrats egiten.

Gobernariak. – Urrats egitearen aldetik, bertze hainbertze egiten duten ziminoak baditugu. Egia da mintzo direla eta erraiten zauenari ihardesten daukotela: baina ihizien asmua norano joan daitekeen ezta kigu.

Loredik. – Handi bilakatzen balire, uste ez tutana, ene ar xipia xoragarria lizateke. Izan daitekeen aurpegi pollitena du, deus ezta haren soinara bezain lerdunik.

Parmenezek. – Ene emearen garazier etzira ohartu.

Gobernariak. – Dena den, urrikitzekorik ezer eztezagun ukan. Haien xipitasuna lilluramen bat baizik ezpada, ezeztatzerantz entsegu dagigun, arrazoindun bilaka-araziz: ongi egitera entsegatzea ongi egin bat da beti. Belekturre, zure eskuetan emaiten ditut. Haien argitzeko lana emaiten dautzut; astirik etzazula gal; galdekazkitzu; ikus zer diren eta zer ari ziren; indar egizu haien arimaren ezartzera bere gaitasunean, zuten handitasunaren hatz zenbaiten berraurkitzera. Hortara ezpaldin bagira heltzen, gure eginbidea eginu ukanen dugu bederen; ihizi batzu baizik ezpaldin badira, atxik daitela gurearen idurikoa duten begitartearen gatik. Gu bezala eginak ikusiz, arrazoinaren balioa

oraino hobeki sendituko dugu, gizakiaren eta ihiziaren arteko ezperdintasuna hark bakarrik badagienaz geroz.

Loredik. – Eta gure pampina ttipiak berriz hartuko ditugu, bertzelaka daiteneko ezperanzarik ezpada.

Belekturrek. – Jauna, badematazun lanera ariko niz orai beretik.

AGERRALDI V

BELEKTURU, MEGIZTE

Belekturuk. – Megizte, errazu othoi hunara ekhar ditzataten.

AGERRALDI VI

BELEKTURU, *bakarrik*.

Ondikotz ! eztut ezparanza handirik ; kalapitan ari dira, batzu bertzen kontra aharran ere. Arestian biek elgarrekin joka ari izan nahi ukana dutela erraiten da; eta ezta hori gizakiaren itxura duen gauza.

AGERRALDI VII

BELEKTURU, MEGIZTE, LAGUNERIA, ZORTZI EUROPATARRAK

Belekturuk. – Musar ttipi pollitak, entzun nezazue ; gizakiak zireztela uste ukaitera aiher gira.

Bladik. – Oizue ! hor ikasten daukun berri ederra !

Fontiñakek. – Zoaz, Jauna, zoaz segurtasunerano, garantitzen dautzut.

Belekturrek. – Demagun.

Filosofoak. – Gizonak girenez dudatuz, zuhaur hala zirenez duda-arazten gituzu.

Belekturuk. – Ez haserrerik, hortara aiher zira : zutan ikustea maite eztitutan laur zangoetakoen oldeak dira horiek.

Filosofoak. – Gu, laur zangoetakoak !

Kondesak. – Zer aphaltzea !

Fontiñakek. – Diubiban ! zori jostakina, gogorki khitzikatzen nauk.

Bladik. – Jinkuaz ! zu mintzo zirena, badakizua ontsa, gure urkoa balin bazira, eztela doi-doietarik baizik ?

Elhorriñok. – Herri madarikatua !

Belekturuk. – Emeki, ximinoak ; ezti zaitetze, eztut hutsetik zuen atheratzea baizik galdegiten ; eta hortako hartu dutan bidea, zuetarik bakoitzarekin bereziki solastatzea da, eta ephe batez elgarrekin utziko zituztet hortara delibera zaitetzen : jabal zaitetze, eztautzuegu ongirik baizik nahi ; gizakiak bazirezte, arrazoindun bilakatzera indar egizue : badiote hori dela zuendako handi bilakatzeko bidea.

AGERRALDI VIII

ZORTZI EUROPATARRAK

Fontiñakek. – Zer erran nahi du bada jostakin horrek, bere *arrazoindun bilaka zaitetze*-rekin ? Den hura bilaka daitekea ? Handi izaiteko ezpaliz arrazoina baizik behar, goratasunez haritza gaindi nezake.

Bladik. – Bono, bono ! gaskoinkeriendako zure astia ontsa hartzen duzu ! gure egitekoaz axola giten.

Poetak. – Ene aldetik, sorgineriazko herri bat dela uste dut, gure hondatzeak hartara lurreratu baikitu.

Fiosofoak. – Sorgineriazko herri bat ! gogamen poetikoa da hori, Jaun poeta, ezen hala zinela errana dautazu.

Poetak. – Alafe, Jaun filosofoa, hala zinela errana baitautazu, poetaren gogamen batek filosofoaren ikuspena balio du.

Bladik.- Mekatxez ! ezpaniz hor sartzen, horra joka hastera doazen zinaurriak : bakean beraz hor, xeheria.

Fontiñakek. – He ! Jaunak, batasun apur bat, gure egitekoetan giren heinean.

Bladik. – Debrientxoa, ni entzun ; hunara bota gituen horren hitzez gogora zerbait on heldu zata. Herri huntako jendek Arrazoinaren Irla deritzote, eztea hala ? Beraz egoiliarrek Arrazoindunen izena ukan behar dute ; ezen Frantzian ezta Frantzesik baizik, Alemanian Alemanik, eta gure herrian herritarrik, eta hortan guzian Arrazoindun bat ere ez : ezta Frantzesik, Alemanik eta herritarrik baizik. Arrazoindunak Arrazoinaren irlan dira ; erran gabe doa.

Filosofoak.- He ! burura ezak, adixkidea, burura ; aspertzen gituk.

Bladik. – He bada ! aspertzeko astia baduzu, zaude. Badiot beraz gure herriko jaunari, ameslari bat baitzen, hau erraiten entzun daukotala : arrazoindunak ezkinenean, ontsa xipi bilakatzen ginela arrazoindunak zirenen aitzinean. Enuen ordian haren gogamenean izpirik ikusten : baina mekatxes ! huna herri huntan egiaztatzea. Ezkira Frantzesak, Gaskoinak, eta bertze zerbait baizik ; Arrazoindunekin gira, eta horra zerk daukun goratasuna xipitzen.

Poetak. – Frantzesak arrazoindun ezpalire bezala.

Bladik. – He ! mekatxes : eztira Frantzesak baizik ; ezin izan daitezke sortzez bi herrietako jaioak.

Fontiñakek. – *Kadedi*z, nik, asmamena ezin hobea dakusat ; gizon hunek arrazaz gaskoina izan behar du, zinez ; eta hunen gogoeta ene egiten dut ; zuen guzieren errespetua salbu eta, hartuko dut bakarrik duen sasitik hunen erranaren garbitzeko libertatea. Badiot beraz gehiago so egiten dautzuetala, eta are gehiago nizala larre-gizon hunen ideian azkartzen : gure xipi-

tasuna, diubiban, ezta moldez berdina ; ohar zaitetze, Jaunak, mailka doala.

Bladik. – Beti maldan behera, beti gero 'ta gazkiago.

Filosofoak. – Horrelako asmakeriak utz ditzagun.

Bladik.- He ! mekatxes, utzako zu ene gogoetari zabaldua.

Fontiñakek. – Mailez mintzo nintzaizuen ; he ! zergatik mail horiek, *kadediz* ?

Bladik. – Batzu bertzyak baino eroagwak direlakotz behar bada.

Fontiñakek. – Gizon hau urrez mintzo da : uste dut erotasunaren heinak duela gauza arautzen ; eta hori dela, so egizue laborari huni, larre-gizon bat baizik ezta.

Bladik. – He ! hor ! hor ! ez sobera zapa.

Fontiñakek. – Eta larre-gizon hau, bizkitartean, gu guzien arteko handiena da.

Bladik. – Ba, multzoko zuhurrena niz.

Fontiñakek. – Ez zuhurrena, baina erotasunak gutienik joa, eta eniz ustegabetzen : zorokeriaren gudu gunea, jakizue ! mundu handia da, eta laborari hunek ezta ezagutzen, erotasunak ezta urrundik baizik hunkitzen ; eta horra zerk daukon hemen gorputza luxeagoa emaiten.

Bladik. – Erotasunak osoan zauritzen zituzte, ziek, enau, ni, karramixkatzen baizik : bizkitartean, ene karramixkekin itxura ona dutala ikusazie.

Fontiñakek. – Mailari jarraikiz, hunen ondolik heldu niz ; hau baino xipiago, baina bertze guziak baino handiago. Eniz ere hortaz ustegabetzen ; munduan, eniz menpekoa baizik, eta behin ere ezta bertzeak bezain eroa izaiteko biderik ukan.

Bladik. – Ho ! Zure goratasuna ikusiz, ala ukan duzu ahal sobera.

Fontiñakek. - Ene itzuliari banarraiko, 'ta Elhorriño da ene ondolik.

Bladik. – Alabaina, ezta gelaria etxekanderea bezain xipittoa ; eztela hain eroa izan behar da.

Fontiñakek. – Ezta bada gure gibeletik baizik heldu alta, eta hori emazten arrazoina gurea baino arinxagoa delakotz.

Elhorriñok. – Ausarkeria zenbait salbu, hori guzia aski zuzen iduri lizateket.

Filosofoak. – Eta nik, urrikgarri edireiten dut.

Bladik. – Mekatxes ! oizu, filosofo, zu mintzo zirena, zure goratasuna orotako exkaxena da.

Fontiñakek. – Ba, ezin ikusiena, gehienik herrestatua ; eta badu arrazoin ona. Jaun filosofoak untzian erran dauku arestian Frantzia utzia zuela, Bastillan egon behar baldurrez.

Bladik. – Etzira ostatuetan zoridun.

Fontiñakek. – Eta orai ihes zoala jakitatezko liburu xipi baten garik, hitz xipi ausart batzuen, sendimendu xipi batzuen ; eta zintzoki hoinbertze xipikeriek emana ahal daukuke mintzo naukon gizon xipi hau. Goazen Jaun poetara.

Bladik. – Ontsa lehertua da, alajinkua !

Poetak. – Eztut alta ene arrazoinaz jeus erraitekorik.

Fontiñakek. – Zure ofizioko jendetan, bizkitartean, ezta zentzu ona laudatzen ; eztuzua erran « epigrama » baten gatik zinabiltzala bidaiari ?

Poetak. – Egia da. Aski maite ninduen gizon botere-dun baten kontra egina nuen, izpirituko joko huts batez gaitzitu baita behar gabe.

Bladik. – Gaizo bertsu egilea. Badirela horrela gaizki erabiliak izaitea maite eztuten omere gaixtoko gizon batzu.

Fontiñakek, *Kondesari*. – Zure aldi, Anderea.

Kondesak. – Ixil zaite, etzazta zure arrazoinamenduak gustatzen.

Bladik. – Ikustea aski da zamaz jujatzeko. Eta gure medikua ?

Fontiñakek. – Ahazten nuen : den ofiziotik, kritika jadanik egina da.

Medikuak. – Ongi ! Ixtorio ederrak egiten dauzkiguzu hor.

Fontiñakek, *gortelariaz mintzatu*. – Eztut Jauna galdekatzen, hamar urte baitu hunen segetari nizala, eta halabeharrak Frantzian jaio-arazi baitu, nahiz familia espāñolekoa den ; Indietako erretorde izaitera zoan arreba Anderearekin, eta Elhorriño, bidaiari horren amoros gertatu nizan nexka gozagarriarekin.

Gortelariak. – Eztut uste, Fontiñakeko Jauna, zorokeria egiten ikusia nauzula.

Fontiñakek. – Jauna, errespetuak ahoa hesten dauta, eta zure goratasunera igortzen zitut.

Bladik. – Alabaina, zure burian zoraldi nagusi batzu badituzkezu?

Fontiñakek. – Bake, ixil; horra gure gizona itzultzen.

AGERRALDI IX

BELEKTURU, MUTIL BAT, ZORTZI EUROPATARRAK

Belekturuk. - Goazen, adixkideñoak, zuetarik zeinek nahi du lehenik solasaldia enekin hasi?

Poetak. - Nik, ontsa gostuan ninzateke zertaz ari giren jakiteaz.

Bladik. - Mekatxes! jin nahi nien, nik; ondolik jinen beraz?

Belekturuk. - Goazen, beraz, bertzeak berrekhar ditzatela.

Filosofoak. - Nik aldiz, eztut gehiago agertu nahi; ara horietaz guziez akhitua niz.

Belekturrek. - Beti ohartua niz ihizi ttipi horrek baduela bertzek baino abretasun gehiago; berex ezar dadila, andea ez titzan beldurrez.

AGERRALDI X

BELEKTURU, POETA

Belekturuk. – Goazen, elgarrekin mintza gaiten; zutaz aburu ona dut, gure hizkuntzaren ikasteko asmua jadanik ukana duzunaz geroz.

Poetak. – Jaun Belekturu, utz dezagun hor asmua, ezta ihiziendako baizik egina. Xipiak girela egia da.

Belekturuk. – Ho! ezin gehiago.

Poetak. – Edo bederen hala uste gituzu, eta guk ere; baina xipitasun egiazko edo alegiazko hori etzaiku jin zuen lurretan oina ezarri dugunez geroztik baizik.

Belekturuk. – Ontsa segur zirea? (*Berex*) Horrek baluke gure errexixtroetan aiphu den haren itxura.

Poetak. – Egia erraiten dautzut.

Belekturuk, *besarkatu*z. Ailiz hutsean etzirela, eta ene idurikoa dutala besarkatzen hoin ezin ezaguna den izaitean! Zuretako urrikia sarr-arazten dautazu. Nola! gizon bat zirateke?

Poetak. – Ondikotz! ba.

Belekturuk. – He! nork zitu bada ziren izanaran ezarri?

Poetak. – Batere eztaikit bada.

Belekturuk. - Ez ote lizateke izaite arrazoindun baten handitasunetik eroria zirela? Eztuzua zure nahasmenduen zigorra jasaiten?

Poetak. – Baina, Jaun Belekturu, eztitut ezagutzen. Izaitekotz ez ote lizateke sorginkeriazko ukhaldi bat?

Belekturuk. – Zure ahuleziez bertze, sorginkeriarik ez tut hor ezagutzen.

Poetak. – Uste duzua, adixkide maitea?

Belekturuk. – Dударik eztuzula, adixkidea: horren erraiteko arrazoinak baditut, eta bozkarioz hartua sendi niz, zuhaur jelosten hasia zirenaz geroz. Uste dut ezagutzen zitutala

duzun itxura aldatuaren artetik: ba, zure soinareen xipitasuna ezta zure arimak duenaren iduri bat baizik.

Poetak. – Ha beraz! Jaun Belekturu, irlatar bihotz onekoa, bida nezazu, zure eskuetara emaiten niz; zer egin behar dutan ikusazu. Ondikotz! gizona ontsa gauza guti dela badakit.

Belekturuk. – Jainkoen dizipulua da, arrazoindun denean; hala eztenean ihiziena.

Poetak. – Bizkitartean, gogoari emaiten dutanean, nun dira ene erokeriak?

Belekturuk. – Ha! berriz gibelera erortzen ari zira.

Poetak. – Neure burua enezake ihizien lagun bezala ezarria ikus.

Belekturuk. – Eztut oraino erran dutana zuri doazula erraiten; baina dakusagun: zinen herrian zer ari zinen?

Poetak. – Zure hizkuntzan eztuzu hitzik zer nintzan erraiteko.

Belekturuk. – Hanbat gaixto. Zerbait ontsa bitxi zinen beraz?

Poetak. – Ez, zerbait biziki ohoragarri, gizon izpirituduna nintzan eta poeta ona.

Belekturuk. – Poeta! merkatari erraiten baliz bezala dea?

Poetak. – Ez, neurtitzak eztira sal-eroskin bat, neurtitz merkatari bat poeta dela ezin erran da. Orizu, ene herrian izpirituko lan batzuetan jostatzen nintzan, helburua bertzeri noiz irri, noiz nigar egin-araztea baitzuten.

Belekturuk. – Nigar egin-arazten duten lanak! ontsa bitxi da hori.

Poetak. – Horiek tragediak deitzen dira, elgarrizketetan erraiten baitira, jende hain xamurrak baitituzte, aldizka bertutezko eta maitasun bizizko olde hain mireskarriak; ogendun noble batzuek urgoitasun hain ustegabegarria baitute, haien gaitzeginek zerbait hain handi, eta bere buruari egiten dituzten erasiek zerbait hain bihoztun; gizon batzu oren buruan

ahulezia hain errespetagarrikoak, batzuetan elgar erahiltzen dutenak molde hain miragarri eta hautatuan, nun ikus ezpaitaitezke arima hunkia senditu gabe eta atseginez nigar egin gabe. Eztautazu ihardesten.

Belekturuk, *ustegabetua, hari serioski behatuz*. – Horra egina dena, enago gehiago jeusen esperanza; zure mota nehoiz baino ezin argituagoa zata. Zer gaizkiegin miragarrien, bertute ogendunen eta ahulezia hautukoen nahas-mahastea! izan behar da eztuela haien arrazoinak ez bururik ez buztanik. Jarraik zaite.

Poetak. – Eta gero badira komediak, hetan erakusten baintuen gizonen bizioak eta irrigarritasunak.

Belekturuk. – Ha! hor nigar egitea barkatzen dauet.

Poetak. – Ez batere; horrek irri egin-arazten zauen.

Belekturuk. – Hee?

Poetak. – Irri egiten zutela diotzut.

Belekturuk. – Irri egin behar den lekuan nigar, eta nigar behar denean irri! izaite moldegaitzekoak!

Poetak, *berex*. – Hor diona aski gozagarria da.

Belekturuk. – Eta zertako egiten zinituen lan horiek?

Poetak. – Laudatua izaiteko, miretsia ere, nahi baduzu.

Belekturuk. – Laudorioa ontsa maite zinuen beraz?

Poetak. – He! baina, gauza biziki gozagarria da.

Belekturuk. – Ustekoa nuen hoinbertze maite zenean etzela gehiago merexi.

Poetak. – Hor diozuna goga daiteke.

Belekturuk. – Eta miresten zituztenean, eta hartako gai zinela uste zinuenean, bazindoala bertzer erraitera: Gizon bat miragarria niz?

Poetak. – Ez, zinez; hori ezta erraiten: irrigarri izanen nintzan.

Belekturuk. – Ha! badantzut. Irrigarri zinela gordetzen zinuen, etzinen hala *inkognito* baizik.

Poetak. – Zaude bada, elgar argi gaiten; nola entzuten duzu hori? enintzan beraz zoro bat baizik izana, zure ustez?

Belekturuk. – Zoro miretsi bat; argiturik, hor aurkitzen den guzia horra zer den.

Poetak, *ustegabetua*. – Egia lerrakeela balidurike.

Belekturuk. – Etzirea bat enekin? nik bezala ikusten duzua?

Poetak. – Ba, hein batean; eta sendi dut aldi berean argi eztezaketan barneko mugimendu bat.

Belekturuk. – Ustez badakusat ere zure goratasunean aldaketa zenbait. Har kuraia, gizon xipi; begiak idekizkizu.

Poetak. – Joan nadin onhar ezazu; nitaz nihaurek gogoetatu nahi dut: bada egiazki ene baitan iragaiten den ohigabeko zerbait.

Belekturuk. – Zoaz, ene haurra, zoaz; gogoeta serio sak egizkizu zuhaurez; zure zoratasun osoaren ezagutzera indar egizu. Ezta hori guzia, dudarik gabe, eta berriz elgar ikusiko dugu, beharrez.

AGERRALDI XI

BELEKTURU

Belekturuk. - Xoratua niz, ene esperanzak berpizten ari dira; behar dira bertzeak ikusi. Bada norbait?

AGERRALDI XII

BELEKTURU, MEGIZTE

Belekturuk. – Gure izaite xipietan handiena ikus-arazatazu.

Megiztek. – Badakizu guziak kaiola batean ezarri ditugula. Galdatzen duzuna berean ekharriko duta?

Belekturuk. – He bada! den bezala ekharratazu.

AGERRALDI XIII

BELEKTURU

Belekturuk. - Zergatik ezten bertzeak bezain xipi ikusi behar dut; horrek ere zerbait ikas-araziko dauta haien arrazaz. Gu bezalakoak direla ikustea, zer bozkarioa!

*AGERRALDI XIV*BELEKTURU, MEGIZTE, LAGUNERIA, BLADI *kaiolan*.

Bladik. - Mintza bada, Belekturu adixkidea: he! alajinkua, zori batzuek hartzen gituztea? lumarik baduta kaiolan ezarria izaiteko? Ibarrean saltzera eremanen den oilasko bat bezala niz hor. Ezar nezazue izaitekotz korroilako pulinda!

Belekturuk. - Zure kaiolaren idekitzea aski zauzua gostuan izaiteko? oizu, horra idekia.

Bladik. - Ha! jinkuaz, behar duziera nahasiak izan ziek, gure hesteko. Hea, zer nahi duzu?

Belekturuk. - Etzirezte, diotenaz, gure irlan sartzean baizik ttipi bilakatu. Egia dea?

Bladik. - Oizu, horra gure goratasunaren ixtorioa. Hemen lehenbiziko urratsetik, senditu niz gerrirano jausten; 'ta gero, bigarren urratsean, enindoan zangora bano; 'ta gero aztal-beharrian gertatu niz.

Belekturuk. - Hortaz gauza bat jakin behar duzu.

Bladik. - Biga, nahi baduzu.

Belekturuk. - Bi mende badu hemen zuek bezalako izaitte ttipi batzu hartu zirela.

Bladik. - Haien kaiolan nizala hitzeman nahi duzia?

Belekturuk. - Zuer bezala egin zizaien; ezpaitziren handiago; baina gero gu bezain handiak bilakatu ziren.

Bladik. – He! alajinkua, badu sei ilabete bertze hainbertzeren ukaiteko aiduru nagola: hortako behar den segeretia ikasatazu. Jinkuaz, behin zure bidea balin badoa Passyrano, gizon gozo bat ikusiko duzu; eztut zurekin guti drinkatuko. Zer egin behar den erratazu.

Belekturuk. – Xipi pollita, jadanik errana dautzut; arrazoindun bilakatzea bakarrik.

Bladik. – Nola! xeheria hori hortik sendatzen da?

Belekturuk. – Ba. Iduriz ezpaitzen hala; eta naski zu berdin zira?

Bladik. – He! jinkuaz eta jinkuaz, horra beraz arestiko ene khondua Gaskoinaren mailekin; horra zer den; arrazoin duzu, eniz arrazoinduna.

Balekturuk. – Aithormen horrek zenbat atsegin badematan! Adixkide xipia, bide onean zira; jarraik zite.

Bladik. – Ez, mekatxes! arrazoinik eztut, hori dut gogwan. Eniz lele bat baizik, buzoka bat baizik, eta hori bide gurutzetan adar soinu erranen dut, gehiago ahalgetia izaiteko; zeren, mekatxes! ahalgegarri baita.

Belekturuk. – Biziki ontsa. Miragarriki gogoetatzen duzu. Geldi etzaitela.

Bladik. – Ba, badoa biziki ontsa. Baina mintza zite bada: goratasun hau ezta jiten ari.

Belekturuk. – Guardi emazu; arrazoinez eskas izaiteko badagizun aithormen hori ezta menturaz behar den bezala; eztuzu behar bada zure itxuraren berriz hatzemaiteko xedetan baizik egiten?

Bladik. – He! egiazki ez.

Belekturuk. – Ezta aski. Zure helburua ezta hori izan behar.

Bladik. – Jinkuaz! alta ontsa balio du.

Belekturuk. – He! haur maitea, arrazoina etzazula arrazoinarendako baizik nahi ukan. Gogo emazu zure eroke-

rietara; hetaz zintzoki ahalge izan zaite: hori da iduriz egiteko dena.

Bladik. – Mekatxes! huna ni ontsa trabatia. Izkiriitzen banaki, ene haurkerien zerrenda ttipi bat zirri-marra nezazuke; laster egina lizateke. Ene arrazoina 'ta ozartasuna hain dira oraino bat bertzearekin nahasiak, nun horrek guziak egiten baitu gehiago jeus ezagutzen eztutan zama bat. Galdez eta ihardestez ikus dezagun hori.

Belekturuk. – Enakike, zu zirenaz ezpaitut abantzu batere ideiarik. Baina gogoan erabilazu hori zuhaurek, eta susta zaite arrazoinaren maitatzera.

Bladik. – Ha! Brientxoa, gauza bat ederra da, hoin zaila ezpaliz.

Belekturuk. – Gutartean nagusi diren eztitasuna eta bakea ikuskizu; etzirea hortaz hunkia?

Bladik. – Egia da hori; oharr-arazten nauzu. Aurpegi batzu badituzie hain onak, itxura batzu hain zintzoak, bihotz batzu hain bizkorak...

Belekturuk. – Arrazoinaren eragina da.

Bladik. – Arrazoinaren eragina? Emaitza handikoa izan behar du! Harendako adixkidantzaz xoratia niz. Goazen, adixkidya, etzitut gehiago uzten. Huna ni ahalge, huna lilluran, huna behar den bezala. Arrazoin hori ematazu, eta atxik dutan goratasuna. Ba, adixkidya, sei oinez gorako gizonak eztu pampina arrazoindun bat balio; azken hitza dut eta azken errana. He! oizu, hori diotzutan batean, horra nun higitzen ari nizan. Ha! mekatxes, ontsa so egitazu! begizta; goiti noala uste dut. Eniz gehiago zure aztal-beharrian, galtzaria hatzemaiten dut.

Belekturuk. – Oi zerua! zer mira! hau ageri da.

Bladik. – Ha! debrientxoa, horra nun gelditzen den hortan.

Belekturuk. – Kuraia. Arrazoina maitatua duzun bezain laster, saristatua zira.

Bladik, *ustegabetua eta hats-bahitua*. – Egia hori; osoki harritia niz: baina izan behar du eztutala bada oraino behar den bezenbat maitatzen; edo, ene liberatzea burura dezan eztuket merexi. Adi nezazu. Lehenik erranen dautzut edale bat nizala: nehork eztu nik bezain gura onez zurgatu. Hain usu dut arrazoina galdu, nun berak berriz aurki nezakeela ustegabetzen bainiz.

Belekturuk. – Ha! ene bozkarioa! Gizonak dira, horra egina dena. Burura ezazu, ene iduriko maitea, burura; oraino inharrosaldi bat.

Bladik. – Ondikotz! huts meta bat badut haien burura heltzeko haundiegia; baina, edaleria horri doakonaz, ene diru guzia hortako xahutu dut beti; eta gaizkiago, adixkidya, gure mozkinak saltzen nituenean, zenbat erosle eztut enganatu, jender nihauren enganatzya ere onhartu gabel! ontsa maltzur da hori!

Belekturuk. – Miragarri.

Bladik. – Eta Maturin laguna, zer eztut egin haren emaztearen gaizki ezartzeko? Zorionez ene aldera beti gogor izan baita; hortakotz baitut eskertzen: baina, arrazoinez, lagun baten ohorean zergatik alhatu nahi ukan, guretik nahi ukan lezan nahi elizatekeenean?

Belekturuk. - Ikus ahala nola bertzelakatzen ari den!

Bladik. – Ondikotz! ba, ene goratasuna aitzina doa; eta arrazoinak ontsa fagoratzen nau. Oizu, adixkidya; mahasti phixka bat banien phentze phixka batekin; ene aiotz eta laborantzarekin makurrik gabe bizi nintzan; Dufлот kapitaina heldu zata hortan, eta holaxet erraiten dauta: “Bladi, nahi nuka ene untzian zerbitzatu? Nahi duka diru irabaztera ethorri?” Etzaztea *diru* hitz hortan beharriak zutitzen, astaña batenak bezala? Eztituta, zure errespetia salbu, abere, adixkide, jendakiak uzten? Eniza taulazko kaiola hartan hetsia egoitera joaiten? Eta gero aroa khexatzen da, horra ekaitza, urak jatekoak andeatzen ditu; ezta gehiago ez orhe ez irinik. He! zer gertatzen da bada? Nigar, oihu, sakre, gosez hiltzen; kaiola hondatzen da; arrainek Dufлот Jauna jaten dute,

berak gogotik janen zitielarik. Dotzen-erdi bat salbatzen gira. Hunara heltzean ttipitzen niz. Horra ene itzuliak badematan diru guzia. Baina, mekatxes! Arrazoin horrekin ezagutza egina dut, eta urregin baten saldegi guzia baino nahiago dut hori. Oizu, Belekturre adixkidya, behazu; horra oraino egiten zatan haunditze bat: diru jokari batez bezala iduri du; haundi bilakatzen niz bapatez; horra orai nintzan bezala!

Belekturuk, *besarkatu*z. – Etzinezake sinets zenbat zorionekin badakusatan zure bertzelakatzea.

Bladik. – Ostia! ene lagunez nola trufatuko nizan! nola loriatuko! nola haziko!

Belekturuk. – Ha! zer diozu hor, gaixoa? Zer sendimendu zozoa! Berriz ttipitzen ari zira.

Bladik. – Oi! mekatxes, egia da ; huna berriz eroria, laburtzen ari. Ai ene! Ai ene! Urrikitzen niz. Barkamendu galdatzen. Xume izaitez botu egiten. Urgulurik gehiago nehoiz ez, nehoiz... Ha!... ha! ha! ha! Berriz goiti ari niz.

Belekturuk. – Ez berriz hortara.

Bladik. – Xumetasuna zein segeretu ona haundi izaiteko! Hori nork erran lezake? Besarka zitzatan, laguna. Aitak egina nau, eta zuk berregina.

Belekturuk. – Behazu ontsa zuhauri hemendik goiti.

Bladik. – Ho! mekatxes, xumetasuna, diotzut. Loria horrek soina nola jaten duen! Ho! gehiago eztut soberakinik erabiliko.

Belekturuk. – Erregeri berri on horren eremaitiaz berantetsia niz.

Bladik. – Baina, erratazu, ene lagun gaizoak urriki ditut; garitatea badut haiendako. Nik baino balio gehiago badute: orotako gaitzena niz; lagundu behar dira, eta sarri, nahi baduzu, arrazoina entzun-araziko dauet. Ikusiko nauten orduko, ene han izaiteak pheredikatuko ditu; malgu bilakatu behar dute, eta ustegabez hebainduak gelditu.

Belekturuk. – Biziki ontsa arrazoinkatzen duzu.

Bladik. – Zinez! esker haundiak zuri.

Belekturrek. – Haier erakaspén emaitéko bertze bat baino hobea izanen zira: mundu beretik jalgitzen zira, eta nik eztituan argiak ukanen dituzu.

Bladik. – Ho! eztituzula! Erraitea laket zaizu. Iguzkia zu zira; eta eniz argizagia ere, ni, zure ondoan; baina hoberenetik eginen dut, ene lerro aphaalaren gatik baztertzen ezpanaute.

Belekturuk. – Nola, lerro aphaala! Laborari bat zinela errana dautazu.

Bladik. – Horren gatik da ere.

Belekturuk. – Eta gutietsiko zituzte! Oi giza-arrazoina, horrarano utzi ahal izana hiza! He bada! zuri doakonaz duten erotasunaz balia gaiten; haiek baino arrazoindunago zirela ikusiz, zu hain guti estimatzen zituztena, aphaalduak izan bedite.

Bladik. – Eta ez A ez B eztazkitalarik! belhauriko eman behar lizateke zure zentzu onari beha egoiteko. Baina horra uste dut gure lagunetarik bat heldu.

AGERRALDI XV

BELEKTURU, MEGIZTE, BLADI, FONTIÑAK

Megiztek. – Jaun Belekturu, huna baitezpada mintzatu nahi zaizuena.

AGERRALDI XVI

BELEKTURU, BLADI, FONTIÑAK

Fontiñakek. – Diubiban! Bladi nagusia, eniza burxoro! Arestiko xipa hura zirea?

Bladik. – Ba, anaia; huna kuxkutik athera berria den oilaxkoa.

Belekturuk. – Gauza bera gerta zaitzun eztago zuri baizik, gizontto.

Fontiñakek. – He! *cadeditz*, hiltzera noa hor, eta hortaz aholku galdez heldu nintzan.

Belekturuk. – Oizu, nola egin badaki, hunek; elgarrekin uzten zituztet.

AGERRALDI XVII

FONTIÑAK, BLADI

Fontiñakek. – Goazen, adixkidea, xarbo xipia zure eskuetara emaiten dut; bermolda dadin zure gomendio uzten.

Bladik. – Hain errexik jeus ezta. Bota barnera arrazoinetik; ‘ta gero, brix, gorputz osoa heldu zaizu.

Fontiñakek. – Nola, arrazoinetik! Arestian zuzen asmatu dugu beraz!

Bladik. – Ba, sudurra gainera emana nuen. Zozo bat zirela ontsa aithortzea aski da, eta zertan.

Fontiñakek. – Zozo bat? Hitza elaitheka alda? Ez batere higun zatalakotz.

Bladik. – Ezetz, mekatxes! bizian ukanen duzun ideia ederrena da.

Fontiñakek. – Entzun nezazu, gizon ona; eztirea hutsak aithortu behar?

Bladik. – Biziki ontsa.

Fontiñakek. - He beraz! ezta zozokeria enetako. Ene gaitza ezatza hortan: zurea zen; bakoitzak bere zama. Eztut alta neure buruaren gupidesteko xederik, gehiago ezpainiz estimatzen: baina gogoari emaiten, ozar baino gutiago zoro aurkitzen dut neure burua, ergel baino gutiago lele.

Bladik. – Bono! Mekatxes! hori dugu erran nahi: badoa lasterrez. Nork bere buruaren salatzekeo gutizia emaiten du mutiko hunek. Hori dea guzia?

Fontiñakek. – Ez, ez: emazu gezurtaria nizala.

Bladik. – Dudarik ezta, Gaskoina zirenaz geroz; baina ohiduraz dea ala gertaldiz?

Fontiñakek. – Gure artean, oro gertaldi zata; ohiduratako khonda ezazu beraz.

Bladik. – Zer da bada hori? Gezurra dion gizon bat, elhea galdua duen gizona bezala da.

Fontiñakek. – Hori nola izan daiteke? ezen aldi berean gezurtaria niz eta elhekaria.

Bladik. – Eztu muntarik, elhakari izanik ere, diotana egia da; gezurra dion batek ezpaitu nehoiz behar den elhea erraiten, hitzik ezpalerrake bezala da.

Fontiñakek. – Gogoeta hori etzata hastio; ametsetakoa da.

Bladik. – Goazen berriz gure miserietara. Itzulzkizu zure sakelak; zorroaren zola erakutsatazu.

Fontiñakek. – Phozoindatzale bat izanaz erasiatzen niz.

Bladik, *gibelatu*z. – Oi! hortako, aholkua behar dut; sendatzeko itho beharko baitzira behar bada, ikusten duzu! Eta hemengo egoiliarak abisatu behar ditut.

Fontiñakek. – Phozoindatzen dutana ezta gorputza, hobeki badagit.

Bladik. – Ur-errekak behar bada?

Fontiñakek. – Ez: hori guzia baino gaizkiago.

Bladik. – He! mekatxes, mintza laster.

Fontiñakek. – Gizonen izipiritua dut usteltzen; itsu bilakatzen nituen; hitz batez, lausengaria nintzan.

Bladik. - Ha! zaude; hastapenean zure phozoinak itxura ontsa gaixtoa baitzuen; baina laztagarri da hori; dena afruntatua niz.

Fontiñakek. – Neure burua hastio dut. Asma ezazu ene nagusiaren irrigarritasunean, erdia nik egina dela.

Bladik. – Gauza hortaz ontsa hasperendu behar da.

Fontiñakek. – Hatsa do-doia hartzen dut.

Bladik. – Goratuko zira beraz?

Fontiñakek. – Senditzen dutanaz eniz dudan. Jarraik zakizkit, nahi dut mirak jo ditzan Elhorriñoren eta ene nagusiaren begiak. Igurikatu gabe, laster egin dezagun; lehia dut.

Bladik. – Goazen lasterrez, eta gure lagun guziek bere khondua ukan dezaten behar dena egin dezagun.

EGITADI II

AGERRALDI LEHENA

FONTIÑAK, BLADI, ELHORRIÑO

Elgar pherekatuz bezala sartzen dira.

Fontiñakek, *Bladiri*. – Ontsa beraz, besarka haizatan oraino, adixkide maitea, Bladi adixkide mina. Ni bezainbat iraunen duen esker onaz hertsatua niz: hitz batez, arrazoina zor dauiat eta eta ene itxurara berritzultzea.

Elhorriñok. – Nik, Fontiñak, ehindutan hastio, baina egun aithortzen deat ene bihotza hire aldera ontsa jarria dela; Bladiri zor dukan bezainbat zor deat.

Fontiñakek. – Ontasunek alde guzietarik dariotate beraz.

Bladik. – Alajinkua! badut hortaz guziaz anitz satifamendu: sendatu dugu Fontiñakeko Jauna, et gero Fontiñakeko Jaunak sendatu zitu; eta horrela, sendatzez sendatze, ontsa niz, ontsa da, ontsa zirezte; eta horra hirur eri mediku bilakatu direnak; ezen medikusa zira bertzerendako, Andereño Elhorriño.

Elhorriñok. – Ondikotz! eztut haier zerbitzu emaita baino hoberik galdegiten.

Fontiñakek. – Ha! sinesten dut; arrazoina baduen edonoren baitan, urko atsegabetua ezta gomendio beharretan.

Bladik. – Miragarri da hori! Zein jende zuzena bilakutzen den arrazoin horrekin!

Fontiñakek. – Ariman sendi dut ezti bat, goxo bat.

Bladik. – Eta enea hain atsedean onean dago.

Elhorriñok. – Hain thesor handia da arrazoina.

Bladik. – Mekatxes! gal etzazula zuk; ontsa gertakizunekoa baita neska baten eskuetan.

Elhorriñok. – Abisuaz ontsa eskertzen zitut.

Bladik. – Xoratzen nau, Fontiñakeko Jauna; xumetasuna badu; gu gizonak bezain arrazoinekoa da.

Fontiñakek. – Neure burua ontsa zoriondun estima nezake hura bezainbat hala baldin baninz.

Bladik. – Oraino! Gaskoin bat xume! Oi! zer aldamera! Zoaz, ondorano purgatua zira.

AGERRALDI II

MEGIZTE, FONTIÑAK, BLADI, ELHORRIÑO, MEDIKUA

Megiztek. – Jaunak, huna zuen lagun bat zuen ikustera jiteko othoiztu nauena.

Bladik. – He! Nun da bada?

Fontiñakek. – Eztut nik ere ikusten.

Medikuak. – Huna hemen.

Bladik. – Ha! hor higitzen ari zen zerbait ikusten nuen; bana zer zen enakien. Uste dut gure medikua dela.

Medikuak. – Hura bera.

Elhorriñok. – Goazen, adixkideak, hortik atheratzera entsegatu behar da.

Medikuak. – He! Andereñoa, eztut gehiagokorik galdegiten; ezen, egiaz, nizan bezala egoitea gauza ontsa itsusia da, nik ontasuna badutalarik, aberatsa nizalarik eta ene herrian estimatua.

Fontiñakek. – Etzaitela ero horien estimatua izan.

Medikuak. – Baina, eztuta neure etxetik urrun egon beharko, beharrean, eta bizitzeko behar denik gabe?

Bladik. – Ixil zite bada, jende gormanta. Hazkurria eskas duzia hemen?

Medikuak. – Ez; baina ene ontasuna, zer bilakatu da?

Bladik. – Zer ezteuskeria bere ontasunarekin! haur bat bere pampinaren ondotik bezala da. Oizu, jaka bat, janariak eta arrazoina, gizon batek hori baduenean, horra neguko eta udako hornitua; horra mankerdi bat bezain horratua. Ikusiko duzu, ikusiko.

Elhorriñok. – Errozu berriz zen bezala izaiteko zer egin behar duen.

Bladik. – Nahi duzua nik dezatan artha?

Fontiñakek. – Dudarik gabe; ohorea zuri da; gu guzietako gehiena zira.

Bladik. – He! mekatxes, ez gehiago ohorerik, eztut hunki ere nahi; eta erotegietarik athera den gaizo bat baizik enizala ontsa badakit.

Fontiñakek. – Demagun beraz izpirituz hebaindu hori Elhorriño Andereñoaren eskuen artean.

Elhorriñok. – Ni, Jaunak! zirezten lekuan eni dago ixiltzea.

Medikuak. – He! adixkideak, horra komplimendu ontsa luzeak, oinazetan den gizon batendako.

Bladik. – Ho! bada, xumetasuna behar da gutartean ibili; beheititzen gitut gora egoitekotan. Zuretako azkarregi da hori, ñimiñoa; eta banoazu, lagunek manatzen dautatenaz geroz, zuri mutiko haundi bilakatzen ikastera, eta zure xipitasunaren *tu autem* zer den; baina bortitz izanen niz, jakin-arazten dautzut; zure ttipitza behar dut laidoez lehertu: laguner galdegiezu bada!

Fontiñakek. – Bai, zure osagarria horri dago.

Medikuak. – Zer! zure segetu guzia eni laido erraitea da? Eztut nahi.

Bladik. – Ho ontsa! atxikizkizu beraz zure laur zangoak.

Elhorriñok. – Baina entsegu egizu, gizon xipi.

Medikuak. – Laidoak Fakultateko dotore bati?

Bladik. – Dotorerik ez dotrinarik ezta; botikari bazine ere.

Medikuak. – Dakusagun bada zer den.

Fontiñakek. – Bono, hartzen duzun xedeaz goosten zitut. Elhorriño Andereñoa, egitera utz dezagun nagusi Bladi, eta entzun.

Bladik. – Lehenik, hasi behar zaizu mediku izanez zoro bat zirela erraiten.

Medikuak. – Huna laborari bat ontsa ausarta.

Bladik. – Ausarta! eniz zure menean. Erratazu, khexatu gabe, ezkondua zirena, emaztea bazinuena han?

Medikuak. – Ez, alhargun niz; emaztea hogei-ta bortz urtetan hila zata birietako min batetik.

Bladik. – Fakultateko dotrina izan arren?

Medikuak. – Enuen salbatzeko ahalik ukan.

Bladik. – Haurrik baduzua?

Medikuak. – Ez.

Bladik. – Ez zuzenean ez gaizki?

Medikuak. – Ez, diotzut. Hirur baintuen; pikotatik hil dira, duela laur urte.

Bladik. – Xardiu-mardiu dotoreaz! jendea zertarik sendatzen zinien bada?

Medikuak. – Nahi duzuna errazu, bertze batek baino arrakasta gehiago banuen.

Bladik. – Azken aldiko lasterra baitzuten. He! eztiozia aberats zirela?

Medikuak. – Dударik gabe.

Bladik. – He! baina, mekatxes, jendea hil-araziz biziaren irabazteko beharrik eztuzunaz geroz, mediku izanez ogendun zira. Beharrak jende hil-araztera bortxatzen duenean

oraino, baina aberats denean, eztu balio; eta zoro bat zirela erranez banarraika beti, eta, haunditu nahi baduzu, berak hiltzera utzi behar direla jendeak.

Medikuak. – Baina azkenean...

Fontiñakek. – *Kadediz!* Eztuzu arrazoinkatzen duen baino hobeki hiltzen.

Elhorriñok. – Segurki.

Medikuak, *haserrear*. – Ha! banoa. Ihizi horiek nitaz trufatzen dira.

Elhorriñok. – Ezta joa izana gabe; berriz itzuliko da.

AGERRALDI III

BELEKTURU, FONTIÑAK, BLADI, ELHORRIÑO

Fontiñakek. – Ha! Horra lehenbiziko argi arraiak haren ganik ethorriak zaizkun gizon zuzena. Zaugi, Belekturu Jauna, zure haurretara hurbil zaite, eta zure besoetan harzkizu.

Bladik. – Ho! esker onak emanak dauzkot jadanik.

Belekturuk. – Eta nik, zirezten izanaraz jainkoer emaiten deztauet. Ezta gehiago gaia zuen lagunez baizik.

Bladik. – Bat huts egin dut orai berean; eta bertzeak ontsa hisituak dira, gehienik gortelaria eta filosofoa.

Elhorriñok. – Ene aldetik, ene etxekandereari arrazoina entzun araziko daukotala uste dut, eta hemen berean geldituko girela guziak; hain ontsa baigira!...

Belekturuk. – Zuer horren sinets-arazteko xedetan nintzan, haurrak; zuen herrian berriz eror zintezkete behar bada.

Bladik. – Jinkoaz! Gure burumunak berehala urtuak lizatezke. Arrazoina erokerien herrian, elhur pilota bat iguzkian bezala da. Baina, iguzkiaz mintzatzean, erratazu, Belekturu aita; arestian, iragaitean, herriko oilanda gazte bat aurkitu dut, osoki gixakoa, alafe, eskua hartu baitauta, eta erran: “Horra beraz haunditua zirela! Biziki ontsa doazu; komplimenduak egiten

dauzkitzut.” Eta gero, horren erraityan, begiak nitan zerabiltzan, ikusi behar zen; eta gero: “Mutiko ederra, beha ezatazu; utz nezazu zure maitatzera. – Ha! Andereñoa, trufaz ari zira, egin dut; abantailak eztitut nik emaiten, nik ditut galdegiten.” Eta gero ethorri zira, hortan gelditu niz. Zer erran nahi du horrek?

Belekturuk. – Horrek erran nahi du maite zituela, eta hori aithortzen zautzula.

Bladik. – Maitasun aithortze bat neroni! eta gaizkirik eztea hortan?

Belekturuk. – Batere ez. Nola bada? herriko legeak du horrela egin dadin nahi.

Bladik. – Gwazen, gwazen, trufari bat zira.

Elhorriñok. – Belekturu Jaunak irri egitea maite du.

Belekturuk. – Ez, zinez, seriooki ari niz.

Fontiñakek. – Baina azkenean, Frantzian ere, hori hasten ari zen.

Belekturuk. – Nahi zinuke emaztek jauki lezazketen gizonak! Emazten zuhurtziak horri iharduk lezokea ere?

Fontiñakek. – Alabaina ezta ohiki azkar.

Bladik. – Mekatxes! egia da hori, orotan ezta zuhurtzia aurdikirik baizik ikusten.

Belekturuk. – Zer bilakatuko da ahulezia indarrak jaukitzen badu?

Bladik. – Adio karrosa!

Belekturuk. – Zer bilakatuko da maitasuna, ahulena, emaztekoa, maitasunaren olden gainditzeko lanaz kargatzen baldin baduzu? Zer! erakhartzea gizonen aldean ezarriko duzu, eta haren garhartzeko beharra emazteren aldean! Eta hartan erortzen baldin badira, zer duzu haier erraiteko? Orduan zuek zirezte desohoratu behar, eta ez hek. Zer lege bitxiak zuenak maitasunari doakonaz! Zoazte, haurrak, eztitu arrazoinak eginak, baina bizioak; bere abantailak ontsa entzun ditu. Emaztek gizoner ihardukiko zutela erabaki den herri batean, bertutea

tirrien bizkortzeko baizik balia eladin nahi izana da, eta ez menperatzeko.

Bladik. – Mekatxes! emaztek jitea aski dute, ene indarrak bermuki igurikatzen ditu. Ikusiko dute bertuterik eztutanez nahi irri egiteko baizik.

Elhorriñok. – Zuen ohidurer jartzeko, nahiz zentzua baduten, neke ainitz ukanen dutala aithortzen dautzut.

Belekturuk. – Hainbat gaixto; berriz eroria bezala ikusten zitut.

Elhorriñok. – Ondikotz! Jauna, oraikoa beldur niz.

Bladik. – He! mekatxes, laster egizu bada; urrikal-mendura zaug; horra zure goratasuna joaiten ari.

Elhorriñok. – Ba, amor emaiten dut; nahiko den guzia eginen dut; eta, obeditzen dutalako phorogutzat, oizu, Fontiñak, maita nezazun othoizten zitut, othoizten zinez.

Fontiñakek. – Ontsa hertsagarri zira.

Elhorriñok. – Arrazoin duzula senditzen dut, Belekturu Jauna; eta zuen leger jarriko nizeela hitzemaiten. Ordu huntan senditu berri dutanak haien aldera errespetu gehiago emaiten dauta oraino. Goazen, ene etxekanderea intziraka ari da; onhar ezazu hortik haren jalgitzera ar nadin; mintzatu nahi dut.

Bladik. – Zure laguntzera utz nezazu ere.

Belekturuk. – Ekhar dezautzuten erraitera banoa orai berean.

Fontiñakek. – Eta nik, ene aldetik, ene nagusiaren burxoratzeak gudukatuko ditut.

AGERRALDI IV

BLADI, BELEKTUR

Bladik. – Alajinkua! Elhorriño Andereñoa, zer diozu hortaz? Ontsa lege ederrak badira herri huntan.

Elhorriñok. – Orok xoratzen nau hemen.

Bladik. – Mekatxes! oizu, horra arestian lausengatua nauen neska hura, gure gana heldu.

AGERRALDI V

ELHORRIÑO, BLADI, IRLATARSA BAT

Irlatarsak. – Ha! mutiko ederra, berraurkitzen zitut; eta zu, Andereñoa, ziren bezala ikusteaz loriatua niz.

Bladik. – Ni ere hortaz azkarki loriatia niz. Mutiko ederrari doakonaz, halakorik ezta hemen.

Irlatarsak. – Eni, hala iduritzen zaizkit.

Bladik, *Elborriñori*. – Amorez ari zatala ontsa ikusten duzu. Baina, Andereñoa, mintza zaizkit: ederra nizala ze xedetan erraiten dautazu? Hori jakin gogo dut. Gustatzen nizaizia?

Irlatarsak. – Segurki.

Bladik, *Elborriñori*. – Ontsa orhoit zite jeus enakikeeela hortako egin. Ontsa lardea niz, eztea hala?

Irlatarsak. – He zer! hain gozagaitza aurkitzen nauzua?

Bladik, *bere*. – Zu! ez... Baietz, baietz. Ametsetan ari bainiz. Mekatxes! huni gogorki egitea zer domaia!

Elhorriñok. – Nagusi Bladi, hoin nexkato pollitaren irabazteak zure oharpena merezi du alta.

Bladik. – Ho! bana gauzak jin behar du; ezpaita oraino ontsa ondua, eta maitatuko nauen orduan ikusiko dugu; doala bere urhatsean.

Irlatarsak. – Bakar-bakarrrik maitatzea ontsa trixte da!

Bladik. – Ene zuhurtziak eztu oraino hori jostagarri dela deliberatu.

Irlatarsak. – Huna, uste dut, zure lagunetarik noirbait heldu; banoa zure bihotzetik jeus igurikatu gabe.

Bladik. – Hor, hor, adixkideñoa, berriz jinen zira. Kuraia ez gal, entzuten duzu!

Irlatarsak. – Pasa hortako.

Bladik. – Goraintzi, goraintzi. Badugu zer egin. Sobera eremu irabazten ari duzu, eta hortaz ahalgetzen niz. Goraintzi!

AGERRALDI VI

KONDESA, ELHORRIÑO, BLADI

Kondesak. – He bada! zer nahi dautate? Oi zerual! zer ikusten dut? zein lilluramenez hartua duzu berriz zure itxura egiazkoa? Menpera eztezaketan etsipen batera noa.

Bladik. – Hea, ene anddere xipittoa, ederki, ederki. Ezta hemen burumun antolamendu ttipi batez baizik ari.

Elhorriñok. – Badakizu, Anderea, arestian Fontiñakek eta laborari hunek uste zutela arrazoin eskasez baizik ezkinela xipi; eta ustea zuzen zuten: egiaztatu da.

Kondesak. – Zer ameskeriak! eroa ote niz?

Bladik. – Baietz! mekatxes, horra zertan den.

Kondesak. – Nik, izpiritua galdua dutala! Zein ezinbertzetara eniz hertsatua!

Bladik. – Behazunez, mozkor bat nizala aithortua dut bada, nik.

Elhorriñok. – Ene erokerien aithortzeaz baizik ez tut arrazoina berriz hatzeman.

Bladik. – Bono, bono, berriz hatzeman! Bere itxura ahatzi behar du! Ondotik hoinbertze laster egiteko horra philda bat ederra! bere arrazoin bihurraz nigar egin beza, horra dena.

Elhorriñok. – Fontiñakek eni horren sinets-arazteko nik zuri egiteko dutan bezainbat neke ukana du, etxekandere maitea; baina amor eman dut.

Bladik. – Ni bezalako bilaun batek izaite arrazoindun baten izanara duen batean, nahi duzua beti zure ihizi izanara atxiki? Gorteko anderauren batek!

Elhorriñok. – Etzozula gehiago Gorte zorigaitzeko hura aipha.

Kondesak. – Nigarrek enaute mintzazera uzten.

Bladik. – Horra on baino hobe dena; baina eztario zure erotasunak baizik: zure arrazoinak eztu xorta bat emaiten, eta jeus eztoa aitzinera.

Elhorriñok. – Egia da hori.

Bladi. – Etzaitela khexa, etzitugu garitatez baizik erdeinatzen.

Kondesak, *Elhorriñori*. – Baina, othoi, ikas ezaztazu ene erokeriak!

Elhorriñok. – He! Anderea, gogoeta apur bat. Gazte zirela eztakizua, eder, eta lerroko neska? Hirur gaitasun horier ihardoki dauen neska buru bat erratazu, erratazu bat.

Bladik. – Gaztetasun hori, haizera itzulika dabil. Lerro horrek lorios egiten du.

Elhorriñok. – Eta edertasuna?

Bladik. – Emazteak hain zozo ditu bilakatzen!...

Kondesak. – Zure khondura, Elhorriño, xoriburu bat niz beraz, zozo bat eta lorios bat?

Elhorriñok. – Anderea, hain zuzen karkulatzen duzu, nun hortan sar nadin ezpaitu balio.

Bladik. – Etzira jeus-jeusetako hoin xipi. Ontsa badakusazu balio zinuenaren ordaina zaizula eman.

Kondesak. – Urgulua, zozokeria eta xoriburukeria!

Bladik. – Ba, hasnaurri egizu, ontsa masteka ezazu hori zure baitan, sendagailutako balia zakidizun.

Kondesak. – Azkenean, Elhorriño, hau guzia onez onean dela sinetsi nahi dut; baina diozunaren iduripena duenik deus eztakusak neure baitan.

Bladik. – Mekatxes! alta argia sudurrera aski hurbiltzen dautzut. Mintza gakizkion apur bat kriketasun hortaz. Untzi hortan zama on baten ukaiteko izaria bazuen.

Elhorriñok. – Lagun zaite, Anderea; gogoan harrazu, behazenez, aphaingedi bat zer den.

Bladik. – Zaude. Aphaindegi bat, eztea hain ontsa antolatua den mahi bat, hainbat puxkileriekin, argitzeko batzu badituena, zilharrezko khutxaño batzu 'ta estalgi bat mirail baten gainean?

Elhorriñok. – Hori bera da.

Bladik. – Ho! gure herriko andereak bat berdina bazuen.

Elhorriñok. – Orhoit zirea, etxekandere maitea, zurearen gainean zinuen aurpegiko tresneria andana hartaz?

Bladik. – Tresnak bere aurpegiko! Amak etzaukona emana aurpegi bat jadanik egina?

Elhorriñok. – Ontsa! kriket baten aurpegia nehoiz egina ote da? Lantzen da egun oroz: behar dira bekuruntzak arautu, bekaldiak zuzendu. Eztea egia egun batez, zure mirailan, so ezti batek hatzemaiteko hirur oren baino gehiago gusta daukitzula? Etzinuen halere nahi zinuenaren erdia baizik hatzeman; zeren, nahiz so ezti bat zen, behar baitzen hartan zerbait burgoi ere nahasi; burgoitasun laurden batek behar zituen han hirur laurden eztitasun arautu; ezta hori errex. Noizten burgoiak ezitik gehiegi hartzen zuen; noizten eztiak burgoia ithotzen. Ezta haztakina eskuetan; egiten ikusten zintutan, eta enautzun gehiegi baizik behatzen. Enindoana zure sino-mino guzien errepikatzeraz? Ikusi behar nintzan begiez behakoetan suzko, soetan ahuldurazko, xorokeriazko eta nobleziazko neurri batzuen bila. Mila baino gehiago banituen, bertze hainbertze tiro zirenak, nik, zure menean baizik ikasia enuena. Bat bazinuen bizia zena eta aldi berean hiltzera emana, gogoa gal-arazter baitauta: biziko sei ilabete bederen gusta dauztan behar izana da, hari jarraikitze hartu nuen lepho-gogortze bat khonduan hartu gabe.

Kondesak, *hasperenka*. - ! Haaa!

Bladik. – Zer ezteuskeria meta! horra zori izigarri bat kriketa baten begi izaitea!

Elhorriñok. – Eta gure aphaindura! eta gure buruaren eraikuntza, Frantzian bereziki Anderea han egona baita! eta xingolen hautatzea! Hori ezarriko duta? ez, begitartea latz emaiten dauta. Hau entsea dezagun; uste dut iluntzen nauela. Dakusagun horia, histen nau; zuria, larrantzea ilhauntzen dauta. Zer ezarriko da beraz? Margoak hain dira mugatuak, diren ezperdinak izanik ere! Kriketasuna gabezia gelditzen da; eztu behar duena ere berekin. Bitartean entseatzen da, ekhentzen, berriz ezartzen, khexatzen; besoak akhiduraz erortzen dira, ezta gehiago laguntzen dituenik handikeria baizik. Azkenean bururutzen da; horra buru hori behar den bezala, horra begiak harmatuak. Hoinbertze garazia harendako egin diren burxoroa sarri ethorriko da. Ha! joko ederra, hatzemaiten ahal baliz!

Bladik. – Baina ara hortan, ziek jenden gainera tiro egiten duzien munduko emaztyak, eskopeta batzu bezala zireztela hartzen dut.

Elhorriñok. – Nunbait han, Bladi gaizoa.

Kondesak. – Ha zerua!

Bladik. – Deitoratzen da. Arrazoina da erotasunarekin gudukan.

Elhorriñok. – Etzaitela nahas, Anderea; osoki zurea den bihotz bat zaitzu mintzo. Zorigaitzez orhoitik ezutu, eta eniz zure erokerien erdiaz baizik berriz orhoitzen. Lerroko kapituluan, urgulua: jende horiek nor dira? zein etxetakoak? eta burjestsia xipi hori enekin gomparatzen ari? Eta gero menekoak agurtzen diren onezia burgoi hori; bere lekuaren hartzeko den itxura gora hori; nor bera zer den eta bertzeak zer eztiren estimatze hori. Andere hau atherano lagunduko dea? Hori eztea agurtuko baizik? Khondutan hartu gabe begitarre pollit guzien alderako gorromio hori, doinu axolagabe 'ta ohargabeko batez erhausten baitira. Zeinbat eztituzu hantuak aurkitu, gixenak zirelakotz? Mehe zenari etzinaukon larrua hezurren gainean baizik uzten. Bazen huntan sudur bat izpiritudun izaitea debekatzen zaukona. Begi batzu burgoi zirena? ohilduak bilakatzen ziren. Eztiak zirena?

horra zozoak. Biziak? horra eroak. Hogeita borts urtetan, berrogeitara hurbildua zen. Emazte xipi batek bazituena garaziak? ha! pampina! Handia zena eta ontsa egina? ha! zigantea! Bere burua ferian erakutsiko ahal zuen. Emazu horren gainera emazte baten alderdiaren hartzeko xorroxtasun hori kontra egiten zaien batean handitzen diren gaitzerran batzuez, ezpaitira laster egin-arazteko baizik alegia geldi-arazten, eta hain ontsa hedatzen baitira, nun ezpailaitezke gehiago barrea.

Kondesak. – Geldi hadi, Elhorriño, geldi, othoizten haut.

Bladik. – Alajinkua! huna ixtorio bat ontsa libertigarria 'ta aldi berean lastimagarria. Zer jostalaria, mundu handi hori! Zer maltzur bitxia! Behar lizateke, mekatxes! Zubi-Berrian erakutsi, ikusgarri bezala. Saltsa-maltsa hori gogoan atxiki nahi nuke bada. Molde orotako xingola motak, musker, urdin, hori, aurpegi batekilako adixkidantzarik eztutenak; margoekin bizitzeko behar denik eztuen kriketasun bat; beso batzu ezin egonak; 'ta gero hantukeria haier *kuraia!* erraiten dauen hantukeria, 'ta gero so batean ezitia, burgoiarekin bustitzen dena; eta gero merkateria horren phizatzeko haztakin bat: zer da hori guzia?

Elhorriñok. – Burura ezazu nagusi Bladi; erran dutan guzia baino hobea da hori.

Bladik. – Alajinkua! onhartzen dut. Oizu, bekaldi heren bat bertze laurden batekin; erloia bezala muntatu behar den aurpegi bat; begitarte horren ikustera dathorren xoriburu bat; emazte batzu xoriburu horren ondolik ihizira doazenak, tirokatzeko; 'ta gero begian erhauts eta berun; jaoitze handi batzu jenden etxea galdegiten dutenak; bitxiki komparatzen diren burjestsu batzu; begitarte pottolo batzu gizenarekin hanturatik badutenak; kaizuz andere huni emaiten zakon neurri bat bertze horri laurden baten ekhentzekotan; sudur batekin ezin akomea laitekeen izpiritua, eta bihotz onez gaitzerraitea. Badae oraino? Guzia nahi baitut, sendatua izanen denean andere huni erakusteko; irri egin-araziko dauko.

Elhorriñok. – Anderea, itxuratze horrek badu segurki arrazoinera deitzekoa.

Kondesak, *abalgetua*. – Elhorriño, begiak idekitzen dauzkinat; amor eman behar da: ero bat bezala bizi izana nun. Lagun nezan; zer bilakatzen ari nizan eztakinat.

Bladik. – Ha! Elhorriño, ene adixkidea, horra egina, pampina joan da; huna sekula eginen den egozpen ederrena.

Elhorriñok. – Ha! ene etxekandere maitea, zein loriatua nizan!

Kondesak. – Zenbat zor deatan, Bladi; eta hiri ere, Elhorriño.

Bladik. – Mekatxes! zer bozkarioa dutan! xipitasunik gehiago ez; hil-hotz-hotza utzia dut.

Kondesak. – Ha! haurrak, enetako eztienik dena hortan guzian, orai gauzez dutan gogamen sendo arrazoinduna da. Zein goxagarri den arrazoina!

Elhorriñok. – Hitzemana nautzun, eta, sinetsi nahi banauzu, hemen egonen gira. Eztugu berriz irriskutan jarri behar; berriz erortzeak, gu emazten baitan, gizonetan baino ontsa errexago dira.

Bladik. – Nolaz, emazte bat, beti erdi-eroria da. Emaztea beti hormaren gainean dabila.

Kondesak. – Etzaitela beldur izan; hemen arrazoina berredirena dut; ehoiz eniz hortik atherako. Hori balio luenik zer ukan nezake?

Bladsik. – Phildarik baizik ez. Lehenik, bada hemen Gobernariaren semea, mutiko bat ontsa egina.

Kondesak. – Biziki gixakoa; ohartu nako.

Elhorriñok. - Hartaz maitatua izaitea etzaizu neke izanen.

Bladik. - Oizu, hunara heldu da bere arrebarekin.

AGERRALDI VII

KONDESA, ELHORRIÑO, BLADI, PARMENEZ, LOREDI

Loredik. – Zer ikusten dut? Ha! anaia, zer jende pollita.

Bladik. – Alta arestiko pampina hura da.

Elhorriñok. – Ene etxekanderea da, Jauna ohartua zizakon eme xipi hura.

Parmenezek. – Nola! zu, Anderea?

Kondesak. - Ba, Jauna, hura bera niz, arrazoina ene baitan berriz nagusitu dena.

Loredik. – Eta ene ar xipia?

Bladik. – Hari bere goratasunaren emaiten ari zako; Gaskoina du ondotik, erran daukunaz.

Loredik, *Kondesari*. – Zorion bera ukan lezan ontsa nahi nuke. Eta zu, Anderea, zinen izanarak begitarte xoragarri bat gordetzen zaukun. Adixkidantza galdegiten dautzut.

Kondesak. - Zurearen galdegitera nindoazun, Anderea, herri huntan betiereko gerizarekin.

Loredik. – Adixkide maitea, atsegin handiagorik ezin egin dezakuzu; eta lañotasunak ene anaia hortaz argi emaitera haizu usten balu, nik bezainbat bozkario erakuts lezakeela uste dut.

Parmenezek. – Emeki, arreba.

Kondesak. – Ez, Printzea, zure bozkarioa ager daiteke; atsekabetuko duelako irriskurik eztuke.

Bladik. – He! mekatxes, karia hortan, ezta horrela ihardetsi behar; hari dago bere burgoikeriaren hezte, 'ta ez zuri. Hemen gizonak dira faxoin egileak, ez emazteak. Ekharrazu zure maitasuna, zer eginen duen berak ikusiko du.

Kondesak. – Nola! eztut hartzen.

Elhorriñok. – Anderea, hori ezkuz aldatu baita. Gure erresuman gu gira setiatzen; hemen guk dugu setiatzen, haien gaztelua azkarkiago zaindua delakotz.

Bladik. – Gizona, hemen, emaztearen gerizagailua da.

Kondesak. – Ohidura horren erabiltzea ontsa berri zata; baina ene bizian gogoan ukana dut aldi bat baino gehiagotan, gizonak ikusi ditutanean emazteren ahuleziaz espantu egiten.

Loredik. – Horrela, adixkide maitea, ene anaia maite baldin baduzu, etzazula hari mintzatzeko fazoinik egin.

Elhorriñok. – Ba, ba, ezin zuzenago da hori.

Kondesak. – Eragozpen apur bat emaiten dauta horrek.

Elhorriñok. – Guardi emazu; faxoinxka horiekin ni berriz erortzer niz.

Kondesak. – Nahiko duzuen bezala.

Loredik. – Anaia, gure ohidurez jakina da Anderea, eta segeretu bat badu zuri erraiteko. Atzerritarra dela orhoit zaite, eta bertze batek baino ikustate gehiago merezi duela. Nik, ezpaitut ehoren segereturik jakin nahi, uzten zaituztet.

Bladik. – Ixil nago ere, ni.

Elhorriñok. – Eta ni ere, banoa.

Bladik. – Zure arestiko ar xipia ontsa aitzinatia denez ikustera gazen.

Loredik, *Kondesari*. – Biziki opatzen dut. Goraintzi, koinata maitea.

AGERRALDI VIII

KONDESA, PARMENEZ

Parmenezek. – Xoratua niz, Anderea, ene arrebak emaiten dauzkitzun izen goxagarriez, eta zuen bien artean hoin ontsa hasten ari den adixkidantzaz.

Kondesak. – Hura baino maitagarriagorik eztut jeus ikusi eta... familia guzia bere idurikoa du.

Parmenezek. – Sendimendu hortaz eskertzen zitugu; baina baduzu, diotenaz, segetu bat eni erraiteko.

Kondesak, *hasperen batean*. – He! ba.

Parmenezek. – Zertaz da, Anderea? Egin nezazukeen zerbitzu batez ote lizateke? Zuri baliagarri izaitera lehiatzen ezten ehor ezta hemen.

Kondesak. – Ontsa ona zira.

Parmenezek. – Mintza zaite garbiki, Anderea.

Kondesak. – Ene herriko legeak zurekoetarik ontsa ezperdinak dira.

Parmenezek. – Gureak hauteskarriagoak iduritzen zazkiketzu?

Kondesak. – Duten zuhurtziaz hartua niz; baina...

Parmenezek. – Zer! Anderea? burura ezazu.

Kondesak. – Neurer jarria nintzan, eta ohidura gaitzak nekez dira galtzen.

Parmenezek. – Arrazoinak kondenatzen dituen orduko, eztaitezke aski goizik utz.

Kondesak. – Hori egia da, eta nehork enindezake uztera ekhar zuk baino lasterrago.

Parmenezek. – Dakusagun, laguntzen ahal zituta? Oraino gelditzen zaitzun neke hortako ahal bezainbat zurekin niz.

Kondesak. – Ontsa izendatzen duzu; nekea da zinez. Baina, Printze, ezer eztuzua gogoan, zuhaurek?

Parmenezek. – Hemen guk, gizonek, eztugu gogoan zer dugun erraiten.

Kondesak. – Gogoari emazu bizkitartean atzerritarra nizala, errana dautzuten bezala. Gauza batzu badira hetan ezpainiz oraino ontsa azkartua izaiten ahal.

Parmenezek. – He! zein dira? Ematazu bakarrik hetaz ideia bat: zer den jakiten lagun nezazu.

Kondesak. – Norbaiten ganako ixuri bat baldin banu, behazunez?

Parmenezek. – He bada! ezta hori debekatua: maitasuna sendimendu naturazko eta beharrezko bat da; etzazko dituen bixitasunak baizik arautu behar.

Kondesak. – Baina sendimendu hori, haren aldera nukeenari aithortu behar naukokeela errana dautate.

Parmenezek. – Ezkira bertzela bizi hemen; jarraikazu, Anderea. Norbaiten ganako ixuririk baduzua?

Kondesak. - Ba, Printzea.

Parmenezek. – Sendigaitz izanen etzakolako itxura guzia bada.

Kondesak. – Hitzemaiten dautazua?

Parmenezek. – Eztaiteke norberaz baizik berme izan.

Kondesak. – Ontsa badakit.

Parmenezek. – Eta zure ixuria noren aldera duzun jakin gabea niz.

Kondesak. – Eztela bertze baten alderakoa ontsa badakusazu. Ha!

Parmenezek. – Gorritzetik galdi zaite, Anderea; maite nuzu eta maite zitut. Ene aithorraren zintzoak zureak emana dautzun nekea ezezta dezala.

Kondesak. – Maitagarria bezain bihotz onekoa zira.

Parmenezek. – Eta zu, hartako gai ziren bezainbat maitatua. Zure sendimenduak ene aitari erranen daukozunean eginen daukozun atseginaz aitzinetik segurtatzen zitut. Ezer etzauko zure izanara, eta hemen egoiteaz horren iraupena baino balio handiagokoa izanen. Eztut gehiago hitz bat baizik zuri erraiteko, Anderea. Zuk eta zure lagunek “Printzea” deitzen nauzue, eta hitz horrek zer erran nahi duen argi-arazi dut; etzazula gehiago erabil. Eztugu lerro-izen hori hemen ezagutzen; ene izena Parmenez da, eta eztautate bertzerik emaiten. Neke ainitz bada urgulua gudukatuz haren suntsitzeko. Balaka baladi, zer bilaka laiteke? Gaitz guzien ithurburua lizateke. Manatzeko ezarriak direnak hortarik zeruak begira ditzala oroz gainetik,

bertzek baino bertute gehiago behar dutenak, haien gaitzen kontrako zuzenbiderik eztelakotz!

AGERRALDI IX

PARMENEZ, KONDESA, FONTIÑAK

Fontiñakek. – Ha! Anderea, berrezagutzen zitut, ene begiek berriz aurkitzen dute munduan zen jende xoragarriena! Huna arrazoina eta edertasuna elgarrekin ikusi ditutan ene biziko lehen aldia. Onhar ezazu, Jauna, Anderea ereman dezatan; hunen anaiaren izpirituak desobedienta egiten du, bihurtzen da; erotasuna zaila du, eta gudaritalde lagun beharrea niz.

Parmenezek. – Zoaz, Anderea, ezer etzazula gupidets hortik haren atheratzeko.

Fontiñakek. – Lana izanen da harekin; gortelari goiarin bat baita.

EGITALDI III

AGERRALDI LEHENA

KONDESA, LOREDI, GORTELARIA, FONTIÑAK, ELHORRIÑO, BLADI

Kondesak, *gortelariari*. – Ba, anaia, gogoia joiten dautzuten behazuner amor emeezu; aitzinean ginuen izanaran berriz jarriak ikusten gituzu; horrek eztautzua sinets-arazi behar? Ni mintzo nizaizuna, ikusazu orai zer nizan; zure arreba ezagutzen duzua bere erokeriez egina duen aithormen zintzoan? Kuraia horren ukaiteko gai nintzala sinetsiko zinuena? Horren estimatzea zuhauri debeka dezokezua, eta eztautzua zuhaurek gutiziatzen?

Bladik. – He! mekatxez! gure miresteko aski da begien idekitzea, 'ta gainera horra Gobernariaren alaba bera den Andereñoa, 'ta berriz zuhaur bilaka ziten baizik igurikatzen ezteua zure begi ederrez zurekin solastatzeko; entzuteko ontsa goxagarri izanen zaizuna.

Loredik. – Ba; ematazu izanen zirela azmatzen dutan bezala zure ikusteko bozkarioa. Zuretako gai ezten izanara hortarik jalgi zaite, hortan ehortzia bezala baitzira.

Fontiñakek. – Zuharen barne-barnean igurikatzen zituen atsegina bazinaki!

Bladik. – Horra gure medikua sendaturik; hortako jende guzia besarkatzen du; hain da bozkariatua, nun ibiltzale bat ithotzer baitu. Noiz ithoko gituzu bada gu ere? Hisiturik ezta orai zu baizik, bertsu egile horrekin, berriz erori baita, eta filosofo lorioxka hori, ontzeko zozoegia baita, eta phegar batek bezala arrazoinkatzen baitu.

Kondesak. – Goazen, anaia, ez gehiago zalantzan egon, othoi-othoiez nagozu.

Elhorriñok. – Hortara jin behar da, Jauna. Bertzela egiteko biderik ezta.

Gortelariak. – Zer izanara!

Bladik. – Hortan zer egin? Zure arrebak ontsa jasan ahal duela egin daukotan laidoa gogoratzen zatanean; horra bera erraiteko; hea thirabirakatu dutanez galdegikozu, eta bere izpiritu gaixoan jasan duen guzia, eta hetaz erasiatu dutan zozokeriak; inharrosaldia galdegikozu.

Loredik. – He bada! hortan sinetsiko gituzua?

Gortelariak. – Ha! Anderea, zer gertaldia! Fagorez galdegiten dautzut ephe batez utz nezazun Fontiñakekin.

Kondesak. – Ba, anaia, utziko zitugu; baina, gure aidixkidantzaren gatik, ez gehiago iharduk.

Fontiñakek, *Bladiri, berex.* – Bladi, etzaitela urrun, eni eskukhaldi baten emaitako, horren beharretan baniz.

Bladik. – Ez, ingurune huntan ibiliko niz.

AGERRALDI II

GORTELARIA, FONTIÑAK

Gortelariak. – Aithortzen deat, Fontiñak, khordokatu sendi nukala.

Fontiñakek. – Sinesten dut: arrazoina eta zu, funtsean, etzirezte elgar ez entzuteaz baizik gaitzitu.

Gortelariak. – Ene arrebak erraiten dituen erokeriak oro baieztatu dituela egia dea?

Fontiñakek. – Ixtorioak dio ezin hobeki aithortuak dituela, zinez.

Gortelariak. – Hark hain loriosa zenak, nola jasan ahal du nahasmendu hori?

Fontiñakek. – Badiote alabaina haren arimak lehenik lan zuela. Oihu ainitz: Zertan niz? Gorritzea zen. Nigar batzu jin dira, etsipen apur bat, guziaren gainetik haserre ttipi batzu. Egoitza hantukeriak zaintzen zuen; baina azkenean arrazoinak hain hurbildik hertsatu du, nun, erraiten den bezala, leihoetarik egotzi baitu, eta zurea jadanik jauzia bezala ikusten dut.

Gortelariak. – Baina erratak zer onhar dezatan nahi dukan; hortan baituk ene eragozpena.

Fontiñakek. – Desenkusak egiten dauzkitzut, hornitua zira; ezta zure eragozpena gaiaren nasaitasunetik baizik jiten ahal.

Gortelariak. – Nik eztut ahulezia horietarik neure baitan ezagutzen, hetaz gorritzen ahal den bitxikeriarik; eztut batere ezagutzen.

Fontiñakek. – He bada! ezagutzeko lekuan ezarriko zitut!

Gortelariak. – Irriz ari zira, iduriz, Fontiñak?

Fontiñakek. - Ni irriz, ari nizan ofizioan, itsu baten sendatzeaz ari denean! Eztuzula uste.

Gortelariak. – Nun da bada itsu hori?

Fontiñakek. – Jauna, labur dezagun; bizia laburra da; egitekoez mintza gaiten.

Gortelariak. – Ha! khexatzen nauk. Zer erranen dautak? Khitzikak eztitiat maite.

Fontiñakek. – Gauzan berean hatzemaiten zitut. Orai ttipikeria batekin hasten zira. Zutaz untzi betegi haietaz bezala da; eztaitezke higi darioten gabe.

Gortelariak. – Hasten nizan ttipikeria hori zer den erran nahi zinautakea bada?

Fontiñakek. – Ikher zaitzatan duzun beldurra da. Ehoiz eztuzua haurrik ikusi bere amañoaren besoetan? Badazaguzua kuxkulak inharrosten dauzkon jostagailua ñiñiaren bozkariatzeko kantuñoarekin? Zenbat egite duzien ñiñi horrekin, ziek jaun handiek! Hurbiltzen zaizkitzuner so egiezu, guziek jostagailua eskuan dute; kuxkulak jo behar du, eta kantuñoak egin. So egiten dautazu? Zer duzu gogoan?

Gortelariak. – Nori mintzo ziren osoki ahazten duzula.

Fontiñakek. – He! diubiban, lephaitzinekoa utzazu; higundua izan zaiten ordu da bada.

Gortelariak. – Horra ezagutzen eztutan frikun bat. Nun duk bada zor dautakan errespetua?

Fontiñakek. – Galdatzen duzun errespetua, badakizu! kuxkularen inharrostea da; baina jostagailua galdu dut.

Gortelariak. – Ezteusa!

Fontiñakek. – Ez gehiago barkatzerik, zandiz. Gizon batek besoa atheraia duelarik, eztea berriz lekuan ezarri behar? Oinazerik gabe egiten dea hori? eta eztea gero bere bidean ibiltzen? Etzaizu zuri besoa, burua zaizu lekuratu behar! gortelari burua, diubiban, edozein beso izan daitekeen bezainbat bere moldean atheraia duzula garantitzen baitautzut. Oihu eginen duzu: baina maite zitut, eta gor eta elkor nizala jakin-arazten dautzut.

Gortelariak. – Ene haserrea sinesten banu...

Fontiñakek. – He! diubiban, hortaz zer egin zinezake?
Orai eltzoa indar berdinez guduka laiteke zurekin.

Gortelariak. – Zoaz hemendik, ziren ausarta, zoaz.

Fontiñakek. – Gaiari lot gaiten bederen.

Gortelariak. – Utz nezazu, diotzut; ene zorigaitz handiena hemen zure ikustea da.

AGERRALDI III

GORTELARIA, FONTIÑAK, BLADI

Bladik. – Zer harramantza dut hor entzuten? Iduri du pimpirina bat burumbaka. Zerk zitu bada khexatzen?

Gortelariak. – Ikusten dukan frikun horrek dautak munduan den ladagarrien guzia erran.

Fontiñak eta Bladi elgarri kheinuka ari dira.

Bladik. – Nork, horrek?

Fontiñakek. – Ondikotz! nagusi Bladi, nuen xedea badakizu. Jaunak uste ukan du sistatua nuela, enintzalarik oraino eztenaren hurbiltzen baizik ari ezagutzen daukozun odol gaixtoaren ekhentzeko.

Bladik. – Malestruk bat baitzira; besoa gibelatuz ontsa egin du.

Gortelariak. – Ozar horren ikusteak sumintzen nau.

Bladik. – Aljinkua! eta ni ere. Ontsa horri dago horrelako gixako baten khexatzea, gizon phuxkaño bat baizik eztelakotz! He bada! zer da? Arrazoinaren bidez, haundi bilakatuko da.

Gortelariak. - He! hitzemaiten dauiat eztautala arrazoinak huts egiten.

Bladik. - He! mekatxes, huts egiten balautzu ere, bi-biendako badut, nik; etzitela eragozpenean egon.

Gortelariak. – Dena den, ene alderdia hartu nahi ukaitez eskertzen haut.

Bladik. – Oizu, eskertzen nau, dio. Hoin zuzenik jeus badea? Ezta jadanik hain lorios, han so egiten ere etzautan untzi hartan bezala. Mekatxes! hori bihotzera doat: hea, belhauriko eman orai berean huni barkamendu galdegiteko, eta ontsa behera apha! hunen heinean izaiteko.

Gortelariak. – Hurbil eztakidiatala.

Bladik, *Fontiñaki*. – Baina, zorigaitzekoa, zer errana daukozu bada hoin aiherkari bilaka-arazteko?

Fontiñakek. – Astia eztauta utzi, diotzut. Ethorri zirenean, enuen hunkitzen hasia baizik: prestatzen ari nuen.

Bladik, *gortelariari*. – Hori behar dut nihaurek akomeatu; baina zure bizia ezpaitakit, galdekatzen dut bakar-bakarrrik kopia baten ukaiteko. Onhartzen duzu? Hori guzia biziki eztiki erabiliko dut, nahasmenik batere ekharria izan etzaizun. Goazen, Fontiñakeko Jauna, hunen ixtorioan zozokeriarik baldin bada, ontza oneski erran daitela. Zertan zinen?

Gortelariak. – Gehiago mintza dadin enezake jasan.

Bladik. – Eztut erran nahi zuri mintza dadin, ezpaita hortako gai; eni zata mintzatuko bazterka.

Fontiñakek. – Jaunaren diru maileguetara heltzen ari nintzan.

Gortelariak. – Eta zer egiten dauie ene maileguez, errak?

Bladik, *gortelariari*. – Ez entzunarena egizu bada. (*Fontiñaki*.) Maileguez ari zira: zer egiten du horrek, itzultzen den ber?

Fontiñakek. – Badateke; baina bere zorren ordaintzeko esku-zabalegia zen.

Bladik. – Oizu, jendeak esku-zabal izaitez erasiatzen dituen xoriburu hau! (*Gortelariari*.) Bizkitartean esku-zabaltasun mota hori eztut ontsa entzuten; itxura apur bat frikuna du.

Gortelariak. – Zer erran nahi duen eztakit.

Fontiñakek. – Argitzen dut: Jaunak bihotza handia baitzuen.

Bladik. – Bihotza handia! Guzia bazadukana, urkoaren ona 'ta berea?

Fontiñakek. – Zuzen-zuzena. Arima handiek guzia emaiten dute, eta jeus ez itzultzen, hunenaren nobleziak zuzenbidea ithotzen zuen.

Bladik, *gortelariari*. – He! nahiago nuke zuzenbideak zezan ithoa ukan noblezia.

Fontiñakek. – Are gehiago nun noblezia horrek egiten baitu hartzedunen mahia eremaiten dela, bereak duen osparen begiratzeko.

Bladik, *gortelariari*. – Zer ote da ospe iresle hori? aintzira batean ugotsoaren itxura du. Etzira hoin gaixtoki ezin asean izan, behar bada?

Gortelariak, *trixteki*. – Behargabe horren baztertzeko ahal dutan guzia egin dut.

Bladik. – Hem! Arrain zenbait klikatua ukanen duzula ikusiko duzu.

Fontiñakek. – Han ikusi bazinu jende guziaren lausengatzen, eta komplimentu erasten, ororen hitzemaiten eta jeusen ez atxikitzen!

Gortelariak. – Erraiten duen guzia entzuten dut.

Bladik. – Goregi mintzo baita. Ahapetik erraiten dauta alegia lausenguz ari zinela; baina entzuten duzula eztaki.

Fontiñakek. – Begitartean gezurrik baizik eztuten jende horietaz zer diozu?

Bladik, *gortelariari*. – Mekatxes! othoi, etzazula horrela gezur-hitzik aurpegian ekhar.

Fontiñakek. – Begiek mundu guziari “Maite zitut” erraiteko moldea hartua duten jende batzu!

Bladik, *gortelariari*. – Egia dea hori zure begiak garbi eztenetik saltzera moldatuak direla?

Fontiñakek. – Jende batzu, azkenean, menpekoa besarkatzen duten batean, eztutenak bakarrik ikusten. Mekanikazko phereku batzu dira, erresortekilako beso batzu bere baitarik zure gana heldu zazkitzunak zer ari diren jakin gabe.

Bladik, *gortelariari*. – Ha! horrek khexatzen nau. Badio zure besoek badutela erresorta bat harekin jendeak nahi gabetarik besarkatzen baitituzte. Hauts ezatazu erresorta hori; muntatua den gerren-itzultzale bat erran laiteke.

Fontiñakek. – Ahotik erortzen zezteen alhe batzu dira; lelo batzu, hetaz alta menpekoak espantu egiten baitu, eta ohian baino zozoago bilakatzeko atsegina emaiten baitauko.

Bladik. – Horra jende zozuak, zozo horiek. Zer diozu? Arrazoin duia?

Gortelariak. – Zer nahi duk ihardets dezotan, ene lerroko gizon batendako errespetu guzia galdua duenaz geroz?

Bladik. – Mekatxes! Fontiñakeko Jauna, lerroaz etzitela trufa!

Fontiñakek. – Eniz gizonaz baizik mintzo, eta ez lerroaz.

Bladik. – Ha! zuzen da hori, eta ezperdintasunaz askietsia izan behar duzu; ezen horra, behazunez, janariez zamatia den abere bat: he bada! janariak onak dira, hetaz gaitz erraiteaz ontsa gaitzitia ninzate; baina deramatzan hortaz abere bat dela erraitea ezta gaizki erraitea, eztea hala?

Fontiñakek. – Jaunak onhartzen balu, bere heinekoendako duen adixkidantzako ixtorioaz burura nezake.

Bladik, *gortelariari*. – Adixkidantza? Baietz, libertate hori emozu, horrek phizkortuko zitu.

Fontiñakek. – Egun batez Jaun horietarik batekin zinauden. Biak elgarri gaixtakerian entzuten zintuztetan. Elgarren aldera adixkidantzazko zuen hitzak baino jeus amultsuagorik. Gogoan zuen elhen atxikitza entsegatu nintzan, eta zatiño baten itzulpena egin nuen. “Zandiz! zinion hari, gortean eztut ehor zu bezainbat estimatzen; hortan berme nago, orotan

erraiten erraiten dut, jakin behar duzu; diubiban, ohorea maite dut, eta zuk baduzu.” Huna hitzaldi horren itzulpena: “Ene fortunaren burkide madarikatua, ezagutzen haut, deus eztuk balio; gal nidezakek galtzen ahal baninduk, eta berdin eginen nuela gogutzen duk. Ehiz hutsean; baina sinets etzakala, ahal bada. Utz hadi ene hitzetan enganatzera. Sinets dezazkan batzuen aurkitzeko lanean ari nuk, eta hireak sinetsi ditiatala erakusten diat. Hea, zozoa nizala uste ukaitera entsea hadi, heure aldian hala bilakatzeko; eskua ematak, eneak tinka dezan. Ha! zandiz, zein maite hautan! So egiok ene begitarteari eta hartaz aphaintzen diatan xamurtasun guziari. Maite hautala uste ukan ezak, nitaz ez gehiago beldur izaiteko. Othoi, zimarkun madarikatua, sineskeria apur bat ene maskaradarentzat. Lokharraraz hezatan onhar ezak, errexkiago itho hezatan.”

Bladik. – Etzuen beraz horrek guziak ganibet ukhaldi bat baizik erran nahi? Bihotza ontsa traditzalea duzie beraz, ziek!

Gortelariak. – Egun nitaz gaizki mintzo da; lehen ene laudorioa egiten zuen.

Fontiñakek. – Ha! nintzan zimarkuna, Jauna! nigar egin dut laudorio horietaz, nigar egin: frikunak laudatzen zintuen, eta etzintuen hortako gehiago estimatzen.

Bladik. – Egia da hori; enuxent bat bezala hatzemaiten zintuela errana dauta.

Fontiñakek. – Leriitzen zintutan, diotzut. Enganamenduez gosetua ikusten zintutan, mundu guziari eskatzen zinauzkon: emazkitazu, emazkitazu. Emaiten nauzkitzun, hetaz hantzen zintutan, banuen ahala: alegiak gaiez hornitzen ninduen, eskasean ez izaiteko bidea zen.

Gortelariak. – Ha! zer dut entzun!

Fontiñakek, *Bladiri*. – Hartzen ari duen eragozpen hori zuhurtziaren aitzin-mezua lizatekea?

Bladik. – Hori jakin behar da. (*Gortelariari*.) Nahi duzua orai barkamendu galdegin dezatzun? Aski azkar zirea hortako?

Gortelariak. – Ez, ezta gehiago behar. Eztut ogendun hatzemaiten.

Bladik. – Zin-zinez? (*Fontiñaki.*) Ixo! hitzik ez erran; behazu hunen kaizuari, badoa lauhazka! Ha! oraino pixkaño bat; kuraia! Gortelari horiek ontzeko zenbat neke duten! Ontsa! horra heldua: horra heinean.

Bere buruarekin izartzen du.

Gortelariak, *ametsetan egonik, eskua bier emaiten dane.* – Fontiñak, eta hi, Bladi adixkidea, biak eskertzen zituztet.

Bladik. – Ho! Ho! gordeka ontzen ari zinen beraz? Mekatxes! urrundik itzultzen zira!

Fontiñakek. – Zandiz, hortaz dena gogo-erautzia niz; utzi behar zituztet, berriaren ekhartzeko Gobernariaren alabari.

Bladik, *Fontiñaki.* – Ontsa errana da, laster egizu. (*Gortelariari.*) Ero batek bezala maitatuko zitu.

AGERRALDI IV

GORTELARIA, BLADI, BELEKTURU, POETA, FILOSOFOA

Belekturuk. – Geldi hadi! geldi!

Gortelarik hartzen du filosofoa eta Bladik poeta.

Bladik. – Nundik bada harramantza hori?

Belekturuk. – Egiazko urrikia merezi duen gauza da. Jainkoak bi izaite xipi horien ontsa etsaiak izan behar dira; ezpaitute horiendako jeus egin nahi.

Gortelariak, *filosofoari.* – Nola! zu, Jaun filosofoa, zu, arrazoindun bilakatzeko gu baino ahalgabeago, gorteko gizon batek, behar bada gizon guzietan lilluraz eta erokeriaz joenak, arrazoina berraurkitzen duenean? Filosofo bat gortelari bat baino galduago! Jende handienekin ibiltzean baino gaitz gehiago biltzen den jakitate bat zer ote da bada?

Filosofoak. – Jauna, gortelari batek hortaz zenbat estimu ukan dezakeen badakit: baina ezkira hortaz ari. Hetan nitaz trufatzen den bertsu batzuen egiteko ausartzia duen ozar hortaz ari gira.

Belekturuk. – Horiek bertsuak deitzen baldin badituzu, gu guzien kontra ere eginak ditu eskaldi moldean, Gobernariari bidaltzen zauzkonak, bere libertatea galdatuz; eta hor nihaur ere ezin hobeki antolatua nintzan.

Bladik. – Bertsularixka txar ezteusa! Bertsu egile xirtxila! baina, mekatxes! zer egina nautzun erasiatzen gituden eskaldi batean gure ezartzeko?

Poetak. – Nik, eztautzu et gaitzik nahi.

Gortelariak. – Zergatik egiten daukuzu beraz?

Poetak. – Ez batere; jiten zaizkun eta goxagarriak diren ideia batzu dira; horrek jalgi behar du, bera egiten da. Eztut horien izkiribatzea baizik egiten, eta Gobernaria jostatuko zuten; apur bat zuen kaltetan, egia da: baina horrek dauko gatz guzia emaiten; eta Filosofoaren kontra hitz apur bat maltzur zenbait ezarri dutalaketz, horrek haserrean ezarri du. Nahi duzua zati zenbait irakur dezatzutan? Ontsa jinak dira.

Filosofoak. – Poeta ausarta!

Poetak, *gortelariaren eskuetan zalapartaka*. – Ene epigramak ona izan behar du, hau ontsa xixtatua denaz geroz.

Gortelariak. – Izanara hortan bertsu egitea! ezin asmatua da.

Bladik. – Izpiritu errabiatu mota bat izan behar du.

Gortelariak. – Uzten badira joka hasiko dira.

Belekturuk. – Egia! joka ari zirelarik ethorria niz; hatzeman nahi ukan ditut, eta ihes egin dute: baina elgarretarik berexiko ditut eta betiketoz atxikiko dituen norbaiten eskuetan berriz ezarriko. Horiendako egin daitekeen guzia, jatera emaita da, gizon batzu direnaz geroz; ezen ithotzea ezta haizu. Emazkitazu, bertze bati gomenda ditzazkotan.

Filosofoak. – Zer erran nahi du horrek? Gu hetsirik ezarri! eztut nahi.

Bladik. – Oizu, eztea hori gizon bat ontsa orraztatua “nahi dut” erraiteko!

Filosofoak. – Ha! mintzo hiz hi, bilauna. Nola sendatu hiz?

Bladik.- Zuhur bilakatuz. (*Bertzzer.*) Utz gitzazue apur bat mintzatzera.

Filosofoak. – Eta zer da zuhurtzia hori?

Bladik. – Hori da ez ero izaitea.

Filosofoak. – Baina eniz eroa, ni; eta eniz bizkitartean sendatzen.

Poetak. – Ez sendatuko ere.

Bladik, *poetari.* – Ixil zite, suge txarra. (*Filosofoari.*) Badiozu etzirela eroa, ameslari gaizoa: hala etzirenez zer dakizu? Gizon bat ero delarik, hortaz zerbait badakia?

Belekturuk. - Biziki ontsa.

Filosofoak. – Biziki gaizki; ezen bilaun hau ere eroa da beraz.

Bladik. – Eta zergatik hori?

Filosofoak. – Hala hizala ezpaituk uste.

Bladik. – He bada! mekatxes, horra ni hatzemaña; hori hain ontsa petatzatu du nun jeus ezpaitakit gehiago; andea nezan beldur niz.

Filosofoak. – Sinets nezak, ehaizala horrekin josta. Jende mota horiek lanjerosak dituk.

Bladik. – Izurritea baino gaiztoago. Burumuna merkatari hau eremazie hemendik eta Erotegietan sar edo Ezinsendatuetan.

Filosofoak. - Nola, bortxatuko naute?

Belekturuk. – Goazen, bi-biak jarraik zaizkitate.

Poetak. – Poeta bat Erotegietan!

Bladik. – He! alajinkua, zure etxera eremaitea da.

Belekturuk. – Ez gehiago arrazoinka, eni jarraiki behar zata.

Bladik. – Urriki emaiten dauta. (*Gortelariari, berex.*)
Zaude serioski, ikusten baitut hemengo andereñoa zuri beha.
Orhoit zite zure loriaz, eta ontsa bermuki maita ezazu.

AGERRALDI V

LOREDI, GORTELARIA, BLADI

Loredik. – Azkenean, zeruak ene agiantzak entzun ditu beraz.

Gortelariak. – Ikusten duzu, Anderea.

Bladik. – Ha! ikusteko eder zen.

Loredik. – Molde hortan zein maitagarri ziren!

Gortelariak. – Arrazoinduna niz, eta ontasun horrek baliorik eztu; baina, horren ondotik, jeusek enau, gertatu zautanean, zuri ene bihotzaren eskaintzeko atseginak baino gehiago bozkariatzen.

Bladik. – Ha! hortan gira, emaitera doan bere bihotzarekin... Apur bat erakatsakozu bortitz izaiteko duen eginbidea.

Gortelariak. – Zertaz irri dagik bada?

Bladik. – Jeusez, jeusez; abisua ukanen duzu. Mintza zite, Anderea; hemen gelditzen niz nola eginen den ikusteko.

Loredik. – Zure bihotza ezkaintzen dautazu, eta zuri enearen eskaintzea eni dago.

Gortelariak. – Orhoit niz alabaina arreba molde hortara mintzatzen entzuna ukanik. Baina egiazki, Anderea, hortan zuen leger jarraikitzeaz ontsa ahalge ninzateke: eginak izan direnean, etzinen hor; ikusi baldin bazintuzte, aldatuko zituzten.

Bladik. – Tarratata! Hori bezalako mila ikusirik ere, jeus etzuen horrek eginen. Bertze hebaindura mota hortaz senda zite.

Loredik. – Othoizten zitut, zuretako sendi dutan xamurtasun guziaz, eztezatazun gehiago holako solasik egin.

Bladik. – Horrek sobera aphaltzen zitu: hemen indarra ni niz, eta horra ahulezia.

Loredik. – Gizona zirela orhoit zaite, eta ezer elizatekeela zure oldetara zure buruaren uzte hoin bapatekoa baino behar ez bezalakoagorik. Eztu behar zure bihotzak eman; ustegabetarik hatzemaña izaitera utz dadin aski da bada. Nihauren kontrako erakaspena emaiten dautzut; eni ihardukitzen ikas-arazten, baina aldi berean ene amodioaren eta estimuaren merezitzen. Utz ezatazu bada zure garhaitzeko ohorea; zure maitasuna izan dadila enearen saria, eta ez zure ahuleziaren emaitza huts bat: zure bihotza etzazula apha amor emaiteko lukeen ezin egonaz; eta, izan behar duzunaren ideiarekin bururatzeko, ahatz etzazula gu biak elgar maitatuz, bilakatzen zirela, ahal bada, nihaur ere baino gehiago ene bertutearen berme.

Bladik.- Alajinkua! Horra emaztea ontsa ezagutzen duten legeak, berak ezpaitira batere orrtan fidatzen.

Gortelariak. – Laket zaizunari amor eman behar zako beraz, Anderea?

Loredik. – Ba, maita zitzatan nahi baduzu.

Gortelariak, *oldez* – Nahi dutanez, Anderea! Ene zoriona...

Loredik. – Geldi, othoi, gutiets zindezaketala senditzen dut.

Bladik. – Polliki, polliki; zure maitasuna bi eskuez atxikazu: eskorga bat bezala bazoaz.

Loredik. – Zure uztera bortxatuko nauzu.

Gortelariak. – Ontsa gaitzitua ninzateke.

Bladik. – Zergatik eztuzu ori ontsa goxo izanen zizazula erriten?

Gortelariak.- Horrela mintzatzen enakike.

Loredik. – Zure buruaren garhaitzen etzinakike beraz? Goraintzi, uzten zitut; ene sendimendua elizateke gehiago arrazoinduna.

Bladik. – Eztea hor oraino erortzera doan goratasun bat?

Gortelariak, *badoan Lorediri*. – Anderea, entzun nezazu: nahiz bazoazen, etzitutala geldi-arazten badakusazu bada; eta segurki, ene ezazoltasunaz askietsia izan behar duzula iduritzen zait. Osoki joaiten bazine ere, berriz ez zure deitzeko kuraia banuke.

Loredik. – Ezazoltasun horrek enau batere nardatzen; baina eztut nahi oraikotz akhitu, eta banoa.

AGERRALDI VI

GORTELARIA, BLADI

Gortelariak, *hasperenka*. – Haal

Bladik. – Higi etzitela; zure giza-heina begirazu; bertzela ere, soinekotik atxikitzen zitut.

Gortelariak. – Baina, Bladi adixkidea, joana da bizkitartean.

Bladik. – Doala; itzultzeko joaiteko bezain zango onak baditu.

Gortelariak. – Zenbat maite dutan baldin bahaki.

Bladik. – Ha! eni horren erraitea haizu uzten dautzut, eta gordeka haren maitzatzean ezta gaitzik; zuzen da hori, eta ere badiote hemen gehiago dela erran gabe maitatzen, 'ta are ederrago dela; oinaze ainitz ukaiten baita, eta oinaze hori da guretako gai dena, diotenaz. Gure herrian emazte onek eztute bertzerik egiten. Eztuta maitale bat ere, nik? nexka bat pollita, ikustateak eman ez eta hain goxoak diren hitzño batzuekin ene ondolik dabilana? Baina, mekatxes, ixilik nago. Nola gaizkitzen dautzutan ikusi behar da. Ene irabazteko konsolamendua eztu

sarri baizik ukanen. Mekatxes! oizu, ene gana heldu ikusten dut. Orai berean behazun on baten emaitera noazu. Hartaz xoratua niz alta. Bizkitartean, nola deramatan behazu huni. Ene eginara nolakoa den ikusazu. Eman zite hor, hitzik erran gabe.

AGERRALDI VII

GORTELARIA, BLADI, FONTIÑAK, IRLATARSA

Fontiñakek, *gortelariari*. – Onhar ezazu, Jauna, Bladiri mintza nindakidion, eta gaia hau duen (*Irlatarsa erakutsiz*.) galde bat aitzinera dezotan.

Bladik. – Ha! ha! Fontiñakeko Jauna, biligarro on bat zira, nahi nauzu xixaririk gabe amuan hatzeman. Hea bada! zure galdearen gaia, xedea zertara duen!

Fontiñakek. – Lehenik zure bihotzera, gero zure eskura.

Irlatarsak. – Horra zer den.

Baldik. - Aldi bakar ontsa gotor ephaitea da. Horra egiteko ainitz. Gizon baten bihotzaz emazte baten hartaz bezala egiten dea? bertze zeremoniarik behar da.

Fontiñakek. – Zure baimenaz berme izana niz alta.

Irlatarsak (*Bladiri*). – Fontiñaken aldera duzun adixkidantza khonduan artu dut.

Bladik. – Ba; bana zure khondua ezta enea: badut bertze arimetika bat.

Fontiñakek. – Hortan iharduk etzazula. Zure xumetasunak irabaztea onhar dezan ordu da. Gustatzen zaizula badakit, nexka xamur eta xoragarri hau.

Bladik. – He! bana, zinez, ixil zite bada, ez hori gogoan ukan. Nun ezar eztakitan gorridura batzu heldu zazta.

Irlatarsak. – Ene xedea ezta zure penatzea: eta ordainik ukan etzinezakeela egia bada...

Bladik. – Eztut hori erraiten.

Fontiñakek. – Burura dezagun beraz. Hoinbertze mereximenduk hunki zitzala!

Bladik, *gortelariari*. – Ikusirik aski baduzua? Akhitzen hasia niz. Galdeari baia emanen dut.

Gortelariak. – Burura ezak.

Fontiñakek. – Bladi adixkidea, Jaunak sustatzen zituela entzuten dut.

Bladik, *irlatarsari*. – Mekatxes! ezta beraz bakerik; ontsa lehiatua zira, andereñoa!

Irlatarsak. – Eztea eztabadatzetik aski?

Bladik. – He bada! bihotz hau hartuz, hainbat nahi duzunaz geroz, ontsa egin duzu, zeren, debrientxo! batere ezpainautzun emanen.

Irlatarsak. – Horra ni zorionean.

Bladik, *Loredi ikusiz*. – Hobe. Baina hitzik ez gehiago; horra bertze maitale bat heldu. (*Gortelariari*.) Muttur on bat egikozu, eta behazatazu soinaren gainetik.

AGERRALDI VIII

GORTELARIA, BLADI, FONTIÑAK, IRLATARSA, LOREDI

Loredik. – Berriz heldu niz. Enintzan atheraia zure phorogatzeko baizik, eta phorogua eztuzu hobekiegi baizik jasan. Zure ezazlotasunak berak izitzen hasten nau.

Gortelariak so egiten dauko hitzik erran gabe.

Bladik, *Lorediri*. – Etzira oraino hain eri.

Loredik. – Ihardesteko fagorea egitazu.

Gortelariak. - Zure lotsen hausteko beldur ninzateke, batere ezpaititut hastio.

Bladik. – On da hori; oneski bururatzera doa.

Loredik. – Batere hastio eztituzun ene lotsak! Garbikiago argi ezazu.

Gortelariak so egiten dauko hitzik erran gabe.

Bladik. – Mekatxes! horra begi ontsa argiak!

Loredik. – Maite nauzula erraiten dautate.

Baldik. - Dakitena baitiote.

Fontiñakek. – Oiharzun batzu dira.

Loredik. – Aithortzen dituzua?

Gortelariak. – Ontsa ikusten duzu.

Bladik. - Langa ezarria da beraz?

Loredik. – Ba, egina da; horra aski; eta gaineratekoa neure gain hartzen dut aitaren ondoan.

Fontiñakek. – Etzira bila joanen, sartzen ari baita.

AGERRALDI IX

GOBERNARIA, PARMENEZ, LOREDI, IRLATARSA, GORTELARIA, KONDESA, FONTIÑAK, ELHORRIÑO, BLADI

Kondesak. – Ba, Jauna, zure ongi-eginak eremazkizu mukurrura: mila ikustate zor dauzkitzut; emeezu oraino gainera eni zure semearen emateko fagorea.

Gobernariak. – Ohore dagikozu, eta maite duzulakotz xoratua niz.

Kondesak. – Xamurki.

Bladik. – Gure herrian ontsa irri egin laiteke horren ikustean.

Gobernariak. – Baina deliberatzea zuri dago alta, ene semea; Anderea maite duzua?

Parmenezek, *abalgetuz*. – Ba, aita.

Loredik. – Fagore bera behar dut, aita, eta Albarez galdegiten dut.

Gobernariak. – Guzia onhartzen dut. (*Elborriño erakutsiz*.) Eta nextato pollit hau?

Bladik. – Hori ene gain hartzen dut. (*Fontiñaki.*)
Arestian galde bat egina dautazu, Fontiñak; gora-gora itzultzen dautzut gure adixkide Elhorriñoren alde. Hortaz zer diozu?

Fontiñakek. – Gapelepean gorritzen ari niz.

Bladik. – Erran nahi du: topa hor. Notaria nun da bada, ezkontza horien guziendako, eta kontratuaren izkiriatzeko?

Gobernariak. – Haien aitzinean ezkontzen denen hor izaitez bertzerik eztugu hemen. Arrazoina badenean, behar diren guziak eginak dira. Jainkoek bere fagoreak mukurru eman bezazkitzuet! Zuen lagunetan zenbait bere zorigaitzean ahitzen ari dira oraino; hortik haien atheratzeko deusen ez ahaztera sustatzen zituztet. Nork bere zorionaz egin dezakeen erabilpen hoberena, hartaz bertzeren abantailtan baliatzea da. Besta batzuek iragar dezatela orai arrazoindun bilakatuak zuen ikustez dugun bozkarioa.

LIBERTIMENDUA (*)

(*) "Libertimendu" hau guzia komediako jokariez kantatua zen, eta menuetetan dantzatua, bazuen ere beraz musika (*Itzultzailearen obarra*).

Bihotz gazteak, utz zaitezte maitasuneko jainkora,
Ahul izan gabe dezazkezue molda
Amodiozko sendimenduak.
Arrazoinak, lege zuhur eta begiratuak baititu,
Eztautzue maita dezazuen debekatu,
Baina zirezten maitatzen arinak.

MENUET I

Egoitza zori ondun huntan
Zer atsegina den ikustean
Arrazoinari Maitasuna gortean!
Zein xoragarri

Zaizkigun haren harmak guri!
 Gure nahi guziak,
 Gure hasperenak
 Ditu hark atseginak.

MENUET II

Ehoiz urrikiak eztauzku bihotzak nahasten,
 Irla xoragarri huntan gireno,
 Hemen gar garbi bateko
 Suak ditugu senditzen,
 Arrazoinak baititu gobernatzan
 Maitasunaren eskaintzak oro.

KANTALDI

1

Hik baitagik gotorraren,
 Dukan itxura burgoiak,
 Hir(e) espantuek, gastuak
 Jend(e) ez jakin bat die biltzen,
 Gaitzeko gizon, zigante hau itxuratzen.
 Hemen badoak handitasuna,
 Ikusten zaik xipi hizana,
 Ezteus(a), aphaltasuna;
 Arrazoinaren baitan ehiz hi
 Mutiko xipi,
 Ume 'ta ñiñi,
 Xinaurri bat baizi.

2

Hi filosofo ausarta,
 Beti trufatzen dukana
 Gizonen ahulezia,
 Izanaz hau gabe hiz hoilatzen:
 Munduan gizandi hizala duk sinesten.

Nahi gabe xipiena
 Jinik joaiten zaik kuraia,
 Akhitzen bermetasuna,
 Arrazoin hire horrekin ezpaihiz hi
 Mutil xipi-xipi,
 Umeki 'ta ñiñi,
 Xinaurri bat baizi.

3

Hilkor axolagabea,
 Beti hiz goratik erasian
 Haur xamurrak sendipenean
 Deragitzan gar eztien kontra;
 Ager dadila begi bat ederrik,
 Ezti biltzaleaz dauzkik
 Indarrak uzten ezindurik.
 Kupidonen guduan ezpaihiz hi
 Mutil xipi-xipi,
 Umeki 'ta ñiñi,
 Xinaurri bat baizi.

4

Ñaño bat aberats izanez,
 Nahiz itxuraz irigarri,
 Eta soinaraz trufagarri,
 Iduri du handi Plutuz-ez:
 Egina da gizandi bat urre 'ta zilharrez.
 Baina laguntzen ezpadute,
 Soinara den ederrak duke
 Frantzian kreditaren kalte;
 Ehon ezta, Plutuzek ezpadu nahi,
 Mutil xipi-xipi,
 Umeki 'ta ñiñ,
 Xinaurririk baizi.

5

Zeinbat huen iduri gartsu,

Senar, emaztearen hartzean!
 Hire gar soberkinaz solasean
 Noiz nahi huen mintzatu,
 Ezkont' aitzin zigante bat uste hintzan.
 Sei ilabetez ezkontzak
 Elhe hoin atrebituak
 Dauzkik ahatz-araziak.
 Ehiz orai, aho-handi,
 Mutil xipi-xipi,
 Umeki 'ta ñiñi,
 Xinaurri bat baizi.

6

(Laborari batek)

Etzen hainbat aspaldi
 Banindagola lilluran.
 Zin-zinez lertsun bat nintzan.
 Jaun gortelariak, ustez ikusi
 Nituen zuen baitan gizonetan handienak.
 Gaur-egun begitakoa
 Emanan daut arrazoinak,
 Garbia dut ikuspena.
 Zuen ibilaretan eztut ez ikusi
 Mutil xipi- xipi,
 Umeki'ta ñiñi,
 Xinaurrik baizi.

7

(Ikusler)

Oi jende zentzudunak,
 Zuen zorionezko jeinua
 Thaliaz baita moldatua,
 Sinetsiko ditugu zuen aburuak:
 Eztira ñañoak zuen baitan ziganteak.

Baldin gure komedia hau
Ezkuz baduzue zartatu,
Bekaizgoaz beldur guti dugu.
Zuen ikaspenez bortxatuko dituzue
Mutil xipi-xipi,
Umeki 'ta ñiñi,
Eta xinaurri.

*

*

Jean GIRAUDOUX

Goienkantu

Egitaldi bakarreko antzertia

N.B. *Kantu goiena* lehen aldikotz eman zen Parisko
“Comédie française” antzokian 1938-ko urriaren 12-an.

JOKARIAK

FLORENZA
KHUTXAZAINA
JOIEN ANDRE ITXURAZKOA
BI EMAZTE JITO
PRESIDENTA
JERONIMO
BITTOR
OSTATUZAINA
BERIBILZAINA
IHIZTARIA

*Edandegi aberats bateko zabalza ederra.
Boulogne-ko Oihanean edo Zekuanaren bazterrean.*

AGERRALDI LEHENA

PRESIDENTA, BITTOR

Presidentak. – Zein mahi hartuko dut, mutil?

Bittorrek. – Nahiko duzuna.

Presidentak. – Thea ona dea zure etxean?

Bitorrek. – Eztakit. Sagarnoa edaten dut.

Presidentak. – Andere gazte bat ikusiko duzun orduko, ene aldera bida ezazu. Anderetan xoragarriena.

Bitorrek. – Hemen andere xoragarriak berak biziki ontsa bidatzen dira...

Urruntzen da.

Presidentak. – Mutil! Hurbil zait! Jendeari horrela mintzatzeko dretxorik eztuzula badakizu!

Bitorrek. – Mintzaten naue mintzo zaitan bezala.

Presidentak. – Banator hunara lurraz goragoko oren baten beharretan bainiz egun, zohardurako galeria baten, loriazko zabalza baten. Horra nola antolatzen dautazun, ene zabalza!

Bitorrek. – Zerra-zahiz ozkatua dut. Ene egitekoa hortan gelditzen da.

Presidentak. – Baina azkenean, adixkidea, oro gogoz hertsu zireztea, zuek, mutilak!... Ez, ez, enauzu ixil-araziko. Europako mintzari hisituena bezala ontsa ezaguna niz!... Zerbitzaten dituzuenak zuen aldera zer diren ezagutu gabe iraunen duzuea! Zure ofiziodetardea ohartuko ote da azkenean edandegi gaiena, - zurea, nahi baduzu, - eztela ororen buruan elgarretara hitz-hartzeko etxe bat baizik, - mintzatzera utz nezazu! – mutilaren eta zerbitzaten duenaren artean hitz-hartzeko etxe bat? Zeren bila heldu dira edandegira, ohituak? Ez zure kafearen, beti okaztagarria baita, - ixil zait othoi! – zure bila!... Bere mutilaren aurpegiaren bila – Jainkoak badaki alta etzireztela ederrak...

Bitorrek. – Jauna!

Presidentak. – Mintzo niz.

Andere khutzazainak, *bitartean kbundu-mahi gora batera igana baita onibuꝯ gidari baten oharpen guziarekin.* – Jauna mintzo da. Egitera utzazu. Orotako mintzo da. Bertzela ere, berezian, etzira ere Apolon... Bere mutilaren aurpegia...

Presidentak. – Eskerrak, Anderea! Haien mutilaren aurpegia zinemako begitarteak baino indardunagoa da etxetik

haien atheratzeko. Dirutegizain, elhaberrilari, koronel, orok badiote bere baitan: - Andere ezkutari, ezpatalari, Burdinolhetako Bilzarreko segetari batzuekin auhaltzeaz asean niz: goazen edandegira. Han, bederen, bakarrik izanen niz, bakarrik Izidorrekin, edo Renerekin, edo Juxtauekin... Zer duzu izena?

Bittorrek. – Bittorr, jaun maitea.

Khutzazainak. – Xarlex du. Baina ostaturainak ere Xarlex du. Bittorri – izena Xarlex zuenean – zerbait manatzen zizakon aldi oroz Xarlex ostaturaina ere itzultzen zen. Horrek zerbitzuari bere gaitasuna ekhertzen zaukon... Beraz Bittorr izendatu dugu.

Presidentak. – Ezta gaizki, Bittorr. Irabazle erran nahi du... Eta guziak heldu dira, Bittorr...

Khutzazainak. – Egiazko Bittorr leherturik izana da, duela sei ilabete... Maisons-Lafitte-ko bere bazterretxea erre 'ta berehala... Barkatu, Jauna... Eta guziak heldu dira, Bittorr...

Presidentak. – Eskerrak... Eta heldu dira, Bittorr! Eta azkenean badute minuta batez zoriona, bakea, artegunea, bere ofizioa, etxeko, erresumako eginbiden artean. Jainkoak daki alta gaizki zerbitzatzen dituzue! Zuen bekokiak basoen garbitzeko oihalaz xukatzen dituzue. Kafe bat ere ez oinetako mainurik gabe. Ez tisana bat kontrako tisana baten orstoak igerikan gabe. Karta jokolarier erret-jokoa emaiten dauezu, belota jokolarier andere jokoa. Maite zituzte, bizkitartean. Eta familiari maltzurki ebatsi omere onezko erresalbu guzia, gure gaitzaldi eta hondamenetarik salbatu ahal duten barneko onezia guzia, badatxikate zuekilako buruz-buru hortako, Triztan eta Izoldena bezain ixila, hura bezain khartsua, eztea hori egia, Anderea? ezpaitute hartan zuen izen ttipia eta edan-arazten dauezuen ireizkiarena baizik erraiten.

Khutzazainak. – Ezta osoki zuzen, Jauna. Basoa sukaldean ikhuzten da. Mutilak berriz ikhuzten badu, bere irrisku 'ta lanjerreran da eta bere oihal bereziarekin. Baina Triztan eta Izoldez, zure hitzordaina baitezpadakoa da, eta egia bera.

Bitorrek. – Jaun maitea, orduan bada gaizki-entzun bat. Ezen guk, jendeak, erran nahi dut ohikoak, maite ditugu, biziki maite. Zergatik uste duzu gu, mutilak, gure bizi guzian hor egoitera heltzen girela egarririk gabe edarien emaiten, eta goserik gabe zanduitxen? Bertzek bezainbat dohain badugu, Jaun maitea. Gure margazki saloina badugu. Baditugu gure baxelierrak. Nik, antze ainitz banuen salbatzale izaiteko. Igerika eztakit, baina, salbatzeko, odol-hotzak du balio, ez igerika jakiteak. Ez, margazkitzeko orde, salbatzeko orde, bagaude hor, jende elemenian, erasietan eta larrurinean, badakigulakotz, bakoitza bere orenean, ikusiko ditugula bapatez bere lekuan, harresietarik jalgiak, gure ohikoen buruak irriñotan. Eztira beti ederrak ere, Jaun Presidenta. Haieri esker, badakigu zer diren begitarte maite batean buru-garsoildura, min horia eta lupua. Baina hor dira... Gostua berremaiten dauete aireztatuak ditugun jan-edan horier guziet. Hek dira goizaldeko gure granadina, eguerdiko gure armañaka, arratseko gure belberina... Haiekin eztugu aldizkatzen hitzerdi, behako, erdi-irrik baizik, baina maite ditugu, Jaun Presidenta, eta ohiturik gabeko edandegia, khutzazainak ere erranen dautzu, kaperarik gabeko eliza da.

Khutzazainak. – Saindurik gabekoa, erran nahi du Bitorrek. Horren hitz-ordaina Jaun Presidentarena baino gutiago zuzena da.

Bitorrek. – Nik saindurik gabe erran nahi dut? Ageriki. Saindurik gabe erran nahi dut. Baina bere izen ttipiak ehoiz erran eztauzkiguten saindu batzu, Jaun Presidenta, eta ainitz aldiz, egun trixtetan, badugu haien jakiteko gutizia!

Khutzazainak. – Bat badakit, badazkit biga.

Bitorrek. – Horrela zuri Jaun Presidentaren erraitera bortxatua niz, halabeharrea, ikustean. President zira, ezta huts egiterik. Baina zeren eztakit, batzorde baten, konseilu baten, ala Errepublikaren! Zuzen ezpada, ene errespetua baizik ikus etzazula hor.

Presidentak. – Badoa, Bittorr. Hori da hain zuzen ene izena... Orduan, zer gatik etzinautan mintzatu nahi arestian?

Bittorrek. – Ezpaitzinen ohikoetarik, Jaun President maitea. Orai, hala zira. Egizkizu berriz zure hirur galdeak. Ikusiko duzu eztugunez antolatzen, loriazko zabalza!

Presidentak. – Zein mahi hartu behar dut, Bittorr?

Bittorrek. – Ez ziren hori, Jaun Presidenta! Nahasmenetako mahia da. Bira zoaz.

Khutzazainak. – Oroz gainetik emazte baten aiduru bazaude. Bian, eztiak dira. Argiak egiten du, errana dauta dirutzetako begiztatzaleak. Bian argiak matelak zeharka joiten deztee. Orduan eztiak dira.

Presidentak. – Ezkiaren azpiko mahia?

Bittorrek. – Bederatzia? Eztautzut Bederatzia konseilatuko, Jaun Presidenta. Mahi madarikatua da.

Khutzazainak. – Ingurunetan bereaz egin duen norbait aurkitzen denean, azken erhumaren edatera beti Bederatzira jin izana da.

Bittorrek. – Ordaintzen du, gehienetan.

Khutzazainak. – Hea, Jaun Presidenta! Nahi duzuna biziki onsa ikusten dut. Zure gogo izanara badugu batzuetan guk ere, nahiz khutzazain giren. Hartan guzia errex, laño den mahi bat nahi duzu?

Bittorrek. – Eta ohigabeko?

Presidentak. – Hori bera.

Khutzazainak. – Hartan naturaleza zure alde den bat, orstoetarik erroetarano, arrunkeriak bere lekua eztuen bat, iletarik oin-erhietarano.

Bittorrek. – Bizia hartan joko eta benedizione den bat, hala izan behar bailuke, Jaun Presidenta, eta ezpaita hala?

Khutzazainak. – Hartan zure burua gazte, eder sendi duzun bat?

Presidentak. – Ahal bada.

Bittorrek. – Zoaz Bira, Jaun Presidenta!

Khutzazainak. – Zoaz Bira!

Bitorrek. – Eztut hemen Bia baizik ikusten, baina segurtatzen dautzut.

Khutzazainak. – Bian ainitzetan jartzen niz, auher orduetan, igurikatzeko bakarrik. Eta ni, bizkitartean, enago jeusen aiduru.

Presidenta Bian jartzzen da.

Presidentak. – Goazen Bira!... Thea ona da zure etxean, Bittor?

Bitorrek. – Ez Xinan bezain ona, auzoan baino hobea.

Presidentak. – Andere gaztetan xoragarriena ikusten baldin baduzu, Bittor, alde huntara bidazazu berehala!

Bitorrek. – Ezta galduko, Jaun Presidenta. Nihaurek ekharriko dut izaitekotz.

Presidentak. – Eztiki ekharrazu... Ene bozkario guzia da.

AGERRALDI II

PRESIDENTA, JERONIMO

Jeronimok. – Florenzaren beha zaude, Jauna?

Presidentak. – Ba, Florenza Andereñoa igurikatzen dut.

Jeronimok. – Nor nizan erranen dautzut: Jeronimo niz.

Presidentak. – Loriatua. Nahiz eztutan biziki ontsa hartzen bi izen horien arteko lotura.

Jeronimok. – Hartuko duzu. Lotura mina dute. Ezin minagoa. Marra ttipi batek ditu bakarrik berexten. Haren gizongaia niz.

Presidentak. – Florenza ezkontzen baita!

Jeronimok. – Ezkondeiak eginak dira.

Presidentak. – Goresten zitut... Den emazte xoragarriena ezkontzen duzu.

Jeronimok. – Eskerrak! Florenzak errana zautan alabaina hartaz aburu ona zinuela.

Presidentak. – Ha! Florenzak zitu igortzen?

Jeronimok. – Zurekin hitz hartua zela erran daut. Ordainez igortzen nau aitzinetik. Nahi du agian ezagun nezazun.

Presidentak. – Ikustate guziak baditu.

Jeronimok. – Zuretako, guziak. Eztuzu hoin ontsa diozula uste. Adoratzen zitu, Florenzak. Ezta zutaz baizik mintzo. Zutaz baizik ez orhoitzen. Eztu zure araura baizik jujatzen. Adoratze hitz zozoa da: maite zitu, Florenzak.

Presidentak. – Forenzaren ganik maitatua izaiteko zoriona estimatzen dut.

Jeronimok. – Zein ona zinen harendako, zoridun izaitera nola laguntzen zinuen, bizitzera nola sustatzen, haren solas bakarra da. Zuri esker etzen jeusen beldur, Florenza! Oraino ere, eztago zuri baizik!

Presidentak. – Gizon onari, emazte sendikorra.

Jeronimok. – Zutaz burgoi da, Florenza. Munduko hitzaldilari lehena zirela dio. Eztoa filma baten ikustera, marrazki bizidunetara ere, zu berrietan bazira baizik. Agertzen zirenean, haren eskua besoan xifritzen senditzen dut. Atzo irratian diru aldatzetaz zure hereneguneko hitzaldia moztu ukan behar dut, nigarrez hastera zoala uste ukan dut. Hots, Florenzarendako ezta zu baizik.

Presidentak. – Hortaz zorionean ikusten nauzu.

Jeronimok. – Zaietako bezala da. Ontsa senditzen dut atheratzeko zuk hautatuko zinituen jantziak hautatzen dituela. Harendako zuk dituzu egiten aroa eta margoa. Arratsean, jadanik etzana nizanean, ikusten dut zaiaren ekhentzen, dilindan ezartzen, miresten. Biziki ontsa senditzen da zu zituela gogoan. Zuretako janzten da, Florenza!

Presidentak. – Hautesia niz.

Jeronimok. – Hortako du beranta. Betegina izan nahi du. Ikusiko duzu. Jantzi urdin hutsa du, axeriarekin. Bereziki maite dituzu, urdin hutsak, ene ustez?

Presidentak. – Berezi-bereziki.

Jeronimok. – Eniz ostatuaz mintzo. Banindagon zergatik ote dituen Florenzak, ostatuan, bere ohidura zorrotzak, ezin aldatuak. Zure janaritik jaten duelakotz da, zure arnoetarik edaten. Ni, beti hutsean niz. Ene aphairu moldekin, haren khexatzera heltzen niz, gogoz baztertzer... Zuenekin, berehala eztitua da, xamurra.

Presidentak. – Heldu dea bada? Bere besteguna du eni ezkontzaren iragartzeko hautatu? Diozun bezala, baditu ikustate guziak enetako, Florenzak!

Jeronimok. – Besta? Florenzaren besta da egun?

Presidentak. – Eztuzu iduri Florenzaren biziaz biziki jakintsun zirela!

Jeronimok. – Aithortzen dut. Ezta oraino solasaldia gai hortara erori... Haren urtaburua?

Presidentak. – Urtarrilaren zortzian sortua da Florenza. Gauerditan. Gau osoan igortzi behar ukan da bizi dadin. Beltz-beltza bilakaua zen.

Jeronimok. – Ontsa igortzi dute. Jeus ezta zinez gelditzen.

Presidentak. – Besta urriaren hamarrean opatzen zako. Ezta santa Florenzaren eguna, baina san Brunorena. Baina familiako ohidura da. Bizi zenean haren amak hala nahi zuen.

Jeronimok. – Ha! ama hila du? Zein damu den! Parisen?

Presidentak. – Ez. Mayenne-en. Aita han bizi baitu.

Jeronimok. – Ha! aita bizi du? Zein ontsa den! Mayenne-en? Zein bitxi den!

Presidentak. – Bizi da. Zure egitekoa zer den jakin dezazun, ilabete oroz ikustera joaiten zako, hamabortzean. Hamarrak eta hogeita hamahirurko treina hartzen du

Montparnasse-en. Karrosa gixetetik abiatzean hirugarrena da. Haren ohiko lekuaren gainean, bada Gisors-ko harri-mahiaren argazkia. Bi ilabetetarik anaiak laguntzen du.

Jeronimok. – Anaia bat ere? Hobe. Bizian ezta bakarrik. Ha! haren besta da? Zeren edatea du maite besta eguneko, Florenzak?

Presidentak. - Hortaz den gutieneko orhoitzapenik ez tut.

Jeronimk. – Bestako eskain dezakoten zer du maite, orotara?

Presidentak. – Hortaz ere ideia guzia galdua dut.

Jeronimok. – Azalea bat?

Presidentak. – Maite ditua azaleak, hortenziak, orkideak? Ziniak hunkitzen dua? Rezedak erotzen? Hori bapatez gogotik atheraia zata. Mota hortako huts batzu baditut... Ikusazu, bortz orenetako ene Konseilua ahatzia nuen, Konseilu gotor bat. Hara heltzeko astia dut zuzen.

Jeronimok. – Beranturik Florenza lastimatua izanen da.

Presidentak. – Errazkozu ene desenkusak. Beribil bat, Bittorr!

Jeronimok. – Beribilik ezta, Jaun Presidenta. Jinen zatan lehenbizikoa Florenza, Florenza Anderea ekharriko duena izanen da seguraz. Barkatu, Florence Andereñoa erran nahi dut. Hoberena, igurikatzea iduritzen zata.

Khutzazainak. – Zaude, Jaun Presidenta. Fida zaite Biari.

Jeronimok. – Bertzela ere, uste dut hor dela!...

Khutzazainak. – Ezta dudarik. Jaun Presidentak dion bezala Andereño Florenza emazte gaztetan xoragarriena baldin bada, horra hemen!

Jeronimok. – Presidenta hemen da, Florenza.

Khutzazainak. – Jaun Presidenta Bian da, Florenza Andereñoa.

Bitorrek, *khutxazainari*. – Uste dut ezutala gehiago ene besoetan ekhartzeko beharrik.

Khutxazainak. – Zorion bat da. Gauza guziak erortzera uzten dituzu.

AGERRALDI III

FLORENZA, PRESIDENTA, JERONIMO

Presidentak. – Egun on, Florenza.

Florenzak. – Egun on, Jaun Presidenta.

Jeronimok. – Zintzoki artzen ahal hiz, Florenza. Hiretako den guzia errana dakenat. Khondata dakenat, diru aldatzetaz bere hitzaldiko... Sarri arteo! Uzten zituztet...

Presidentak. – Zergatik uzten gituzu?

Jeronimok. – Florenza nitaz mintzatuko zaizu. Nahiago dut ez hor izan. Eta ere ezut zure moldeko elhea. Hau, zu bezala mintzo da. Hirur hitz erran dauztazu, baina zu bezala mintzo dela ikusteko aski izan zata. Lotura berak. Doinu bera. Zure zintzurra du, Florenzak, zure ahasabaia. Bere hortzetan, mihi xoragarrian...

Florenzak. – Biziki ontsa. Utz gaitzak.

Jeronimok. – Zenbat dembora behar duzue?

Presidentak. – Bortz minuta, ene ustez.

Jeronimok. – Jostatzen zira! Florenza eztuzu ezagutzen! Elhekaria da, zutaz ari den orduko. Zenbat nahi dun, Florenza?

Florenzak. – Hamar minuta.

Jeronimok. – Entzuna. Oren erdia, eta hor niz.

AGERRALDI III

FLORENZA, PRESIDENTA

Presidentak. – Egun on, Florenza...

Florenzak. – Egun on, Klaude...

Presidentak. – Goraintzi, Florenza!...

Florenzak. – Zergatik zira Klaude deitzen? Ezta elgarretarik berexteko izen bat, Klaude!

Presidentak. – Desenkusa nezazu. Klaude izendatua naute egun batez aurkituko zintutala baitzakiten. Galduko zintutala eztute asmatu. Enaute Alfred izendatu.

Florenzak. – Hainbat gaixto. Horrek lagunduko ginintuen.

Presidentak. – Hobeki hornitua zira: Florenzak baditu bi helburu. Biziki ontsa entzuten da: Goraintzi, Florenza. Horrek erhausten zitu. Hiltzen zitu. Baina entzuten da.

Florenzak. – Zergatik goraintzi? Elgar aurkitzen da, Parisen!

Presidentak. – Elgar aurkitzen da Zachelean, Mont-de-Marsan-go arautzeko garan. Parisen, bekanago da.

Florenzak. – Elgar aurkitzen ginuen.

Presidentak. – Elgar aurkitzen ginuen, andere adixkide batek, gure biden gurutza-arazteko, erosten baitzituen josleak, antzokietako buruzagiak, deputatuen gambara, eguraldia, euria. Adixkidantza zen adixkide batek. Beti elgarrengana bultzatzen giniuen, zekunda, minuta bakoitzean, gauaz, egunaz. Horrela hamabortzetik aldi batez elgar aurkitzen ginen, oren bateko.

Florenzak. – Hainbat zira lanaz hartua. Zure bazterraztera enintzan menturatzen. Bertzerik ehor enuen ikusten.

Presidentak. – Ontsa segur niz.

Florenzak. – Nor ziren eztautzut nik ikasiko, eztuzula egoitza airean. Ehoiz etzira oso-osoan hor, hor zirenean; zutarik gelditzen zizatana, hor etzirelarik, ainitz zen.

Presidentak. – Biziki sobera. Hori aski zinuen.

Florenzak. – Hor ez izaite ezti bat zen, betea, hor berekoa. Ene ehun lanak zuri emaiten nauzkitzun, zurekin jeus ikustekorik etzutenak ere. Anaiaren soinekoak zuretako

trikotatzen nituen. Ene harmairuak zuretako oihaleztatzen. Orai ezagutzen ditut hor ez izaitezko oihalak, zurdakia, organdila, gotoin leundua. Bideko soinulariari dirua emaiten naukon zuregatik. Bazuen horrek zerbait igurikatsetik, berrogei eguneko sukharretik, dohatsutasunetik. Zure ez hor izaitea zen.

Presidentak. – Ezta gehiago bera, harekin?

Florenzak. – Ez. Izigarri da, harekin.

Presidentak.- Ezpaitzinen jelos, Florenza. Eta hala baitzira.

Florenzak. – Jeronimoz jelos? Nitaz zer gogo duzu Jeronimoz jelos nizala uste ukaiteko? Zer da, Jeronimo? Ikusia duzu... Jeronimotik zer geldi daiteke hor eztenean? Hor ez izaiteak eztu itxuraldatzen ere, barreatzen du. Urtua da, Jeronimo, hor eztenean. Banago haren ganik zer dutan orai, hogeit metretan hor berean delarik, haren izena salbu!

Presidentak. – Etzitu agian ainitz aldiz uzten?

Florenzak. – Hogeit egunez geroztik, arratsalde batez utzi nau.

Presidentak. – Biziki gaizki da. Nora zoan?

Florenzak. – Soldadogoko konseilura.

Presidentak. – Hartu dute? Utziko zitu, gerletara joaiteko?

Florenzak. – Hartu dute! Badakusatan guziko itsu da, entzuten dutan guziko elkor da, baina hartu dute. Lañoenik den guzia da, irriskutan den, kondenatuenik den guzia. Baina hek ezteute jeus ikusi.

Presidentak. – Gerlak segurki ikusiko du.

Florenzak. – Orotan erretzen da. Orotan joiten du. Athexka guziek zimikatzen dute. Euritako guziek okhertzen. Ilabete batez geroztik, igortzaldi, lotura, gantzugailu molde guziak ezagutzen ditut. Gau betean erburukoak heldu zazko. Beti ari niz haren gantzutzen, kalafetatzen. Punttekin, beribiletako itzekin, haren odola xurgatu behar dut egunean hamar aldiz. Suge

bipera batek balu ethengabe haren ausikitzeko mezua, enuke egitekorik gehiago. Zorigaitz ttipietako jainkoa da.

Presidentak. – Jainko xume bat. Esker ezazu.

Florenzak. – Zuk, ehoiz ez marranta bat, hats galtze bat. Bazinuen zutan, zure gainean, zuk, heriotze gabeko, ezin zaurituko zerbait ...

Presidentak. – Hamabortzetik oren batez. Gaineratekoan enintzan behar bada zauri baizik.

Florenzak. – Ehoiz eztuzu begian ukan ikhazki bikunik. Ehoiz ez hagin hotzik. Mahian mozten ari zinenean ere, atheak jo-arazten zintuenean, khutxa batzu idekitzen, bizitegietago suge-gorriak etzintuen ausikitzen, egoitzetako saiak ez mokokatzen, igangailuetako lehoin-nabarrak aztaparrak biltzen zituen. Zure bihotzak eztiki joiten zuen, emeki, gelditu gabe ...

Presidentak. – Egia da. Ene bihotza joiten entzun duzu...

Florenzak. – Harena badoa lauhazka, trostan, gelditzen da. Zekunda batzuez gelditzen, mendetan. Harenak soin guzian ilunki joiten du, burhezurretik oinetarano... Burua nun ezar eztakizu...

Presidentak. – Bihotz lekuratuek abantail handiak badituzte.

Florenzak. – Nola da, Jeronimo, pollita?

Presidentak. – Eztuzu ikusi?

Florenzak. – Ikusi dut aldi bat zekunda batez, ohartu nako aldi batez. Iduri bat zata gelditzen. Geroztik, ez.

Presidentak. – Ontsa da.

Florenzak. – Dudan nago. Pollita da behar bada. Ezta ontsa... Zu, zu zira ontsa! Zu, aldi oroz ikusten zira. Zure ez ikustea ezin da, aldi bakoitz. Baduzu begitarte eder larde bat irriño batekin. Baduzu bekoki bat urriki gabea xamurtasunarekin. Aho bat baduzu ezin hezia, beti arthara emana. Miresten dutan guzia baduzu, lephoa errege batena, gogo berdina, zangoak

zuzen. Hura, ezpada belhaun hertsia, doi-doietarik da. Hori ikusten dut.

Presidentak. – Nola bildu zitu, kantuz ari dea?

Florenzak. – Ehoiz makur kantatu den bezain makur kantatzen du. Behin ere eztuzu ene aitzinean kantatu. Enuen bertzela ere munduko nagusi batek ene aitzinean kantatuko zuelako esperanzarik. Baina nola lizatekeen badakit, kantatzen bazinu. Badakit entzun zitutalakotz batzuetan Operan *Don Giovanni* edo *Othello*-ren kantatzen, begiak hetsiz, zure urrungo bidaietan. Hark xixtu egiten du. Egiten zuen bederen. Eguerdi eta hirur laurdenez geroztik, badu ezpainean arraildura bat.

Presidentak. – Nun aurkitua duzu?

Florenzak. – Karrika handian elgar jo dugu. Indar guzietz lasterka zoan... Min egin dauta.

Presidentak. – Urrundik heldu zen. Egotzia zuten duela hogeitau urte...

Florenzak. – Hogeitau bat... Min egin dauta... Enindaik hel oraino neure baitako ezindura hau maitasuna denez ala minberatzea jakitera. Zurekin...

Presidentak. – Enekin?

Florenzak. – Jeus ez... Errepika da... Jauz dezagun... Nola da, Jeronimo? Adimenduduna?

Presidentak. – Begia erne da. Elhea errex.

Florenzak. – Bekokia hutsa...

Presidentak. – Zer egiten du, bekoki hortaz?

Florenzak. – Jeus ez. Notari batek emaiten dauko ilabete sari arteko bat. Heltzen da.

Presidentak. – Bizian zer ari da?

Florenzak. – Jeus ez. Hortan da: haren ofizioa da bizitegitik higitzen. Mubleria badabila hein gorenean. Harekin hartzen da nola eta zergatik gizonek egin dituzten soinekoen ezartzeko krakoak, tirantak, tauletak. Ukharaike botoin bat egun guzia argitzen emaiten duen mixterioa zako. Badaduzka, leiho heskailu batekin, oheburuko biribil batekin, eguerditarano

badatxikaten ixtorioak. Jostagailuek ere libertitzen dute. Kautxuzko ahate bat ezartzen badut mainuntzian, eztu handik atheratzerik. Eztu nehoiz lanxede bat. Beti aroaren ikhertzen ari da, ximenki, leihoan, aro neurtzekoan, bero neurtzekoan, baina ezta nehoiz jalgitzen, hegaldatzen, airatzen. Airekorik etzen aroko airekolari bat bezala da.

Khutzazainak, *Florenzaren soak harena aurkitu baitu.* – Halako arkaingeru bat...

Florenzak. – Zurekin, enituen ofizio handi batzu baizik gogoan, egiteko handi batzu. Munduko guduak, egarriak, thesorak banazkien, jarraikitzen nindeen. Zurekin petrola zen, urrea, burdina. Harekin, zeluloida da, berniza kromatua, zilharbizi hartua, aluminiuna. Badu sakelako lan-mahi bat. Sakelorenen gatinetako zoldadura guziak badazki, zerrapoetako nahasteka guziak. Burdinaki ttipietako jainkoa da.

Presidentak. – Egunak badoazke lazterrez.

Florenzak. – Ba. Urteak bezala. Ene astea zazpi urtez egina da. Ezpazitut abisatu ezta astirik ukan ez tatalakotz. Gure iragana, harekilako lehen egunaren ondotik, jadanik urrunegi zelakotz da.

Presidentak. – Bekaizti dea, iragan hortaz?

Florenzak. – Eztu iragana ezagutzen. Ehoiz eztauta galde bat egin. Eztuke berea ere ezagutzen. Eztu nehoiz aiphatzen. Aurkitu nauen egunean jaioa nizala uste duela iduri du. Ttipia izana nizala ahatz-arazi dauta, bertze ohe batzu, bertze etxe batzu ukanak ditutala. Dutan gorputzaran sortua niz, ene ile kuxkulekin, ene galtzerdiekin. Galtzerdi pare hau, ez bertze bat. Ezinbertzetik ezarria du ene hortz garbitzekorano.

Presidentak. – Oraiaz da bekaizti?

Florenzak. – Asmamen gabekoa da. Badu mustroen lañotasuna. Aierurik eztu. Ongia, gaizkia ez titu ezagutzen. Eztaki emaztegaietan leialenak bertze norbaiti maitasunezko eskutitzak izkiria dezozkeela, bera maitaleari tinki estekatua den emazteak aitzineko alokariari kheinuak egin, erret-ezkontide batek bere

senar lokhartua ohean berean engana dezakeela. Eztaki irabaztea, galtzea, den guziaz jakingabe da.

Presidentak. – Ezta banizala jakin gabe?

Florenzak. – Eztaki adixkidantza maitasuna izan daitekeela, elgar entzutea estekamendua, gogo berdintasuna idetasuna... Deus eztaki, eztu deus asmatzen, zutaz, nitaz ... Ordu huntan, lañoki, hartaz mintzatzeko girela hor uste du.

Presidentak. – Zer ausartzia!

Florenzak. – Hain guti da bekaizti nun neure buruari behatzea ekhendu baitaut. Zurekin osoki zure nintzan eta ene baitan enuen hutsik baizik sendi. Den guzia zinen enetako, eta gizon bakoitzaren ondotik ikharatuz iragaiten nintzan. Zu zinen bakarrik, eta metroan esku batek hunkinzen baldin baninduen, indarrik gabe nintzan. Bualetarik gabe iragan dezaket Konkordiako plaza, orai... Besoak eztitut gurutzatuko ere... Salgai ekharler athea buluzirik idekitzen dauet.

Presidentak. – Badira bada nahikariak, haserreak?

Florenzak. – Ez. Noizten omere ona, irriño berdin bat, arthatzeko lehia. Ene ondoan senditzen dut aithorretara bulzatzeko gaxtagin baten gelan ezartzen den lagunkide hetarik bat bezala. Hor da, hek bezala, axolarik gabe, maitagarri. Ene janaritik jaten du. Ene urean ikhuzten da. Ene ohean etzaten. Mintzatzeko lanik ere eztu hartzen. Aithor dezatan igurikatzen du.

Presidentak. - Aithor dezazun zer?

Florenzak. – Hura ezagutu aitzineko ene zoriona. Hainbat gauza ederrekin, hainbat izaite onekin, estimatzen denarekin, pherekatzen denarekin nuen gogaidetasuna. Ene larru horratuzko soinekoen gainean eskuen ez gehiago ibiltzean niz, gizaiduri bati ez so egitean, xori bati. Aithor nezake! Berari eztaukot lo denean gehiago so egiten, eztiki hats-hartzen duenean, zuk hats-hartzen zinuen bezala, den hura bera eztenean gehiago. Iratzar nezake. Aithor nezake. Lehengo ene zorion

guzia, ene zorion ezin zundatua, gure gambarara lehian sar laiteke... Galdua nintzateke.

Presidentak. – Eta beti horrela da?

Florenzak. – Ez. Kontrakoa da batzuetan. Omorea doi-doia gutiago alegera da. Irriñoa doi-doia aphaltzen da. Baina huts egiterik ezta... Aldi huntan, ene gambaran ezarria dute aithor eztezatan.

Presidentak. – Eztezazun aithor zer?

Florenzak. – Hori eztakit. Erakas dezatazun zuri nago. Ene ez ontsa izaitetik jujatzen badut, ohointza gordetzearen, larmarrazkiaren, diru falsuaren arteko zerbait dateke. Hasteko, salatzen baduzu garbiki erahiltzen zituen andana batekoa niz... Ustegabetzen zitut, Klaude, penatzen?

Presidentak. – Maitasunaren berri ikasten ari niz, Florenza. Khario de beti.

Florenzak. – Horra zer nautzun erran-arazi nahi. Ezen maitasuna da, eztea hala? Ezta hori bakarrik, baina hori da zinez?

Presidentak. – Dударik batere gabe.

Florenzak. – Hura eztut maite. Argi da. Baina maitasuna dea?

Presidentak. – Ezta zure maitasuna. Zure maitasuna osoki bertzelakoa da. Badu gure iduria. Elgar entzute bat da, baimen bat, errextasun bat. Hori, kontrakoa da. Baina maitasuna. Jeronimo maite duzu bertze emazte baten maitasunarekin.

Florenzak. – Maitasuna hartua daukotan jende bitxia! Ezagun eztezatan galdatzen dut. Hartarik zein urrun nizan!

Presidentak. – Demborarekin elgarretara hurbilduko zirezte.

Florenzak. – Demborarekin? Ez, demborarik ezta gehiago, Klaude! Gaitzena hori da. Zurekin dembora bazoan. Baziren asteak, ilabeteak; arropen gutiza, bizkarrekoena, urtaroak baitziren; bidaiak, eremua baitzen. Lurra itzulikatzen zen. Biziki ontsa sendi nuen lurra itzulikatzen. Horren senditzeko bidea aurkitua ginuen, hotelean. Eta ere biribila dela begi hutsez

ikustekoa. Harekin, ezta hortara menturatzen, hitzemaiten dautzut. Harekin ezta minuta iragaiten, dembora geldi batean bizi niz. Hein gorenean geldituan, bidatzeko liburuxketan dioten bezala, baina ezta gutiago laztagarri. Hori bezalako atxikimendu ttipi, urrikgarri, xume batek, eztu munduaren hondamen hori merezi. Egiten badakien guzia, jende arteko horrek, bere lan-mahi erabilgarriarekin, betierekotasunaren emaita da, munduaren geldi-araztea... Orduan, Klaude, batzuetan... Ezkitu nehork entzuten?

Khutzazainak. – Ez, ez, nehork!

Presidentak. – Beraz?

Bi emazte zorion erraile, errementxel jantzietan, bapatez sartuak dira. Bakoitzak hartzen du berehala Florenzaren esku bat eta Presidentaren esku bat.

AGERRALDI V

FLORENZA, PRESIDENTA, JITOAK

Lenbiziko jitoak, *Presidentari*. – Hik, thesor bat baduk sakelan, thesor gotor bat.

Bigarren jitoak, *Florenzari*. – Hik badun bat zakuan. Begiak erretzen dauztan.

Presidentak. – Bittor!

Khutzazainak. – Bittor! Haizazkizu Karmen horiek!

Bigarren jitoak, *Florenzari*. – Hik, hire bizian hirur gizon. (*Zerbait laztagarri irakurtzen balu bezala*)... Ho la la! Ho la la!

Khutzazainak. – Bittor!

Lehen jitoak, *Presidentari*. – Hamar libera. Maite haukanez erraiten dauiat.

Bigarren jitoak, *Florenzari*. – Ikusten dinat ezkontza bat. Ikusten ditinat bi gorputz...

Lehen jitoak. – Bortz libera. Noiz hilrzen hizan erraiten deat.

Bitorrek, *bapatez agertuz*. – Zoazte, itzal zaitezte!
 Lehen jitoak. – Loiaixti Bittor ete karra Presidenta
 betxa.

Bigarren jitoak. – Baiana Florenza, betxa Khutzazaina.
 Khutzazainak. – Iez, ederra. Horrela dun...

Jitoak badoaz, Bitorrek haiçaturik.

Khutzazainak. – Gosten zitut, Bittor. Loriazko
 zabalza bezala, ezta gaizki.

Bitorrek. – Horra, Jaun Presidenta! Guzia behar
 bezala da.

Presidentak, *Bittorri, mahi madarikatuan eskutitz baten
 izkiriatzzen hasia den emazte bat erakutsiz*. – Uste duzu? Bereaz egiten
 duten mahian emazte baten ikusteak eztautzu jeus egiten?

Bitorrek. – Hain da itsusia!... Lekuz aldatzen dut?

Presidentak. – Ba. Zerbitzu egin zinezatake.

AGERRALDI VI

FLORENZA, PRESIDENTA

Presidentak. – Beraz, batzuetan?

Florenzak. – Nola?

Khutzazainak, *hibotz-hunkidurarekin*. – Beraz, batzue-
 tan...

Presidentak. – “Beraz batzuetan...”, hortan zinen.

Florenzak. – Beraz, jeus ez. Beraz, bururatua da.

Presidentak. – Nor da bururatua?

Florenzak. – Ene eresia ttipia. Ontsa kantatu dut, eztea
 hala? Etzen gaizki, nahiz jadanik luzexko. Bururatua da.

Presidentak. – Beraz,... batzuetan? ...

Florenzak.- Ez, bururatua da! Errana dutana errana.
 Baina etzoazela urrunegi.

Presidentak. – Nahiko duzun bezala.

Florenzak. – Emazteak ezagutzen dituzu. Deitoratzeko gutizia hortaz bapatez hartua izan níz, errorano deitoratzekoaz, sabelerano. Luzatzeko, oiñu egiteko, kantatzeko behar batez bezala. Hori da, kantatzekoaz. Buruan banuen aire bat, aire hunkigarri bat. Molde guzietan hartu dut, fugan eman. Zurekilako ene fuga da. Baina eztu baliorik, ez arrazoinik. Emazte alaienak, egun batez, bere etsipena oihukatzen du; emazte zoriondunenak, bere herstura. Haren gorputzeko ofizio bat da, ez arimakoa. Enintzan batere batere hortan barne.

Presidentak. – Nahiko duzun bezala. Osoki bat gira hortan. Kantatu duzu... Eniz aireaz baizik orhoituko.

Florenzak. – Ba. Orai, mintza gaiten. Huna zerk ekhartzen nauen, Klaude. Ezkontzen níz.

Presidentak. – Ene agiantza guziak, Florenza.

Florenzak. – Jeronimorekin ezkontzen níz, mutiko gazte horrekin. Elgar entzuten dugu. Elgarri gustatzen gira. Zorionean izanen.

Presidentak. – Hala gerta daite.

Florenzak. – Nola zatan gustatu? Ene bizian belharrez zuzen sartu delakotz, ene gorputzean, karrika handi huntan, oltzarri bat bezala. Hor gelditu da. Lekuratu. Hortik ekhentzeko arrazoinik ez tut batere... Zalduneriako koronel batzu badira horrela obuz ezkal batekin bihotzean bizi direnak. Arnoaren erausteko sotoan gurtzetik begiratzen badira, ehun urtekoak bilakatzen dira. Jestu sobera eginen ez tuala hitzemaiten dautzut... Jeronimo xoragarri dela gaineratu gabe!...

Presidentak. – Hala da.

Florenzak. – Bizian zer ari den? Ezta segurki nekean izanen. Trebea da, badu antzea, jeinua. Bizian atherako da Xinako buru-hauskarri batetik egiten den bezala, eskuez. Mekanikerian eta eletrikan, badu ethorkizuna. Eztuzu aski ezagutzen. Baina nik, nizan ezjakina, sendi dut badirela behereko mundu huntan leinuru batzu, eletrikako jauzte batzu, urtze batzu,

baren beha baizik eztaudenak. Jeus guti da, baina sua asmatua ukanen zutenarik da.

Presidentak. – Nehoiz ezta berantegi...

Florenzak. – Nola bildu nauen? Ezta hori gazte delakotz. Nor nahi gazte izaiten ahal da, gazte guziak. Baina aitzinean zu baino zaharrago ziren itxura andana bati bere adinaren emaitako antzea badu, oinazeari, jateko gurari, atseginari. Larru frexkoarekilako herioa, biziki goxagarri da...

Presidentak. – Gutiagorekin ere norbait bil laiteke...

Beraz?

Florenzak. – Beraz ezkontza hortan sartu nahi dut harendako gai... Izaite garbi bat da. Axolez, orhoitzapenez garbi da. Adinez garbi. Eztu maleta bat baizik. Euria dela erraiteko, maite duela erraiteko hitz bat baizik. Parzifalen izena gotorxko da harendako. Baina ondarkinik, ligarik gabeko norbait da. Dotez eztauzkot iraganeko gauzak ekharri behar. Eniz gogoetaz mintzo, sendimenduez. Horiak bortxaz hartu behar dira bada... Nahiz hark eztituen hartu... Ez eta ere hatzik, orbainik, hiltzeko eritasunik... Nahiz bat ezituen...

Baina gauza batzu...

Presidentak. – Entzuten nagozu...

Florenzak. – Gutarik dudazkoa lizatekeen guziaren urruntzea zor daukot, gezurrez baizik argi enezakeen guziaren.

Presidentak. – Nehoiz ezpaitaukozu gezurrik erranen?

Florenzak. – Ene orde z bizia gezurrez ari zako, enekin ikustekorik baduen guzian. Eztut oroz gainetik hortan sartu behar!

Presidentak. – Hots, haren orde z bekaizti zira, hura eztelakotz hala, edo hala izanen den artean?

Florenzak. – Nahi baduzu... Ene iraganeko gauza guziak, baztertzen ditut beraz. Hetarik ukanak ditutaner itzultzen dezteet... Horra hemen...

Presidentak. – Horra zer?

Florenzak. – Zure joiak... Barkatu... Ene joiak.

Presidentak. – Emanak dauzkitzutan joiak?

Florenzak. – Eztut zure ganik baizik ukan.

Presidentak. – Ezin hobeki! Zure jitoak zuzen ikusia zuen... Horra hor lehenbiziko aldian ikusia zinindutan bezala, Florenza, bi eskuak hutsik.

Florenzak. – Ba. Guzia hutsa da. Lephoea. Ukharaiak. Papoa.

Presidentak. – Zer egin behar dut horietaz?

Florenzak. – Bada hutsa den esku ainitz behereko mundu huntan.

Presidentak. – Emaztendako joiak haien haragiaren haragia, phintzak, handitsuak bilakatzen zirela sinestera ekharria nintzan... Horrek eztautzu jeus egiten?

Florenzak. – Neure haragiko haragiaren atheratzeak? Ez. Gehiago jeus ez.

Presidentak. – Ezin hobeki!... Galduko ditut segurki.

Florenzak. – Asuratuak dira.

Presidentak. – Halabeharrari ordaindu nahi daukozun sari bat dea? Onhartuko duela ezta errana. Erhaztunak zure arrainen barnean aurkitzen badituzu, jakinen duzu zer erran nahi duen horrek.

Florenzak. – Jeronimoren etxean otharraina konserbukoa da.

Presidentak. – Utz zinitzan aski zen. Urera botatzen ahal zinituen.

Florenzak. – Mundua nora loake, emaztek joiien aldera dituzten eginbideak ahazten balituzte!

Presidentak. – Bertze batzuer eman...

Florenzak. – Orduan, zu zintutan enganatzen.

Presidentak. – Mingarri da aldi bakar hoinbertze urtaburu, hoinbertze argien berraurkitzea.

Florenzak. – Arrats oroz berraurkitzen nituen. Bizkarrez Jeronimori, tiranta xoko batean behatzen nauen. Hori etzata gehiago haizu.

Presidentak. – Zaku batean, zaku bakar batean. Hexur harrabots bat bada barne hortan.

Florenzak. – Higi etzazkizula. Entzuna dut.

Presidentak. – Etzitu gibel-arazi zure buruari erraiteak: “sakela eskunean ene joia guziekin sartuko da etxera”?

Florenzak. – Hil baninz, eremaiten nituen axolatu gabe. Baina eniz hil. Jeronimo bizi da.

Presidentak. – Gogor da. Eta phizu. Ene soinak hemendik goiti ezin urtuzko gauza bat ukanen du. Diamanta ezeztatzen duen urik ezta... Ezta gozagarri... Zer eginen duzun badakizu, Florenza, orai eni emanak dauztazularik? Berriz hartuko.

Florenzak. – Enauzu hartzen.

Presidentak. – Biziki ontsa hartzen zitut. Zure botuen egiten ari zira. Han borondaterik, libertaterik ezten eremuan sartzen zira. Joiak athean ere emaiten dira. Harri baliosek badute argiaren hartzeko bere molde bat, zeru hunen azpian, maite denaren aldera tradimendu bat dena ageriki... Baina etzitut baiesten.

Florenzak. – Jeronimori buruz azkar izan nahi dut.

Presidentak. – Bide gaixtoa. Zure harmak uzten dituzu. Broxa da erredolatik emaztekier gelditzen zaizuen guzia, erhaztuna mazotik. Gizonekin buluzirik gudukatu nahi duten emaztek irabazteko esperanzarik batere ez tute.

Florenzak. – Jadanik galdua dut.

Presidentak. – Konzienziarik eztuzu gehiago. Zure soina, eztezagun aipha. Jeronimoren aitzinean izaiteko baizik ezapaliz, hexur bat behar duzu: segeretu bat, balioa duen zerbait.

Florenzak. – Bat badut: maite zitut.

Presidentak. – Horrek nora zeramatzan ikusten duzu. Hori duzu utzi behar. Zure baitan egina dutan sendikor den guzia itzul ezatazu, nahi baduzu, itzul ene mintzara, Jeronimok dion bezala, itzul ene musika. Neure burua itzul ezatazu. Nik, gaur, nitaz zer eginen dutan eztakit sobera, baina hori ene egitekoa da.

Zozoagoko batzuez baliatu niz ... Ene aingeruek eta nihaurek, etzitugu gehiago Jeronimoren aldera ahul, esklabo, indarrrik gabe baizik egiten ahal. Ezkaitzazula gehiago ikus. Baina hari ihes egiteko, zure axolagabearen salbatzeko, ez pairatzeko bide guti horiek badituzu, zure joiak baitira. Etzazkitazula itzul.

Florenzak. – Eztute Jeronimo maite. Enganatzen dute.

Presidentak. – Dudarik batere gabe. Hortan bakarrak dira. Ihardokitzen daukon eta enganatzen duen zure baitako zati bakarra da. Beha zeezu. Eztira amor emaitekotan, zaku batean ere... Zure soinean bezain eder dira. Oi Florenza, harri horiekin sendimendu egiten duzula eztut hartzen. Zure baitako zati axolagabeak dira, zati erdainariak, zati sendimendu gabeak... Soberakinik eztuzu. Ihes egitera utz etzazkizula!... Harrazu kortxet hau. Diamanta da. Sorgortasuna bera.

Florenzak. – Burkide berezi bat baldin badu Jeronimok, diamanta da.

Presidentak. – Biziki ontsa... Ene khutxa azkarrean hetsiko ditut. Gogoz ekharri nahiko dituzun egunak izanen dira behar bada. Ordain-khondu osoarekin ezarriko ahal dituzu.

Florenzak. – Gogoan beti bat ukanen dut.

Presidentak. – Perla?

Florenzak. – Ba, lehenbizikoa.

Presidentak. – Horra...

Florenzak. – Aix-en emana zinautan. Bazen ezki handi bat, larrazken hartan.

Presidentak. – Ezkinen oraino adixkidetuak. Bazen ere gaztenondo handi bat.

Florenzak. – Hamar egunez jin zira errespetuki ene mahian jartzera zabalzan. Hamekagarrenean, ethorri orduko, eskua hartu dautazu. Itzuli duzu, ahurraz airera. Kuxku moldean ezarri duzu, uste nuen sos bat ezarriko zinuela. Ez... Eta perla sortu da.

Presidentak. – Hotelzaina erotua zen.

Florenzak. – Arrazoin zuen. Frantxoa zen. Zaintzen ninduen. Miresten. Eta bapatez ene ezkerreko eskuan perla hori ikusi zuen. Segur zen bortz minuta lehenago etzela han. Botoila ekharria zuen eni “andereñoa” erranez. “Anderea” erranez zerbitzatu zuen.

Presidentak. – Hainbertze nintzan hunkia nun zure aitzinean eman behar ukana bainuen eskuna eta ezkerre zein zinituen gogoan hartzeko.

Florenzak. – Gehiago eztugu hitzik erran. Eskaintza betegina zen. Elgar ez ezagutuen arteko eskaintza, elgar ezagutu mutuenaa.

Presidentak. – Eta abantzu berehala abiatu zira, ezkerreko eskularria berriz oneski ezarriz salaren iragaiteko. Frantxua eta ni baizik ezkinen orkatz larru-pean trumbilo ttipiaren ikusteko. Bihotza heraturan, ikusten zintutan itzaltzen, nitarik abantzu haur beharretan, perla batez beharretan.

Florenzak. – Atxikiko dut, hori... Hainbat gaixto Frantxuarendako. Hainbat gaixto Jeronimorendako. Onhartzen duzu...

Presidentak. – Emazte xoragarria, perla bera bi aldiz eskaintzen zaikona...

Florenzak. – Zergatik nauzu joiaz horrela estali?

Presidentak. - Hantureriaz. Bakoitzak bere burua ahal bezala ordaintzen du.

Florenzak. – Zure aitzinatzetako aroa zen. Zu itzul beha nindagon antsiarekin, herria, mundua zer bilakatzen ari zen jakiteko. Esmeralda bat ekhartzen zinautan.

Presidentak. – Egun guzian erabilia nuen esmeralda bat, nihauren kontra, ene tirrien, ene haserren kontra erabilia nuena, Jeronimoren kontra eginen duzun bezala. Bilkuretan, sakelan nuen. Horra! Zenbat asaldatzeren garhaitzen enauen lagundu! Errexegia, eskuzabalegia izaitetz erasiatzen ninduten. – Zer du ona izaiteko? zioten etsaiek. – Zer du ahula izaiteko? zioten Frantzesek. – Zuzena izaiteko zer du ? zioten

alderdigabekoek. Banuen, nerekin nuela zure esmeralda. Bertzek bazuten herrazko, edo herrikeriazko, edo abantail-nahiko pilota bat. Nik, enuen gehiago gogoeta bat ere ukan nahi, higo bat banuen. Banituen haren egia, garbitasuna, zuzentasun osoa. Sakelan hunkitzen nuen. Bihi bakarreko arrosario bat zen. Adixkide 'ta etsai desafiatzen nituen, ene karatezko phizu guziaz... Harroka bat da! zion nitaz bilzarreak... Horra harroka...

Florenzak. – Nitaz gogatzeta etzen aski izanen?

Presidentak. – Ezta maitasunarekin zaintzen. Ezta nor bere buruarekin zaintzen. Bere guduetara emaiten den Estatuko gizona, bere khonduko pairatu, dudatu, edo maitatu nahi lukeen elhaberrilaria bezain hutsala da. Enuxent bat edo urguluntzi bat. Egiazko oinazea ezta ontsa ezagutzen, bere egiazko herria ezta nehork ontsa zaintzen gudari sariztatu bezala baizik, bere baitan nork bere bihotza bihotz sendikaitz batez, sari batez ordainduz baizik. Enintzan bakarrik. Ene auzo Alemanak eskuan itzulikatzen zuen ezpelezko arraultzea bezalako bat. Horrekin, Alemania berriz josi du. Eta zoriondun, horri bezala, urrikirik gabeko sariak gudu arratsean, orhoitza urrikalkor bat berriz emaiten zauenak. Bilkuraren ondotik, Alemanak nora laster egiten zuen, bere arraultzearekin, hori eztatit. Nik ene zorionera laster egiten nuen, zure gana... Eskuneko eskuan ezartzen dut, eztea hala?

Florenzak. – Arrats hartan, eskunean ezarri duzu.

Presidentak. – Horra ene galtze handieneko egunean nuen hargorria. Eztautazu ezetsiko! Ordaintza bat hartze du. Orhoit niz bilkura aitzinean gambaran so egin daukotala, untxia noiztenka ideki, zigarreta untxi bat bezala, eztabada betean. Eztut pipatzen, eztut presarik hartzen, bilkuran untxien idekitzeko dretxoa badut bada. Versailles-ko iguzkia, Genebakoa zein aberatsa zen harri-mozte holandres hortan zehar iraganik! Ukharaiakoa erhaztunarekin doa, Florenza. Kortxeta ere.

Emazte gazte pollit bat sartua da, nehorik ikusi gabe. Bapatez jalgia da. Bere lekuan dago xutik, malguki bigituaz.

Florenzak. – Zer nahi du, horrek?

Presidentak. – Beti emazte pollit bat jalgitzen da joiak airera higitzen direnean. Uste dut horien itxurapena dela. Lanjerrik gabe da.

Florenzak. – Pollita da.

Presidentak. – Gutiagorekin bat hala lizateke. Erhaztun-erhian duzu ezartzen urdina?

Florenzak. – Ez Klaude, hisi etzaitela. Urdinik eztut nahi. Hura dut hautesten!

Presidentak. – Horren itxurak so egiten dautzu. Eztuzu jendearen aitzinean laidoztatuko? Zein erhitan?

Florenzak. – Erdikoan... Irriñotan ari da!... Hartzen du!... Nitaz trufatzen da!

Presidentak. – Urdin-nabarra?

Florenzak. – Urdin-nabarra eztut nahi.

Presidentak. – Erhi-ttipian, eztea hala?...

Andere joiak itxurak. – Erhi-ttipiak, jakina den bezala, zama phizuenak hobekienik jasaiten dituztenak dira.

Florenzak. – Egiten duzuna gaizki da, Klaude. Enauzu estimatzen. Neure burua estima dezatan eztuzu nahi. Egintza ederra, Zuediarrer zaingoako gure billeten, Alemaniari Stresaren onharr-araztea jakin duenarendako, harri baliosen hartzera emazte baten bortxatzea! Zuhauri kuraia gabekoa nizala phorogatzera atxikia zira, nihauri ere. Zure konsolamendua izanen da. Eztuzu behar bada konsolatua izaiteko beharrik. Emazte baten aphaintzea, onhartzen eztuenarekin ere, gizonkiaren jokoa da.

Presidentak. – Arrazoin dut.

Florenzak. – Biziki ontsa. Berriz hartzen ditut. Hartzen ditut guziak. Eztitut iretsi behar, ere, gehiago nihauren zati izan daiten? Jeronimoren contra gerizatuko naute. Ezetsi ahalko daukot bederen neure baitan ni eztena ... Zainduko naute ere

zure kontra. Oroz gainera zure kontra. Ene ezkont-egunean nola hautesten nauzun erranen daute. Osoki ogengabea, gezurrarekin. Xuriz jantziko niz, dirdira bizira horien bulzatzeko.

Presidentak. – Ontsa. Berriz emazkitatzu.

Florenzak. – Ez. Ez! Atxikitzen ditut! Bertzerik eztuzu zuhaurekin, behar bada?

Presidentak. – Ondikotz ba, Florenza! Ene jitoak ere etzuen huts egiten. San-Bruno da, egun.

Florenzak. – Ene besta? Jelostua nintzan. Goiz huntan bestak ene inguruan ufatzen du.

Presidentak. – Jeronimo ezkontzen zinuela enakien. Lepho ingurukoa nehoiz eztautzut eman... Ekhartzen nuen.

Florenzak. – Zein ederra den!

Lepho ingurukoa ezartzen du. Jaien itxurako anderea hurbildu da.

Presidentak. – Zerbait nahi duzu, Anderea?

Andreak.- Nik? Jeus ez. Aroa eder da. Hats-hartzen dut...

Bitorrek. – Mutiko gaztea seinalatua da, Jaun Presidenta.

Khutzazainak. – Soropiletan zehar heldu da. Tigre ‘ta Bismarck, gure zakur laztagarriak, jauztekatzen zazko inguruan. Zein itxura ezta duen: erle bat hiltzen du! Zein arina: liliak lehertzen ditu!

Florenzak. – Utz dezagun gure harmeria.

Joia guztiak xaku ttipian bilduak ditu.

Andreak, *Presidentari*. – Haizeño izpi hau ere ezin goxoago da...

Presidentak. – Ezin goxoago. Ezin goxoago erran daiteke. Bi moldeak erabiltzen dira.

Anderea urruntzen da.

Florenzak. – Eztuzu beraz gudukatzen, ez?

Presidentak. – Ez, Florenza. Eniz heinean.

Florenzak. – Zenbat oinaze dutan ikusten duzu, zenbat ukan dutan...

Presidentak. – Eta zenbat ukanen duzun.

Florenzak. – Maitatu nauzu! Maite nauzu!

Presidentak. – Zenbatetarano erranen nautzula uste nuen egun. Aldi gaixtoa!...

Florenzak. – Eta etzira entseatzen?

Presidentak. – Entsea nadin nahi duzu zinez?

Florenzak. – Othoi-othoizten zitut!

Presidentak. – Jeronimo ethor dadin sarri eta aurki etzaizan?

Florenzak. – Urrun joanen gira. Deliberatzerik gabe da. Trein baten hartzeko behar ditu bi egun. Goazen nora jakin gabe. Ahal bezala biziko gira: baditut ene joiak.

Presidentak. – Ez... Zoririk ez tut. Garhailen ezagutzen badakien bakarra niz European.

Khutzazainak. – Ur erreken gainetik jauzika heldu da. Ezpainak gorrindolazko hari bat bezala ditu. Arrosen usnatzen ari da. Ho! Xixtatu da!

Florenzak. – Ederra da behar bada, baina ez tut ikusten. Ona da behar bada, baina haren onezia ez tut ikusten. Eskuzabala da behar bada, haren ganik jeus ez tut ukaiten. Ereman nezazu, Klaude!

Bitorrek. – Hark hitz bat, eta zakurrak ez titzen dira. Jestu bat, eta xoriak jiten!

Florenzak. – Ogia maite dut, eta haren sakelek ez tute nehoiz phorroxkarik baizik eduki. Zergatik enauzu sinesten, Klaude? Zergatik?

Presidentak. – Etzirelakotz gehiago zu mintzo. Deitoratzea da berriz hasten.

Florenzak. – Ene eresia, duzu erran nahi?

Presidentak. – Ba. Zure kantua. Entzuten dut. Ederra da. Bere arrazoina bere baitan du. Eroa zinzateke egun hunara kantatzeaz bertze zerbaiten egiteko jina zirela uste bazinu.

Florenzak. – Enauzu sinesten!

Presidentak. – Nola jakin ordu huntan deitoratzen ari zirenez ala gozatasunez oihuka!

Florenzak. – Etzira beraz bekaizti! Hura bezala zira beraz!

Khutzazainak. – Ureztatzeko itzulikaria doi-doia hunkitzen du 'ta ur guziak jalgitzen dira.

Florenzak. – Etxe hunek zoria badu. Enetako, diragan lekuan, belarra eihartua da. Hunkitzen nau eta nitan guzia idor bilakatzen da. Ene joiak? Ene joiez zer eginen duen ikusiko duzu. Ez ehoiz ikusiko dituelakotz! Nihaurekin atxikiko ahal nituen. San Sebastianen gainean geziak elezazke ikus. Iragaiten jo lezazke, “barkatu” erraitea gogoratu gabe, dardaran dauden bitartean. Ene joiendako, hitz bat erranen du, ideia bat ukanen, bapatez hits bilakatuko dauztana, falsu, ezin baliagarri.

Presidentak. – Ezti zaite. Heldu da.

Khutzazainak. – Heldu da.

Florenzak. – Bai, Anderea, entzuten zitut. Ezpainak gorrindolazko hari bat bezala ditu. Ahoa xoragarria. Heldu da. Mendixkak inguruan otso-zakur batzu bezala jauztekatzen zazko!... Hea “prest” nizanez galdeginen dauta. Haren hitz bakarra da. Aldi oroz jauzi bat egiten dut. Galdegin beharko daukot egun batez zertarako... Lo gabeko gau batera prest nizanez, laneko mahi erabilgarriari lotuak diren minuteekin, ene betiereko hortzetako brozari, zuri esker, ahalgeari! Besoetan har nezazu, Klaude! Zure besoetan aurki nezan!

Presidentak. – Nahi duzu?

Bitorrek. – Hemen da.

Florenzak. – Utz nezazu, Klaude.

Khutzazainak. – Hemen da. Xixtuz ari da.

Florenzak. – Biziki ontsa. Ezpaineko arraildura hobeki doako!

AGERRALDI VII

FLORENZA, PRESIDENTA, JERONIMO

Jeronimok. – Prest hiz, Florenza?

Florenzak. – Prest.

Jeronimok. – Florenzak erran behar zuen guzia errana dautzu, Jaun Presidenta?

Presidentak. – Hutsik gabe.

Jeronimok. – Etzaiztela jena. Ene aitzinean jarraikazue, loriatuko niz. Florenza bere zinezko mintzaran entzunen dut azkenean. Eguraldiaz eta iguzkiaz baizik ari ezpazinezte ere.

Presidentak. – Gai hori ere agorturik izana da.

Florenzak. – Presidenta apur bat presan da, Jeronimo.

Jeronimok. – Minuta bat eskatzen daukot bizkitartean. Eztauta eza emanen, berria berak ikasia dautanaz geroz...

Florenzak. – Zein berri?

Jeronimok. – Florenza, hire besta dun egun. Saint-Cloud-erano laster egin dinat. Erhaztun hau aurkitu.

Florenzak. – Erhaztun bat?

Jeronimok. – Zirkon bat da. Ezta gotorra. Ttipi-ttipia da ere. Baina falsua denaz geroz, eztu muntarik. Hobe aldiz.

Joien itxurako emazteak. – Hobe.

Ageri-agerian urruntzen da.

Jeronimok. – Zirkon bermoldatu gotor baten emaita, halako irri egiteko bat zen, eztea hala, Jaun Presidenta?

Presidentak. – Xedea da guzia.

Jeronimok. – Xedea, hori da. Zinezko xede bat zirkon falsu batekin.

Joien itxurako emazteak. – Andereak hortan irabazten du.

Badoa alde bat.

Jeronimok. – Azkarra da, hasteko. Eta arina. Joiagileak dio gau eta egun ekhar daitekeela, horrekin eskuak ikhuz

daitezkeela, potazaz azkar den sabon angelesaz ere. Aspergarria, ozena dela da. Mailadietako eskupekoen, basoen, azieten kontra, erran dauta joiegileak, joiten du. Beharrik ttipia da, maitea. Zirkon gotor batekin, elaitake gehiago elgar entzun.

Florenzak. – Eskerrak, Jeronimo.

Jeronimok. – Esker ezan Presidenta. Hunena dun ideia. Prest hiz, Florenza?

Florenzak. – Zertarako, Jeronimo?

Jeronimok. – Galdegiten daunat prest hizanez.

Florenzak. – Prest niz.

Jeronimok. – Beraz, erran goraintzi.

Florenzak. – Goraintzi, Jaun Presidenta.

Presidentak. – Goraintzi, Florenza;

Florenza gibelera jiten da.

Florenzak. – Oi, barkamendu, zure zakua baneraman.

Zakua emaiten danko berriz Presidentari.

Jeronimok. – Xoriburua! Dena hor da.

AGERRALDI VIII

PRESIDENTA, OSTATUKO ZERBITZARIAK, BERIBILZAINA

Bitorrek. – Zure ordez, berriz entsea nezake, Jaun Presidenta.

Presidentak. – Berriz zer entsea zinezake, Bitor?

Bitorrek. – Jeronimori Florenza andereñoaren berriz hartzea. Ezta ezin egin.

Presidentak. – Ha! Entzun duzu?

Bitorrek. – Guziek entzuna dute. Bigarren mahia ozena dela zuri erraitea ahatzi dut. Entzuteko bertze buruko Hamekarekin doa ere. Florenza andereñoa ezarriko ahal zinuen Hamekan, eta zuhaur Bian egonen, hitz bat etzuen galduko.

Presidentak. – Horrela biziki ontsa zen.

Bittorrek. – Guziak zure alde dira hemen. Ostatuzaina barne. Egia da hura zure kargu izenaren gatik dela.

Ostatuzainak, *hurbildu baita*. – Oi! Barkatu! Jaun Presidentari zer zor daukotan badakit. Haren alde ezpanintz, ixilixilik nagoke: hori da ostatuzainen egia. Haren alde niz. Emaztea banintz, Jeronimo bertan utz nezake. Jaun Presidentaren besoetara egotz nezake neure burua! Hark nahi ala ez han lot naiteke! Enindezakete handik athera!

Presidentak. – Zorigaitzez, ostatuzaina, etzira emaztea.

Khutzazainak. – Ostatuzain guziak bezala zira bada. Jabe izaitean sinestea baduzu, maitasunean eztelarik hor izaitea baizik.

Presidentak. – Eta indarra, ostatuzain. Jeronimo da azkarrena.

Ostatuzainak. – Adimendua, boterea, onezia, harmak dira alta, horiek!

Presidentak. – Ondikotz, ez, ostatuzain! Hornimenduetako ibilara da hori. Ezta ere ahulago den harma bat baizik: jeinua.

Khutzazainak. – Zangoak erroetan hartzen ditu eta ezta erortzen. Iguzkia begitarte betean du eta eztu bekainik higitzen ere.

Presidentak. – Besarkatzen du?

Bittorrek. – Ez.

Ostatuzainak. – Beraz, andereak du besarkatzen.

Khutzazainak. – Zergatik diozu hori? Burua bi eskuetan hartua dauko, ahoa haren ahoaren ondoan ezarria, izan daiteke eztela batere besarkatzeko.

Presidentak. – Ikhatz ilhaun baten ufatzeko dela izan daiteke.

Khutzazainak. – Baserria hortaz betea da... (*Beribilzain batekin heldu den ostatu mutilari.*) Zer nahi duk, hik?

Ostatu mutilak. – Konseiluko Presidentaren beribilzaina da zure galdez, Jaun Presidenta.

Presidentak. – Ha! hi hiz, Laurenz? Noren bila habil?

Beribilzainak. – Zure, Jaun Presidenta. Jaun Presidentak manatu dautu hatzeman zaitzatan, nun ere ziren, eta haren gana ereman. Beribilak ahal duen bezain laster. Irriz erran du Errepublikaren salbatzekotan zela.

Presidentak. – Zuzen-zuzena erortzen da. Banoa berehala.

Beribilera joaiten da, ostatuko jendek lagundurik, lore taloien artetik.

ERRIDAUA.

*

**

*

Bertolt BRECHT*Ama Karrarren eskopetak*

JOKARIAK

THEREZA KARRAR, arraintzari baten emaztea.

KOXE, haren semea, 15 urte.

LANGILEA, haren anaia.

ERRETORA.

ANDRE PEREZ ZAHARRA, auzo bat.

MANUELA, Joanes Therezaren seme zaharrenaren adixkidea.

ZAURITU BAT.

ARRAINTZARI LEHENA.

ARRAINTZARI BIGARRENA.

ARRAINTZARI EMAZTE BATZU.

HAUR BATZU.

1937-ko jorraileko gau batez, Andaluzian itsas-bazterreko arraintzari herri batean. Gisu^z xuritu barne bateko zokoan, gurutz^e beltz handi bat. Berrogei bat urteko arraintzari emazte bat, Thereza Karrar, ogi erretzen ari da. Leibo idekiaren ait^zinean Koxe 15 urteko haren semeak zur mutur bat ari du ganibetaz mozt^en ebundegiko tuta baten egiteko. Urrunean, kanoikada bat entzuten da.

Amak. – Joanesen untzixka ikusten duka beti?

Mutiko gazteak. – Ba.

Amak. – Girisailua argitan dik beti?

Mutiko gazteak. – Ba.

Amak. – Bertze untzixkarik batere etzakek batzera ethorri?

Mutiko gazteak. – Ez.

Arte bat.

Amak. – Ustegabetzen nik. Zergatik eztuk ehor bertzerik itsasoan.

Mutiko gazteak. – Ontsa badakizu.

Amak, *kehexurik gabe*. – Galdegiten badiat, eztakitalakotz duk.

Mutiko gazteak. – Joanes salbu, ezta nehor itsasoan, orai arrain hartzetik bertze zerbaitetan ari direlakotz.

Amak. – Ha! uste duk.

Arte bat.

Mutiko gazteak. – Eta Joanes bera elizateke han, hari balagoko.

Amak. – Egia duk. Eztagok hari.

Mutiko gazteak, *bere ziria zaintsukiago moztuz*. – Hori ez!

Amak *orhea laberatzzen du, eskuak ikhuzten eta antolatzerara doan arraintzako sare bat hartzen.*

Mutiko gazteak. – Gose niz.

Amak. – Baina eztuk onhartzen, anaia arraintzara badoakan?

Mutiko gazteak. – Ez, hori nik egin baitezaket, eta Joanesen lekua, gudugunean da.

Amak. – Uste nian joan nahi huela hik ere.

Arte bat.

Mutiko gazteak. – Banago hea janarietilako untziak Angelesen setioaren bortxatzera helduko direnez.

Amak. – Hasteko, ogi hunen ondotik, irinik etzatak gelditzen.

Mutiko gazteak leihoa hesten du.

Amak. – Leihoa zergatik hesten duk?

Mutiko gazteak. – Bederatziak dira.

Amak. – Eta beraz?

Mutiko gazteak. – Bederatzieta, zakur hori irratian mintzatzen da oraino eta Pereztarrek bere posta ibil-araziko dute.

Amak, *mintzo lebiazko batekin*. – Othoi, berehala idekak berriz leiho hori. Hemen argia phiztua delarik, berinako argi motelarekin, jeus eztaitekek ikus.

Mutiko gazteak. – Jarririk hemen zer ari niz, haren guardian? Eztu ihes eginen, badakizu. Bertzela ere, etzira gauza baten beldur baizik, gudugunera abia dadin.

Amak. – Etzakala ausarta egin. Aski zorigaitzeko duk jadanik zuen guardian egoitera bortxatua izan nadin.

Mutiko gazteak. – Zer erran nahi du “zuen” horrek?

Amak. – Hik eztuk anaiak baino gehiago balio. Gaizkiago hintzatekek izaitekotz.

Mutiko gazteak. – Guretako bakarrik dute bere posta ibil-arazten. Hirur arrats badu jadanik. Atzo ikusiak ditut espesuki leihoaren idekitzen, bere irriaren entzutera gure bortxatzeko.

Amak. – Mintzaldi horiek eta Balenziatik entzuten direnak, berdin-berdina duk.

Mutiko gazteak. – Hauk hobeak direla errazu berehala.

Amak. – Badakik ontsa eztiatala hobeak aurkitzen. Zergatik nahi duk jeneralen alde izan nadin? Odol ixurtze guzien kontra nuk.

Mutiko gazteak. – Eta nor da hasi? Gu behar bada?

Amak eztu ihardesten. Mutiko gazteak leiboa berriz idekia du. Urrunean, irratiko posta bat entzuten da erraiten: “Beha! Beha! Haren Hobetasun Queipo de Llano jenerala mintzo zaizue.” Gero kampotik mintzo bat heldu da, gora eta zorrotz, jeneral-mintzariarena arrats oroz bezala Espainiako jendeari belez.

Jeneralaren mintzoak. – Egun hauetarik batez, adixkideak, beharko dautzuegu seriocki mintzatu. Eta Madrildik dugu eginen. Baina izan daiteke orduan Madrilek eztuela osoki Madril iduriko. Eta Cantorberry-ko Jaun Arxapezpikuak ukanen du bere korkodil nigarren ixurtzeko arrazoin zenbait. Gure soldado Mairu bihoztunek ere khondu batzuen xuritzeko bat.

Mutiko gazteak. – Urdea!

Jeneralaren mintzoak. – Adixikideak, Imperio Britaniarra dela dionak, oin ahulekilako botere izigarri horrek, ezkitu jendalde bihurri horren ezeztatetik trabatuko, nazioneko alderdiari ihardokitzeko ausartzia baitu. Zirtzileria hori lurraren gainetik jatsaz garbituko dugu.

Mutiko gazteak. – Ama, zirtzileria hori, gu gira.

Amak. – Ezkituk iraultzalariak eta eztiaguk nehoi ihardokitzen. Zuer baizik ezpalagokek, egin etzinezazuela eztiat erraiten. Hi eta hire anaia, errex khexatzen zirezte. Aitatik duzue hori eta zuen ikustea bertzelakoak enikek behar bada maite. Baina orai gertatzen dena eztuk irri egitekoa: haien kanoiak eztituka entzuten? Gu beharrak gituk eta eztituk pobreak gerla batera abiatzen ahal.

Athean joiten da. Sartzen da Pedro Jakeras, langilea, Thereza Karrarren anaia. Luzaz ibilia dela ageri da.

Langileak. – Gauon.

Mutiko gazteak. – Osaba Pedro!

Amak. – Gure etxera zerk ekhartzen hau, Pedro?

Eskua tinkatzen dauko.

Mutiko gazteak. – Motrildik heldu zira, osaba? Nola doa han?

Langileak. – Ho! ez biziki ontsa. Eta zuek hemen, nola zirezte?

Amak, *bere hartan*. – Badoa.

Mutiko gazteak. – Goizean abiatu zirea, handik?

Langileak. – Ba.

Mutiko gazteak. – Badu laur oren oso, eztea hala?

Langileak. – Gehiago; Almeriara doazen iheslez azkarki trabatuak diren biden gatik.

Mutiko gazteak. – Baina Motrilek ihardokitzen du?

Langileak. – Eztakiat egun zer gertatu den. Barda ihardokitzen ginian oraino.

Mutiko gazteak. – Zertako joan zira beraz?

Langileak. – Gauza andana baten beharretan gituk guduguneko. Zueri agur ttipi baten egitera jin behar niala uste ukan diat.

Amak. – Nahi duka baso bat arno? (*Badoa arnoaren bila*)

Ogia eztuk oren erdi baten buruko baizik errea izanen.

Langileak. – Nun da bada Joanes?

Mutiko gazteak. – Arraintzan.

Langileak. – Egia?

Mutiko gazteak. – Haren gauargia hemendik ikus dezakezu, leihotik.

Amak. – Bizi behar da.

Langileak. – Segurki. Karrikaren jaustean mikroko jeneral hori entzun dut. Nor dago hari hemen?

Mutiko gazteak. – Pereztarrak, karrikako bertze aldean bizi dira.

Langileak. – Beti posta ezartzen dutea horrelako gauzen erraiten ari denean?

Mutiko gazteak. – Eztira frankixtak, eztute bere gatik egiten, hori erran nahi baduzu.

Langileak. – Haa?

Amak, *semeari*. – Anaia nun den so egitea gogoan duka beti?

Mutiko gazteak, *leihora gogorik gabe itzuli*. – Etzaitela beldur izan. Ezta urera erori.

Langileak arno pitxerra hartzen du, edaten, eta arrebaren ondoan jartzen da. Saren antolatzen laguntzen du.

Langileak. – Joanesek zer adin du, xuxen?

Amak. – Buruilean hogeita bat urte.

Langileak. – Eta Koxek?

Amak. – Baduka zerbait berezi egiteko alde huntan?

Langileak. – Ez, berezirik jeus.

Amak. – Badik aspaldi ehintzala gure etxera ethorri.

Langileak. – Bi urte.

Amak. – Arroxa nola da?

Langileak. – Bere errematisimekin.

Amak. – Gure ikustera behar bada jinen zineztela uste nian.

Langileak. – Izan daiteke Arrosa apur bat gaitzitua izan dela Karloren ehortzearen gatik.

Ama ixilik.

Langileak. – Bazion jakin-araziko ahal zin aukutela. Hire senarraren ehortzera ethorriko ginela badakin, bada, Thereza.

Amak. – Guzia hain laster izan duk!

Langileak. – Xuxen zer gertatu da?

Ama ixilik.

Mutiko gazteak. – Bala bat birietan.

Langileak, *ustegabetua*. – Nola?

Amak. – Zerk hau ustegabetzen?

Langileak. – Baina, duela bi urte, guzia bakean zen hemen.

Mutiko gazteak. – Ba, baina, Obiedon, jazarraldia izan da.

Langileak. – Baina nola da Karlo Obiedon gertatu?

Amak. – Hara joan duk.

Langileak. – Hemendik?

Mutiko gazteak. – Ba; jazarraldia egunkarietan aiphatua izan delarik.

Amak, *saminki*. – Bertze batzu Ameriketara joaiten diren bezala, karta bakar batean guziaren jokatzeko. Eroek badagiten bezala!

Mutiko gazteak, *zutituz*. – Eroa zela erran nahi duzu?

Hitzik erran gabe, eskuak ikharan, amak sarea bazterrera emaiten du, eta jalgitzen da.

Langileak. – Biziki gogor izan da horrendako, eztea hala?

Mutiko gazteak. – Ba.

Langileak. – Berriz ez haren ikusteaz joa izan da?

Mutiko gazteak. – Berriz ikusi du, hunara itzuli baita. Baina hori da gogorrena izan. Badiduri han, Azturietan, treina batera igan-arazi dutela, nola ezta jakina, xamarraren azpian fortunazko lotura batekin eta abiatu da hunara sartzeko. Treinaz bi aldiz aldatu behar ukan du, eta hunara heltzean hil da, garan. Eta hemen, bapatez, arratsean, athea ideki da 'ta auzoko emazteak sartu dira, itho den bat ekhartzen denean badagiten bezala. Eta harresiaren ondoan lerrokatu dira, hitzik erran gabe, eta bere othoitzen erraiten hasi. Gero estalgi batean ekharri dute eta lurrean ezarri. Eta egun hartarik hasiz da ama elizara joan. Athea errientsari debekatu dauko, - gorria zela baitzakien.

Langileak. – Debota dea zinez, orai?

Mutiko gazteak, *buruaz baietz egiten du*. – Joanesek uste du auzoen erran-merranen gatik zela gehienik, huntaz erraiten zenaren gatik.

Langileak. – Zer erraiten zen bada?

Mutiko gazteak. – Hau zela joaiteko aholkua emana zaukona.

Langileak. – Zinez eman zaukona?

Mutiko gazteak soingainak goititzen ditu. Ama sartzen da, ogia zertan den so egiten du, berriaz jartzen da et bere lanari lotzen.

Amak, *berriaz lagundu nahi duen langileari*. – Utzak bada; arnoa edanez hobeki egin hezake eta atsedeen hartuz, goizik jeikia hizanaz geroz.

Langileak basoa berriaz hartzen du eta mahira itzultzen da.

Amak. – Gaua hemen nahi duka eman?

Langileak. – Ez, astirik biziki ez tinat. Gau huntan sartu behar. Baina apur bat ikuziko nun.

Atheratzen da.

Amak, *Koxeri hurbil dadin kheinu eginez*. – Zertako jina den erran dauka?

Mutiko gazteak. – Ez.

Amak. – Zinez, eztauk erran?

Langilea berriz sartzen da untzi bat eta oihal batekin; ikhuzten da.

Amak. – Eta Lopez zaharrak, beti bizi direa?

Langileak. – Eztun gizona baizik gelditzen. (*Mutiko gazteari:*) Gudugunean direnak, herrian ainitz direa, errak?

Mutiko gazteak. – Badira oraino hemen geldituak direnak.

Langileak. – Gure aldean, katoliko oso-osoak ere hara joanak dituk. Aski ainitz.

Mutiko gazteak. – Hemen ere, zenbaitzu.

Langileak. – Guziek eskopetak badituztea?

Mutiko gazteak. – Ez, ez orok.

Langileak. – Hori duk beharrena. Eskopetak, orai gauza baitezpadakoenak dituk. Eztuzue gehiago, herrian?

Amak, *berehala*. – Ez.

Mutiko gazteak. – Ba. Gordeak dituzten jendeak badituzu. Lursagar batzu balire bezala lurpean sartzen dituzte.

Amak begi ukhaldi bat emaiten dauko semeari.

Langileak. – Ha! ba.

Mutiko gaztea leihotik baztertzen da axolagabe batean eta barnearen zokora lerratzen.

Amak. – Norat hoa?

Mutiko gazteak. – Nehora ez.

Amak. – Leihora itzul hadi.

Mutiko gaztea hisitzen da eta barnearen zokoan gelditzen.

Langileak. – Zer da gertatzen?

Amak. – Zergatik hiz leihotik urruntzen? Ihardets ezak!

Langileak. – Kampoan badea norbait?

Mutiko gazteak, *mintzo erlats batekin*. – Ez.

Haur batzu entzuten dira kampoetik kantuz:

“Joanes Karrar eztoa gudura

Hainbat baitu beldurrak hartua

Kanoiak ere hain izitua
Nun goltxoinpean baitu burua...”

Hirur haur buru agertzen dira leihoartean.

Haurrek. – Huu... huul!

Joaiten dira lasterka.

Amak, *jeikiñ, badoa leihora.* – Hatzemaiten baldin bazituztet, halako zafraldia emaiten dautzuet, nun ipurdiak erreko baitautzue, haurtzarrerria zikina.

Barne aldera itzulirik. – Pereztarrak oraino.

Arte bat.

Langileak. – Errak, Koxe, lehen, kartetan ari hintzan? Jokaldi ttipi batez zer erran hezake?

Ama leihoan jartzzen da. Mutiko gazteak ekhartzen ditu kartak eta jokoan hasten dira.

Langileak. – Beti xikanatzen duk?

Mutiko gazteak, *irriñ.* – Xikanatzen nuena lehen?

Langileak. – Uste diat. Zer nahi den, pikatuko diat. Beraz, guzia haizu, he. Gerlan jukutria guziak on dituk, eztea hala?

Amak behako aieruzko bat emaiten dee.

Mutiko gazteak. – Eztut phorroxkeriarik baizik biltzen.

Langileak. – Aitzinetik erraitea ikustate duk. – Ho! horra nun atheratzen dautakan itzuliko bata. Zer gezurtaria, baina eztuka kharioxko ordaindua? Gotorrenak igorri dituk, eta orai ene itzuli ttipiekin heldu nuk. Ttantto bat enetako, biga eta dena biltzen diat. (*Garbiki irabazten ari da.*) Eta horra! Ausartzia ontsa duk, xeme. Eztuk eskaz, baina eztuk oraino zuhurtziarik aski.

Mutiko gazteak. – Jeus irriskatzen eztuenak, eztu jeus ukaiten.

Amak. – Erran zahar horiek, aitaren ganik daduzkate. Bazion: “Gizon behar bezalako batek gotor jokatzen du.” Eztea egia?

Langileak. – Ba, ba. Gure larrua du jokatzeko. Aldi batez Don Migel Ferrantekoak hiruretan hogeita hamar laborari batean jokatu zituen koronel batekin eta galdu. Hondatua zen, gaizoa. Gainerateko biziko, hamabi mutilekin egin behar ukan zuen... - Baina, horra nun hunek hamarra idorreen jokatzeko duen.

Mutiko gazteak. – Horrela egitera bortxatua nintzan. (*Ttantto bat biltzen du.*) Hori zen ene zori bakarra.

Amak. – Horra nola diren. Hunen aitak, sarea kokatzen zenean, urpera jauzi egiten zian.

Langileak. – Sare ainitz ezpaitzina behar bada.

Amak. – Etzian ere galtzeko bizi ainitz.

Athe aldean gizon bat agertzen da, milizia popularreko jantzian, burua lotua, besoa xarpan.

Amak. – Sar hadi! sar hadi, Paolo!

Zaurituak. – Errana dautazu, Karrar Anderea, loturarendako berriz jiten ahal nintzala.

Amak. – Baina odolak aldean bertze egin du berriz osoki!

Lasterka jalgitzen da.

Langileak. – Hori nun egin duk?

Zaurituak. – Monte Sollube.

Ama itzultzen da zati luzeka urratua duen athrowa batekin. Lotura berregiten du, baina mahian jarriak diren bi gizonak begiez utzi gabe.

Amak. – Baina, berriz ere lanean ari izan hiz.

Zaurituak. – Eskunarekin bakarrik.

Amak. – Behar etzela ontsa errana zitzaikan.

Zaurituak. – Ba ba... Erraiten da gaur guduguneko lerroa aurdikiko dutela. Erresalburik gehiago eztugu. Uste duzua jadanik zilatua ukan dezaketela?

Langileak, *khxu.* – Ez. Eztiat uste. Artilleriaren tirogunea baitezpada lekuz aldatua izanen zian.

Zaurituak. – Ha! zuzen da.

Amak. – Min egiten dauiat? Errak. E nuk erizaina. Ahal bezain eztiki ari nuk.

Mutiko gazteak. – Eztira Madrilen aitzinetik iraganen.

Zaurituak. – Hori ezta jakina.

Mutiko gazteak. – Ba, jakina da.

Zaurituak. – Ongi. Baina, Karrar Anderea, athorra bat osoa urratu duzu berriz ere. Etzen egin behar.

Amak. – Nahi duk hire lotura erhautseko oihal batekin egin dezatan?

Zaurituak. – Baina athorra soberakinik eztuzu.

Amak. – Baditutano, baditiat. Baina hire bertze besoarendako, eztiat aski ukanen.

Zaurituak, *irriz*. – Beraz, bertze aldian, neure burua hobekixago zaindu beharko dut. (*Zutitzen da; langileari*.) Agian eztira iraganen, zakurrak.

Atheratzen da.

Amak. – Ha! beti kanoi hori.

Mutiko gazteak. – Eta gu, bagoaz arraintzara.

Amak. – Zuen bi esku eta bi zangoen oraino ukaitez kontent behar zinukete.

Kampoan kamiun motor harrabots bat entzuten da eta azkartzen ari diren kantu batzu eta gero abultzen. Langilea eta mutiko gaztea leihora burbiltzen dira eta gauan so egiten dute.

Langileak. – Brigada internazionalak dira. Motrilgo gudura igortzen dira orai.

“Thaelmann Brigadaren errepika entzuten da:

“Urrun dut aberria...”

Langileak. – Alemanak dira.

“Marzellesaren” neurri batzu entzuten dira.

Langileak. – Frantzesak.

“Barxabakoa”.

Langileak. – Polonesak.

“Bandiera Rossa”.

Langileak. – Italiarrak.

“*Hold the fort*”.

Langileak. – Angelesak.

“*Los cuatro generales*”.

Langileak. – Eta horra gureak.

Kamiunen eta kantuen barrabotsa iraungi da. Langilea eta mutiko gaztea itzultzen dira mahira.

Langileak. – Gaur da deliberatuko. Orai abiatu behar diat. Koxe, azkena zian.

Amak, *mahira burbilduz*. – Nork irabazi du?

Mutiko gazteak, *burgoiki*. – Horrek.

Amak. – Orduan, ezteat ohe bat antolatzen?

Langileak. – Ez. Joan behar dinat.

Jarririk dago bizkitartean.

Amak. – Arroxa agurtuko duk. Eta errakok ontsa gorromiorik eztezatan atxik. Oraino zer gerta daitekeen eztakiaguk.

Mutiko gazteak. – Bide zati batean lagunduko zitut.

Langileak. – Eztik balio.

Ama, zutik, leihotik beba dago.

Amak. – Joannes ikusi nahiko hukeen?

Langileak. – Nahiko ninan. Baina eztun berehala sartuko, eztea hala?

Amak. – Itsasoan aski urrun da. Arraintzan abantzu lurburuan ari datekek. (*Berriñ barnera itzuliz.*) Bila joan ahal laiteke.

Nexkato gazte bat agertzen da albarzean.

Mutiko gazteak. – Egun on Manuela. (*Abapetik osabari:*) Joanesen adixkidea da, Manuela. Hau ene osaba Pedro.

Nexkato gazteak. – Nun da Joanes?

Amak. – Joanes lanean.

Nexkato gazteak. – Haur ttipien eskolara igorria zintutela uste ukan dugu, kaniketari jostatzera.

Amak. – Ez arraintzara joana da. Joanes arraintzaria da.

Nexkato gazteak. – Zergatik ezta eskolan zen bilzarrera ethorri? Baziren ere arraintzariak.

Mutiko gazteak. – Zer bilzarre mota zen?

Nexkato gazteak. – Deliberatu da hemen baitezpada behar eztiren guziek gudugunera igan behar dutela gaur berean. Baina ontsa bazinakiten zertaz zen. Joanes abisa-arazia dugu.

Mutiko gazteak. – Hori ezin da. Bertzela Joanes etzen gaur arraintzara joanen. Edo beraz, ama, zuri dautzute errana?

Ama ixilik dago, ogi labe barnera beha.

Mutiko gazteak. – Mezua eztauko eman, horra guzia. (*Amari:*) Orai hartzen dut zergatik duzun arraintzara igorri.

Langileak. – Thereza, ehuke hori egin behar.

Amak, *zutituz*. – Jainkoak daue ofizio bat gizoner eman. Ene semea arraintzari da.

Nexkato gazteak. – Guzien irriegitekoak izan gaiten nahi duzu? Nora joan nadin nahi, erhiaz erakutsia niz. Joanesen izenak berak eri ezartzen nau. Baina zer jende mota zirezte?

Amak. – Jende behartu batzu gira.

Nexkato gazteak. – Gobernamentuak harmen hartzera gomiatu ditu laneko on diren gizon guziak. Eztuzuela irakurria erraitera etzaiztela ausart.

Amak. – Irakurria dut. Gobernamentu hunara, gobernamentu horrara. Hildegira igorri nahi daukute, gu karrikara egotzi. Baina, nik, hara semearen eramaiteko, eskorgak har ditzatan, ezta arrazoin aski.

Nexkato gazteak. – Segur ezetz. Nahiago duzu harresiari kontra ezar dezaten igurikatu. Behin ere eztut oraino horrelako zozokeriarik entzun. Zuek bezalako jende batzuen ogena da giren neurri huntan baldin bagira, eta Llano urde horrek badagien bezala mintzatzeko ausartzia badu.

Amak, *abulki*. – Ene etxean horrela mintzatzea ez tinat onhartzen.

Nexkato gazteak, *haserrez*. – Horra jeneralen alde dela orai.

Mutiko gazteak, *apur bat ezin egonean*. – Ez, baina ezkitu gudukatzeraz utzi nahi.

Langileak. – Alderdirik gabe geldi, beraz ?

Amak. – Ene etxeaz jazarletegi bat egin nahi zinuketela badakit. Joannes harresiari contra ezarria ikusiko eztuzuen arteo ezkituzue bakean utziko.

Nexkato gazteak. – Eta erran behar da zutaz badiotela senarra lagundu zinuela, Obiedora abiatu denean !

Amak, *ahapetik*. – Ixil hadi ! Senarra eztinat lagundu. Hortako, ez. Erasiatzen nautela badakinat, baina eztun gezurrik baizik. Gezur zikin batzu bakarrik. Jende guzia lekuko izan ahal dun.

Nexkato gazteak. – Ezta erasia, Andere Karrar, laudorioa da. Erraiten denean, beti errespetu handiarekin da. Herrian baginakien orok Karlo Karrar gizandi bat zela. Baina gaur-egun dakiguna, gudura joaiteko, etxetik gauaz gordeka jalgi behar ukan duela da.

Mutiko gazteak. – Aita eztun etxetik gauaz gordeka jalgi, Manuela.

Amak. – Koxe, ixil hadi.

Nexkato gazteak. – Semeari errakozu gure artekoa hortan geldi dela. Eta eztu gehiago itzuli handi bat egin behar ukanen ikusiko nauenean, zergatik ezten behar lukeen lekuan galdeginen daukotalarik.

Atheratzen da.

Langileak. – Ehuen nexkato hori horrela joaitera utzi behar ukanen. Lehenago ehuen eginen, Thereza.

Amak. – Eruk ordutik aldatua. Beti bera nuk. Baina elgarren artean egin duketek gudugunera igorriko dutelako joko. Bertzela, banoak bila. Edo habil hi izaitekotz, Koxe. Ez, ago, banoak nihaur. Berriz berehala heldu nizaizue.

Atheratzen da.

Mutiko gazteak. – Baldin badoa, Manuela bila joanen zakola uste duelakotz da bakar-bakarrik.

Langileak. – Errak bada, Koxe, ehiz azken urteko xoria hi eta eztuk hiri gauzen luze-luzean argitzeko beharrik. Baina, erratak, nun dituk ?

Mutiko gazteak. – Zer ?

Langileak. – Eskopetak.

Mutiko gazteak. – Aitarenak ?

Langileak. – Hemen ditukek bada. Abiatu denean, eztuk treinara igan ahal izan tresna horiek bizkarrean trebes.

Mutiko gazteak. – Horien bila zirea ethorria ?

Langileak. – He ! Alabaina !

Mutiko gazteak. – Eztitu nehoiz emanen. Gordeak ditu.

Langileak. – Nun ?

Mutiko gazteak erakusten du barnearen zoko bat. Langilea zutitzen da eta hara joan nahi du, urrats batzu entzuten direlarik.

Langileak, *jartzen da lehiatuki.* – Ehadila higi.

Ama sartzen da herriko erretorarekin. Gizon handi azkar bat da, sotana bizkitartean biziki higatua.

Erretorak. – Gau on, Koxe. (*Langilearen gana itzuliz :*)

Gau on.

Amak. – Motrilgo ene anaia da, Jaun Erretora.

Erretorak. – Zure ezagutzeaz zorion dut. (*Amari :*)

Behar dautzut zinez barkamendu galdegin ; zerbitzu baten bila heldu niz oraino. Bihar eguerdi hirian ikusten ahal bazinu zer ari diren Turillo-tarrak. Haurrak orai bakarrik dira : Turillo emaztea senarraren gana gudugunera joana da.

Amak. – Ontsa gogotik. Joanen niz.

Erretorak, *langileari.* – Zerk zabilta gure herrira ?

Erraiten entzun dut Motrildik hunara, bideak biziki neke direla.

Langileak. – Eta hemen, dena oraino geldi da ?

Erretorak. – Nola ? Ha, bai.

Langileak. – Neure baitan egin dut : itzuli bat eginen dut arreba zer bilakatzen den ikusteko.

Erretorak. – Zer bilakatzen den ikustera jitea jendetasun da. Jadanik ohartua zatezke gogor dela harendako.

Langileak. – Zure parropiantak agian osoki askiesten zitu.

Amak. – Harrazu bada baso bat arno. Gurasoak gudugunera joaiten zezteen familietan, erretorak du hurrez artha hartzen. Segur niz egun osoa lasterretan eman duzula oraino.

Arno pitxer bat ekhartzen dauko erretorari.

Erretorak, *jartzzen da eta pitxerra hartzen du.* – Banago bakarrik hea oinetakoak nork ordainduko dauzkitan.

Ordu hartan Pereztarren irratia entzuten da berriz. Ama leihoaren bestera abiatzen da.

Erretorak. – Utzazu bada leihoa idekirik, Andere Karrar. Zure etxean sartzen ikusia naute. Barrikadan zainaldia hartzen eztutalakotz arrangura dute 'ta orduan hitzaldi horietarik bat entzun-arazten dautate noiztenka.

Langileak. – Horrek ainitz jenatzen zitua ?

Erretorak. – Egia erran, bai. Baina lehioa idekirik gostuan utz dezakezu.

Jeneralaren mintzoak. – ... « baina ontsa ezagutzen ditugu jaun horiek egin behar dituzten gezur madarikuak gure alderdiaren, nazioneko alderdiaren zikintzera entseatzeko. Eztu-kegu Canterbury-ko jaun Arxapezpikua Gorriek bezain ontsa ordaintzen, baina, aldiz, hamar mila aphezen izenak eman ginezazkoke, haren adixkide onek zintzurra moztu dauetenenak. Jaun horri erran nahi ginoke – gainera xeka bat emaiten ezpadakogu desenkusatuko gitu – armada nazionalak, bere aitzinatze irabazlean, ediren dituela bada obuz eta eskopeta kargatzekoak metan, baina aphez bat bizirik ez oraino. »

Langileak bere zigarreta paketa eskaintzen dauko erretorari. Erdi-irri batekin aphezak bat hartzen du, nahiz eztuen pipatzen.

Jeneralaren mintzoak. – « Zorionez, gure alderdi zuzenak garhaitzeko eztu Jaun apezpikuen laguntzaren beharrik,

aireko onak aski zaizku. Franco jenerala, Mola jenerala bezalako gizon batzu... »

Emankizuna bapatez moztua da.

Erretorak, *doinu gozo batean*. – Jainkoari esker, Pereztarrek berek eztezakete hirur erranaldi baino gehiago jasan. Ene ustez, mota hortako mintzaldiak eztaitezke ongi onhartuak izan.

Langileak. – Badiote alta Batikanoak berak mota hortako gezurrak hedatzen lituzkeela.

Erretorak. – Eztakit. (*Zorigaitzeko itxura batekin* :) Uste dut eztagola Elizari zuri dena beltz dela erraitea eta alderantziz.

Langileak, *mutiko gazteari so eginez*. – Segurki ez.

Amak, *lebian*. – Anaia milizia popularrean dut.

Erretorak. – Zein herrialdeatarik heldu zira ?

Langileak. – Malagatik.

Erretorak. – Han izigarri da, eza ?

Langileak pipatzen du ibardetsi gabe.

Amak. – Anaiak enau Español on batendako hartzen. Uste du Joanes behar nukeela gudugunera joaitera utzi.

Mutiko gazteak. – Eta nik ere. Gure lekua han da.

Erretorak. – Badakizu, Andere Karrar, neure baitan eta golkoan zure eginara zuzen aurkitzen dutala. Ainitz herrialdetan aphezzeria xehea gobernamentuaren alde da. Bilbaoko hemezortzi parropietarik hamazazpi gobernu errepublikarraren alde mintzatuak dira. Bada aphez andana handia gudugunean. Batzu eroriak dira jadanik. Baina ni eniz batere gudaria. Jainkoak eztauta eman gudukatzera gora eta argiki ene parropialarien deitzeko doinua ... (*hitz baten bila dabil*) edozein alderdiendako. Gure Jaunaren hitzean nago : «Eztuk hilen». Eniz aberatsa. Komentu aberatsik ez tut eta dutan gutia, ene parropialariek in uzitzen dut. Gauza bakarra da behar bada, bizi giren aroan, ene hitzer phizu zenbait eman dezeena.

Langileak. – Segurki. Jakin behar da bakarrik etzirenez zinez gudari bat. Ongi har nezazu. Behazunez : erahila izaitera

doan gizon bat eta bere burua zaindu nahi duena, arrastatzen baldin baduzu erranez : « eztuk hilen », hala nola nun oilasko bati bezala odola egiten ahal baitzako, gudu hortan barne izana zira behar bada hala ere, zure moldean, erran nahi dut. Etzira ene aldera gaitzituko, uste dut, hori erraiten badautzut.

Erretorak. – Oraikotz goseteko niz ari.

Langileak. – Eta zure ustez, nola dugu berriz ukanen othoizten duzun Gure Aitak eman dezaukun egun orotako ogi hori ?

Erretorak. – Eztakit. Egin dezaketan guzia, othoitz egitea da.

Langileak. – Beraz ikasi nahiko duzu atzo, gauaz, Jainkoak gibelera itzul-arazi dituela janariz kargatuak ziren bi untzi.

Mutiko gazteak. – Egia dea ? – Ama, untziak gibelera itzuli dira.

Langileak. – Eta ba. Alderdigabetasuna hori da.

(*Bapatez* :) Eta zu ere, alderditasun gabea zira ?

Erretorak. – Nola entzuten duzu ?

Langileak. – He bada, ez barne sartzearen aldekoa. Eta, ez barne sartzearen alde izanez, onhartzen dituzu ondarrean jeneral jaun horiek egin-arazten dituzten sarraski guziak, Espainiako jendeak baititu jasaiten.

Erretorak, *bi eskuak burura goitituz ezezeko jestu batean*. – Eztitut onhartzen.

Langileak, *begiak erdi-betsirik so egiten dauko*. – Eskuak goiti atxik izkitzu ephe batez. Hori zen, omen, guretarik bortz milek zuten egonara, setiatua zen Badajozko etxetarik jalgi direnean. Egonara hortan dira aurdikiak izan.

Amak. – Pedro, horrelako gauzak nola erraiten ahal dituk ?

Langileak. – Jo naunana hau dun, Thereza : zerbaiten onhartzetik zaintzeko hartzen den egon moldeak gaitzeko egitea badinala amor emaiteko hartzen denarekin. Usu irakurri dinat

hortaz bere eskuak ikhuzten dituztenek odolez zikindu ur batean egiten dituztela. Gero haien eskuetan ontsa ageri dun.

Amak. – Pedro !

Erretorak. – Utzazu bada, Andere Karrar. Gurea bezalako unetan errex berotzen da. Hori guzia iragana izanen denean, eztikiago gogoetatuko dugu berriz.

Langileak. – Baina iduritzen zata lur huntarik xahutuak izan behar dugula, jende bihurri bat girelakotz ?

Erretorak. – Nor da horrela mintzo ?

Langileak. – Mikroko jeneral hori. Duela ephe zenbait eztuzua entzuna ? Zinez eztuzu irratia aski entzuten.

Erretorak, *gutiestez*. – Phu ! jeneral hori...

Langileak. – Ez erran : « Phu ! jeneral hori ». Lurraren gainetik gure xahutzeko, jeneral horrek bildua du Espainiako gaixtagineria guzia, Mairuak, Italiarrak eta Alemanak aipatu gabe.

Amak. – Egia da diruarendako baizik gudukatzen eztiren jende horien ekharr-arazi ukaitea, ahalgetzeko dela.

Erretorak. – Eztuzu uste haraindian ere sinestez gudukatzen diren gogo oneko jendeak izan daitezkeela ?

Langileak. – Sinestea zertan dute ? Hori dut ez ontsa ikusten.

Ephe bat.

Erretorak, *sakelorena hartuz*. – Joan behar dut oraino Turillotarren etxean zer gertatzen den ikustera.

Langileak. – Eztuzu uste Gorteak, gobernamentuak baitzuen han halako gehientasuna, zuzenki hautatuak izanak direla, erregeletan ?

Erretorak. – Ba, uste dut.

Langileak. – Aipatzen nuen, arestian, bere buruaren zaintzen ari zelarik besoa geldi-arazi daukoten gizona. Etzen erraiteko molde bat. Egiazki, eztugu gehiago gure esku hutsez bertzerik...

Amak, *mozten duela*. – Ehadila berriz has. Horrek ezetik arrazoinik.

Erretorak. – Gizonak eskuak hutsik ethorri dira mundura, guziek badakigu. Egileak ezitu amaren altzotik jalgiarazi harma bat ukhablean. Dotrina hori ezagutzen dut, baitio munduko miseria guzia arraintzariet eta langilek – langilea zirena, uste dut – janariaren biltzeko bere besoak baizik eztituztelako ondorioa lizatekeela. Nehon ezta ere Izkirio sainduetan irakurtzen betegintasunezko mundu bat dela. Aldiz, miseriaz, bekatuz eta bortiztasunez betea da. Dohatsu, izan baldin bada, bere zorigaitzeko, lurrera harmarik gabe igorria, mundu hau harmarik eskuan atxiki gabe uzten ahalko duena.

Langileak. – Horra ontsa errana. Eta nik, jeus ez tuten erranaldi ederren kontra. Baina ikustekoa ezta mundu haur nola utzi behar den jakitea ! Nola utziko dugu zutik, beti zango-besoz herrestan ibili baldin bagira ? Zu, diozu, mundura besoak hutsik ethorri zira, baina etzira orai hala. Zure sotana mekanikaz josirik izana da, Esquillo Semen oihal landegian. Zure Jainkoak igortzen daukun erauntsi bakoitzean, gure arraintzako untzixka bi mila urtez zaharrak hondatzen dira. Baina motorrekilako hondasareak portura heltzen. Asmatu diren mekanika eder guzietan, ez titugu gerlako erabiltzen direnak baizik ikusten. Tankaz eta bombardariak lagunduz dute jaun horiek zurezko goldearen eta arraintzako untzixka zaharraren aroa luzatu nahi. Miseria eta bekatua zurezko goldetik eta arraintzako untzixka zaharretik heldu dira, eta hertsatzalek, hek, bombardariak eta burdin-karroak eskuan dituzte. Zergatik eztauko zu Franco jeneralari hel egiten ? Nahi nuke zure mintzaldiak haren baitan ondorio zenbait ukan lezan. Zorigaitza da Franco jeneralak, hortzetarano harmatua den bezala, ez tuela mundu hunen uzteko gutziarik batere erakusten. Ha ! egin baleza bederen, Espainiako harma guziak haren gibeletik bota ginezazke. Oizu, haren airekoek paper bat igortzen daukute, Motrilen egun bidean bildu dutana.

Sakelatik paper bat atheratzen du. Erretora, ama eta mutiko gaztea haren irakurtzen hasten dira.

Mutiko gazteak, *amari*. – Ikusten duzu, guzia suntsituko dutela diote berriz.

Amak, *irakurri*. – Ezin egin dezakete.

Langileak. – Ba. Egin dezakete. Zer diozu hortaz, Jaun Erretora ?

Mutiko gazteak. – Ba.

Erretorak, *duda-mudan*. – Uste dut, teknikaz, egiteko ahalak balituzketela behar bada. Baina Andere Karrar ontsa hartu badut, erran nahi du, haiendako, eztela bakarrik airekoena. Beti mehatxa dezakete, paper horietan, gogoan jendeari izanarak duen larritasunaren harr-arazteko ; baina horrelako mehatxuaren gauzatzea, osoki bertzerik da.

Langileak. – Etzitut biziki ontsa hartzen.

Mutiko gazteak. – Nik ere ez.

Erretorak, *duda-muda gehiagorekin oraino*. – Uste dut argiki mintzatu nizala ?

Langileak. – Zure erranaldiak argi dira, baina gogoan duzuna da ez osoki argi enetako eta Koxerendako. Erran nahi duzua eztutela bombardatuko ?

Ephe labur bat.

Erretorak. – Uste dut mehatxu bat dela.

Langileak. – Gauzatzea jarraikiko etzakona ?

Erretorak. – Ba.

Amak. – Irakurtzen dutanaren araura, nahi dituzte preseski odol ixurtzeak baztertu haien kontra jazar ezkaiten guardian emaitako.

Mutiko gazteak. – Odol ixurtzeak baztertu nahi dituzten jeneralak !

Amak, *paperra hari eskaini*. – Hor izkiriatura duk : harmak behehituko dituen, utziko die.

Langileak. – Orduan, galde bat eginen dautzut oraino, Jaun Erretora : uste duzua harmak behehituko dituen utzia izanen dela ?

Erretorak, *batzeman*, *inguruan behatzen du*. – Badiote Franco jeneralak azpimarratzen duela beti bere girixtinotasuna.

Langileak. – Erran nahi baitu hitzeman atxikiko duela ?

Erretorak, *haserrerekin*. – Behar du atxiki, Jakeras Jauna.

Amak. – Gudukatzen ez tuenari, jeus etzaikioke gerta.

Langileak. – Jaun... (*desenkusatuz*) zure izena eztaikit...

Erretorak. – Frantzisko.

Langileak, *jarraikiz*. - ... Jaun Frantzisko, egiaz, enautzun galdegin nahi Franco jeneralak zer egin behar duen zure ustez, baina zer eginen duen. Hartzen duzu ene galdea ?

Erretorak. – Ba.

Langileak. – Badakusazu galde hau girixtino zirelakotz egiten dautzutala, derragun, nahiago baduzu : berak komenturik ez tuen gizon bati – zuhauren hitzak dira – eta egia erranen duenari, biziaz eta hiltzeaz ari den galde bat. Hortaz gira mintzo, eztea hala ?

Erretorak, *biziki kehen*. – Ontsa entzuten zitut.

Langileak. – Erantzuna behar bada errextuko dautzut, Malagan zer gertatu den gogora-araziz ?

Erretorak. – Zer erran nahi duzun badakit. Baina segur zirea Malagan etzela harmekilako ihardukitzerik ?

Langileak. – Ontsa badakizu berrogei-ta hamar mila zibil ihes joanki – gizon, emazte, haur – garbituak izan direla untzietako kanoiez, Francoren aireko eskadretako mitralluz eta bombez, Malagatik Almeriara diren berrehun eta hogeit hamar kilometretan.

Erretorak. – Berri falsu bat izan laiteke.

Langileak. – Aphez fusilatuena bezala ?

Erretorak. – Hura bezala.

Langileak. – Orduan, berrogei-ta hamar mila zibilak eztira erahilak izan.

Erretora ixilik dago.

Langileak. – Andere Karrarek eta hunen semek eztute eskua Franco jeneralaren kontra goititzen, Andere Karrar eta semeak segurtasunean dira beraz.

Erretorak. – Gizonki goga daitekeenaz...

Langileak. – Beraz ? Gizonki goga daitekeenaz ?

Erretorak, *kehaxatzen hasiz*. – Eztuzu bederen nahi hortaz berme izan nadin ?

Langileak. – Ez. Zinez gogoan duzunaz ari niz bakarrik.

Erretora ixilik dago.

Langileak. – Zure ihardestea entzun dugula uste dut. Gizon zuzena zira.

Erretora, *zutitzen da, durduzatua*. – Beraz, Andere Karrar behako emanen deezu Turillotarren haurrer, zuri nagoke.

Amak, *biziki durduzatua, hura ere*. – Jatera ere ekharriko dauet. Zure ikustaldiaz eskertzen zitut.

Erretorak egiten du buruaz kheinu bat langileari eta mutiko gazteari eta atheratzen da. Amak laguntzen du.

Mutiko gazteak. – He! bada. Gelditu gabe zer errepikatzen daukuten entzun duzu. Baina etzaitela joan eskopetak hartu gabe.

Langileak. – Nun dira ? Laster.

Barnearen zokora buruz abiatzen dira, khexa bat baztertzen dute eta zolako taulak ekbentzen dituzte.

Mutiko gazteak. – Baina berehala berriz heldu da.

Langileak. – Eskopetak kampoan ezarriko ditugu, leihoaren aitzinean. Abiatzean hortik hartuko ditut.

Lebian eskopetak zurezko khexa batetik hartzen dituzte. Inguratzen zituen bandera ttipi lits moztuekilako bat erortzen da.

Mutiko gazteak. – Oizu, lehenagoko bandera tipia da oraino. Ustegabatzen niz nola egon ahal ziren horrela gostuan jarririk, gauzak hoinbertze lehia duenean.

Langileak. – Tresna horiek behar nitian baitezpada.

Biek behatzen dute hea eskopetak on direnez. Mutiko gazteak bapatez buruko bat sakelatik atheratzen du, milizia popularraren burukoa eta irabazteko itxura batekin buruan ezartzen.

Langileak. – Nundik athera duk buruko hori ?

Mutiko gazteak. – Trukatua dut.

Behako herabe bat emaiten du athe aldera eta burukoa berri sakelan ezartzen.

Amak, *berri sartua baita.* – Ezarzkik eskopetak bere lekuan. Hortako hiza jina ?

Langileak. – Ba, behar ditinagu, Thereza. Eztitinagu jeneralak gure esku hutsekin geldiarazi ahalko.

Mutiko gazteak. – Orai badakizu zertan giren. Erretorak berak errana dautzu.

Amak. – Ezpahiz jina eskopeten ukaiteko baizik, gehiago igurikatzea debalde duk. Eta ezpagituzue gure etxetan bakean utzi nahi, haurrak enekin hartzen ditiat eta banoak.

Langileak. – Thereza, gure erresumari behatuko daukona karta batean ? Laur kantoineko azieta batean bezala bizi gitun. Ozka, itsasoa dun, eta azietaren bazterrean, kanoiak lerroan. Eta buruen gainean, bombardariak. Nora joan nahi dun bada ? Ezpadun bederen kanoien ahora jauzi egiten ?

Ama haren gana aitziatzen da, eskopetak hartzen dauzko eta besoetan eremaiten ditu.

Amak. – Eskopetak eztituzue ukanen, Pedro. Ezin duk.

Mutiko gazteak. – Eman behar dauzkozu, ama. Hemen, herdoilduko dira, eta bertzerik ez.

Amak. – Koxe, ixil hadi. Zer adi dezakek, hik ?

Langilea berri jarri da gostura eta zigarreta bat phizten du.

Langileak. – Thereza, eztun Karloren eskopeten atxikitzeke dretxorik.

Amak, *eskopetak oihala ez taliz*. – Dretxo ala ez dretxo : eztauzkitzuet emaiten. Etzaitzekete jin ene zolaren haustera eta nahi ezpadut enea den gauza baten hartzera.

Langileak. – Ezta baitezpada hemen izan behar duen zerbait. Hire semearen aitzinean eztezakenat erran hitaz zer dutan gogoan eta ez tinagun ere hire senarrak gogoan zer lukeen aiphatuko, oraino bizi baliz. Hura guduan izan dun. Uste dinat burua galdu dunala haurrendako heldur izan hizalakotz. Baina, erran gabe doan, ezkitun arrazoin horietan sartzen ahal.

Amak. – Zer erran nahi dik horrek ?

Langileak. – Eskopetarik gabe enunala joanen. Segur izaiten ahal hiz...

Amak. – Lehenik aurdiki beharko nauk orduan.

Langileak. – Eztinat segurki eginen. Enun Franco jenerala. Joanesi mintzatuko nun bakarrik. Eta ukanen ditutala uste dinat.

Amak, *lebiaz*. – Joanes ezta itzuliko.

Langileak. – Baina hihaurek dun deitua.

Amak. – Eztiat deitua, Pedro. Ikus hezan eztiat nahi.

Langileak. - Jelostu nun. Baina mihia badinat, nik ere. Hitz bat aski izanen dun, Thereza : Joanes ezagutzen dinat. Eztun beldurtia. Eztun atxiki ahalko.

Mutiko gazteak. – Ni ere banoa zurekin.

Amak, *biziki gostura*. – Utzikik ene haurrak geldirik, Pedro ! Urkatuko nizala erran deiat, hemendik joaiten badira. Badakiat Jainkoarendako betiereko danazionea ekhartzen duen bekatua dela. Baina bertzerik eztezakeat egin. Karlo hil delarik, dakikan moldez, aphezaren baitara izan nuk, hori gabe orduan urkatuko bainindian. Zatiz bederen ogendun nintzala banakian biziki ontsa, nahiz hura ni baino gaitzago zian bere jite haserretuarekin eta bortizkeriarako ixuriarekin. Gure bizia eztuk arrosa-kolorekoa ez eta jasan errexia. Baina bortizkeria eztuk

atherabide bat. Hori hartu diat Karlo hunara ekharri dautatenean eta lurrean ezarri. E nuk jeneralen alde eta nitaz horrelako gauzaren erraitea ahalgegarri duk. Baina geldirik baldin banagok eta ene haserreak menperatzen baditiat, utziko gitie behar bada. Ene karkula xoila duk. Galdegiten dutana, ikusak, guti duk. Bandera hori eztiat gehiago ikusi nahi. Badiaguk hori gabe zorigaitz aski.

Hitzik gehiago gabe, badoa bandera ttipiaren aldera, hartzen du eta urratzen. Eta berehala gurtzen da, xatiak biltzen ditu eta sakelari ezartzen.

Langileak. – Urkatzea hobe huke, Thereza.

Athean joiten da ; sartzen da Andere Perez, emazte zahar bat beltzez jantzia.

Mutiko gazteak, *langileari*. – Andere Perez zaharra.

Langileak, *erdi ahapetik*. – Zer da familia hori ?

Mutiko gazteak. – Jende on batzu. Irratia ibil-arazten dutenak. Alaba gudugunean eroria dute joan den astean.

Emazte zaharrak. – Badakizu, apheza joan dadin igurikatu dut. Aphur bat ikustera jin nahi nitzazuen ene etzekoen gatik. Erran nahi nautzuen zuen idieien gatik narda zitzataten etzatala zuzen iduritzen.

Amak eztu hitzik erraiten.

Emazte zaharrak, *jarri eta*. – Zure semendako beldur zira, Andere Karrar. Jendeak eztu beti ikusten haurren haztea zein neke den gure demboran. Zazpi egin ditut. (*Erdi itzultzen da nor den errana eztaukoten langilearen aldera.*) Orai, Inesen heriotzearen ondotik, ezta biziki gelditzen. Biek eztituzte bortz urteak iragan ere. Laureten hogeita zortzi eta bederatzietako gosetea zen. Andres, nun den ere eztaikit. Haren azken eskutitza Rio-tik igorria zen. Hego-Ameriketara da. Mariena, hura, Madrilera. Ainitz deitoratzen da. Behinere ezta biziki azkar izan. Guk, zaharrek, uste dugu beti gure ondotik ethorri den guzia eztela osoki guhaur bezain azkarra.

Amak. – Baina Fernando baduzu oraino.

Emazte zaharrak. – Ba.

Amak, *durduzatua*. – Barkatu, etzitut ofensatu nahi ukan.

Emazte zaharrak, *eztiki*. – Etzaitela desenkusa. Enauzula ofensatu nahi ukan badakit.

Mutiko gazteak, *ahapetik langileari*. – Franco-ren alderdian da.

Emazte zaharrak, *sendimendurik erakutsi gabe*. – Fernando eztugu nehoiz aiphatzen. (*Ephe baten ondotik* :) Ikusten duzu, ene familia eztezakezu gogoan hark, Inesen heriotzeaz orok pena handia ukan dugula ezpaduzu gogoan.

Amak. – Guziek ainitz maite ginuen Ines. (*Langileari mintzatu* :) Joanesi irakurtzen ikasia dakek.

Mutiko gazteak. – Eni ere.

Emazte zaharrak. – Aitzinean ditugunen alde zirela diote. Baina nik eztela egia diot beti. Badakigu guk elgarretarik aberats eta behartuen berexten.

Amak. – Ene haurrak soldado izan daiten eztut nahi. Eztira hildegira eramaiten diren abere batzu.

Emazte zaharrak. – Badakizu, Andere Karrar, hau diot beti : behartuendako, biziko asuranzarik ezta. Erran nahi baita molde batez edo bertzez joak direla. Eta joak direnak dira, preseski, behartuak deitzen. Eta behartu horiek, Andere Karrar, duten zuhurtasun guziak eztezazke salba. Ines gure haurretan heraberena izan da beti. Haren senarrak egin behar ukan duen guzia bazinaki hari igerika ikasteko.

Amak. – Oraino bizi izaiten ahal zela uste dut.

Emazte zaharrak. – Baina nola ?

Amak. – Zure alaba, errientsa zelarik, zerk bortxatzen zuen eskopeta baten hartzera eta jeneralen kontra gudukatzera ?

Langileak. – Gure Aita Sanduak diruz lagunduak ere baitira.

Emazte zaharrak. – Errientsa egon nahi zuela erraiten zuen.

Amak. – Eta etzena hala egoiten ahal Malagan, bere eskolan, jeneralek egiten zuten zutenaz axolatu gabe ?

Emazte zaharrak. – Hortaz harekin eztabadatu dugu. Zazpi urtez aitak pipatzea utzia zuen hura errientsa bilaka ahal zadin eta, arte hortan guzian, anaiek eztute esne xortarik ukan. Eta Inesek zion etzezakeela erakats bi eta bi bortz dela orai erakats eta Franco Jainkoaren mezulari.

Amak. – Joanes ethor baladi jeneralekin eztaitekeela arraintzara joan erraitera, bi hitz erran nezozke eta begiak apur bat idek. Uste duzu behar bada arrain sal-eroslek elezaketela gure larrutzen jarraik, jeneraletarik xahu utziak baldin bagira ?

Langileak. – Uste dut apur bat gutiago errex izanen zauela behar bada eskopetak baldin baditugu.

Amak. – Beti bortizkeria. Berriz ere gudua izanen da, beraz.

Langileak. – Gudukatzeaz nor mintzo da ? Marrazoak jaukitzen bazazkin, hi hiza bortizkerian hasten ? Gu girea Madrilen kontra abiatu, ala Mola jeneralak ditin mendiak iragan gure jaukitzeko ? Bi urte osoz argi apur bat ukan dinagu, leinuru bat doi-doi, ez argi erdi bat ere. Baina orai berriz ilunbean sartu nahi gitine. Eta ezta hortan ere. Hemendik goiti errientelek elezakene haurrer bi eta bi laur direla ikas. – Eta ere, hori erran dutenak, suntsitu behar dira. Eztun entzun, arrastirian, lurraren gainetik garbituak izanen ginela erraiten ?

Amak. – Harmak hartu dituztenak bakarrik. Baina zergatik zitzaztate guziak horrela gainera erortzen horren sinets-araztera entseatzeko ? Enindaikie zuekin guziekin eztabada. Semek poliziakoa baninz bezala behatzen dautate. Aska hutsa baldin bada, haien aurpegietan ene falta dela irakurtzen dut. Eta airekolariak bombardatzera heldu bazazku, begia itzultzen dute, nik igorriak banitu bezala. Zergatik dago erretora ixilik ? Mintzatzea hari da. Ero batendako hartua niz, jeneralak gizonak – gizon biziki gaixtoak – direla uste dutalakotz, heiekin ezin daitekeela eztabada. Eta zergatik heldu zaizkit etxera, Andere

Perez, ixtorio horien guzien erraiteko ? Zer uste duzu, erraiten dautazun guzia nihaurek eztakitala ? Zure alaba hila da, orai enen aldi. Hori duzu nahi, eztea hala ? Etxera uxer bat bezala sartzen zaizkit, baina eman behar nuena jadanik emana dut.

Emazte zaharrak, *zutitzen da*. – Andere Karrar, etzitu haserretu ukan nahi. Eniz ene senarraren aburuko, bortxatu behar zirela baitio. Zure senarraz orhoitzapen biziki ona atxikia dugu eta nahi nitzaizun desenkusatu ene familiak emaiten dauzkitzun nahigabez.

Atheratzen da buruaz kbeinu bat eginez langileari eta mutiko gazteari. Ephe bat.

Amak. – Gaixtoena da, hisituaren bortxaz, azkenean, gogoan batere eztitugun gauza batzu erran-arazten dauzketela. Eniz alta Inesen kontrakoa.

Langileak, *haserre*. – Baina bai, Inesen kontrakoa hiz. Lagundu eztunanaz geroz, haren kontra hiz. Badion ere ehizala jeneralen alde. Berdin hutsean hiz, hihaur ohartuz ala ez. Haien gudukatzen laguntzen ezkitunanaz geroz, haien alde hiz. Bien artean ehaiteke egon, Thereza.

Mutiko gazteak, *bapatez haren gana jauzi egiten du*. – Bada, ama, erraiten ahal duzu, eztuzu jeus aldatuko. (*Langileari* :) Horra orai nun jarria den eskopeten khutxaren gainean guk har ditzagun debekatzeko. Emazkiguzu bada, ama.

Amak. – Zintzatzen bahinz hobeki egin hezake, Koxe.

Mutiko gazteak. – Ama, osabarekin abiatu nahi dut. Urde batzuer bezala odol egitera jin zaizkigun eztut igurikatuko. Gudukatzea eztautazu debekatzen ahal pipatzea egina dautazun bezala. Filipe, harri botatzen ni baino ontsa errebesagoa delarik, jadanik han da eta Andres nik baino urte bat gutiago duelarik jadanik eroria. Eztut herri guziaren irri egitekoa izan nahi.

Amak. – Ba. Badakiat. Pablo ttipiak bere sator hila kamiunlari bati hitzemana daukok, gudugunera ereman nahi balu. Irriegarri da.

Langileak. – Ezta irrieginarri.

Mutiko gazteak. – Ernesto Turillori errakozu ene untzixka uzten daukotala. Zaugi, Osaba Pedro.

Atheratzera abiatzen da.

Amak. – Ago hemen.

Mutiko gazteak. – Ez, banoa. Joanesen beharra baduzula erran dezakezu. Baina orduan eztuzu gainera ene beharrik.

Amak. – Joanes atxikitzen baldin badiat, eztuk arrain biltzera joaiteko. Eta hi ere ehaut abiatzera uzten. (*Laster egiten du eta besoez inguratzen du.*) Pipatzen ahalko duk, nahi bezainbat, eta arraintzara bakarrik joan nahi baduk, jeus eztiat erranen eta ere aldi batez aitaren untzia hartzen ahalko duk.

Mutiko gazteak. – Utz nezazu.

Amak. – Ez, bahago hemen.

Mutiko gazteak, *zalapartaka ihes egiten du.* – Ez, banoa. – Laster, Osaba, eskopetak harzkizu.

Amak. – Aatx !

Semea joaitera uzten du eta badoa mainguka, oina doi-doia lurrean ezarri.

Mutiko gazteak. – Zer duzu ?

Amak. – Zer axola duk, zer dutan ? Hoa bada. Ama, hasteko, garhaitu duk.

Mutiko gazteak. – Eniz batere zurekin gudukatu. Zerbait gertatua zaizun ezin da.

Amak, *aztat-beharria pherekatuz.* – Ez, hoa !

Langileak. – Nahi duna oina lekuan ezar dezatanan ?

Amak. - Ez ! Nahi diat joan hadin. Jalgi hadi ene etxetik ! Ene kontra semen jazarr-araztera ethorria hiz, eni jauki daiten.

Mutiko gazteak. – Jaukitu nako, orai.

Errabia zurrpildua, badoa barnearen zolara.

Amak. – Gaixtagin bat bilakatuko hiz. Eta zergatik eztuzue labean gelditzen den ogia hartzen, hemen zirezteno ? Kadera batean estekaturik ezartzen ahal nauzue. Bazirezte biga.

Langileak. – Bururatua duna hire ixtorioekin ? Erran ?

Amak. – Joanes zuek bezain eroa duk. Baina bortizkeriarik elezokek amari egin. Hori ordain-araziko dautzue sartuko denean, Joanesek.

Bapateko gogoeta batek harturik, zutitzen da 'ta leihora badoa lasterrez. Maingu egitea abazten du eta mutiko gazteak, sumindua, oinak erbiaz erakusten dauzko.

Mutiko gazteak. – Hora nun bapatez aztal-beharria sendatua duen.

Amak, *kampora so egiten du, eta berehala.* – Hori nola gertatzen den eztakit, baina eztut gehiago Joanesen gauargia ikusten.

Mutiko gazteak, *erasian.* – Nola nahi duzu eztadin hor izan ?

Amak. – Eta hain zuen, ezpaituk hor.

Mutiko gaztea badoa leihora, kampora so egiten du.

Mutiko gazteak, *mintzo bitxi batean, langileari.* – Egia da, ezta gehiago hor. Ikusi dutan azken aldian, itsasoan urrun zen, lurburuari hurbil-hurbila. Portura jausten niz.

Laster atheratzen da.

Langileak. – Itzultzen ari dateken.

Amak. – Baina orduan, behar nitek argia ikusi.

Langileak. – Eta zer gertatu ahal da ?

Amak. – Ha ! horra, badakiat ! Untxixka bat hartua dik eta haren gana joana datekek.

Langileak. – Nor ? Nexka ! Segurki ez.

Amak. – Bai. Haren bila joanak dituk. (*Gero eta gehiago khexu* :) Zimarku bat osoa eraikia zuten. Arrastiri guzian hunara igorri dituzte, Joanesen zaintzea eni debekatzeko. Erahiltzale batzu dira. Direnak oro !

Langileak, *erdi-irriz, erdi-gaitzitu*a. – Erretora bederen, hunara eztute hek igorri !

Amak. – Guziak bere gerlara igorriak ukan arteo eztute gelditzerik.

Langileak. – Baina eztun bederen gudura joana dela uste ?

Amak. – Hila die, baina ez tik hek baino gehiago balio. Eztiat gehiago ikusi nahi.

Langileak. – Ehaut batere hartzen, Thereza. Gudukatzer a joaitea baino gaitzagokorik jeus eztaukonala egiten ahal eztuna bada ikusten ? Eskertuko hau, jakizan.

Amak, *han ezpaliz bezala*. – Eztakeat gudura joaitea enegatik debakatu.

Langileak. – Guretako ez gudukatzea, Thereza, eztun « ez gudukatzea », jeneralendako gudukatzea dun.

Amak. – Eni hori egin baldin badautak eta milizia popularrean sartu nahi baduk, madarikatua izan bedi. Haien airekoen bombek jo dezatela ; tankek leher. Ikus bezak eztuela Jainkoak beraz trufatzea onhartzen. Eta behartu batek eztezakekala jeneralen kontra guduka. Eztiat munduan ezarri bertze gizon batzuen goaitan egoiteko, bere mitralluzaren gibelean gordea. Mundua zuzengabea baldin baduk, eztakeat bere aldian zuzengabe izaiten ikasi. Hunara itzultzen baldin baduk athea eztakeat idekiko. Eta etzakek aski ukanen, idek-arazteko, jeneralak garhaitu ditikala erraitea. Erranen dakeat – athe gibeletik hain zuzen – etxean eztiatala nahi eskuak odolez orbainduak dituen ehor. Ene bihotzetik ekhenduko diat, ustelduraz hartu zango bat mozten den bezala. Ba, eginen diat. Enetarik bat hunara ekharri die jadanik. Hark ere zoria ukanen zuela erraiten zian. Baina zoririk eztiaguk. Hori behar bada gogoan hartuko duzue jeneralek gu suntsituak ukan baino lehen. Ezpataz baliatzen den oro, ezpataz hilen duk.

Athe aitzinean, mintzo harrabots nabasi bat entzuten da, gero athea idekitzen. Sartzen dira hirur emazte, eskuak bularrean

gurutzaturik, othoitz batzu marmarikatuz. Harresiari kontra lerrokatzen dira eta, idekia den athetik, bi arraintzariak ekhartzen dute odolez orbaindua den bela batean, Joanes Karraren gorputza. Haien gibelean, hila bezain hits, mutiko gaztea. Eskuan badaduka anaiaren boneta. Arraintzariak gorputza lurrean ezartzen dute. Batek badakar Joanesen gauargia. Ama geldi-gogortua dagolarik bere kaderan eta emazteak gorago othoitzean ari, erraintzariak gertatu dena erraiten daukote abapetik langileari.

Lehen arraintzariak. – Mitrallus-zez harmatua zuten haien arraintzako untzi ttipi bat zen. Iragaitan xoil-xoilki garbitu dute.

Amak. – Hori ezin da. Huts bat da. Bakarrik arraintzara joana zen.

Arraintzariak ixilik daude. Ama aldixartzen da, langileak zutitzen du.

Langileak. – Eztuke segurra ere oinazerik ukan.

Ama belhaurikatzen da seme hilaren ondoan.

Amak. – Joanes.

Ephe luze batez ezta emazten othoitz leloa baizirik entzuten eta urrunean kanoien burrumba iluna.

Amak. – Khutxaren gainean ezartzen ahal duzuea ?

Langileak eta arraintzariak hila goititzen dute eta barnearen zolara eremaiten khutxaren gainera. Oihala lurrean gelditzen da. Emazten othoitzak azkarragotzen dira eta entzungarriagotzen. Amak mutiko gaztea hartzen du eskutik eta badoa harekin hilaren gana.

Langileak, berriaz tauladaren aitzineraturik, arraintzarier. – Bakarrik zena ? Etzena itsasoan bertze untzixkarik ?

Lehen arraintzariak. – Ez, baina hau itsas-bazterrean zen.

Erakusten du bigarren arraintzaria.

Bigarren arraintzariak. – Eztaukote galde bat ere egin. Bakarrik bere argi luzeaz itsasoa ikhertu dute, eta gero argia untzixkaren gainera erori da.

Langileak. – Baina ikusi dukete bada etzela arraintzan baizik ari.

Bigarren arraintzariak. – Segur da. Ikusi dute.

Langileak. – Eta eztee oihurik batere egin ?

Bigarren arraintzariak. – Entzunen nuen.

Ama aitzinatzen da, Koxek ekbarria duen Joanesen boneta eskuan.

Amak, *lañoki*. – Bonetaren hutsa da.

Lehen arraintzariak. – Nolaz hori ?

Amak. – Dena higatua da. Jaun batek elezake behin ere berdinek erabil.

Lehen arraintzariak. – Baina eztezakete bada bonet higatua derabilaten guzietara thira ?

Amak. – Bai. Eztira gizonak. Izurritea dira eta behar dira legena bezala burdin-goriaz erre. (*Othoitzean diren emazter mintzatu, ikustaterekin*.) Joan zaitezten eskatu nahi nautzueke. Zeregin ainitz badut oraino hemen, eta zer nahiz eniz bakarrik, anaia ondoan dut.

Jendeak joaiten dira.

Lehen arraintzariak. – Untxia, beherean estekatua dugu, portuan.

Bakarrik direlarik, amak oihala biltzen du eta beha dagoko.

Amak. – Arestian ikurrina bat urratu dut, eta bertze bat ekharri dautate.

Baderama herrestan zokorano eta hila hartaz estaltzen du. Ordu berean kanoiadaren harrabotsa hurbiltzen da.

Mutiko gazteak, *zozoturik bezala*. – Zer da hori ?

Langileak, *begi nahasi batzu bapatean goitituz*. – Aitzinera egin dute ! Berehala joan behar dut.

Amak, *labe aldera abiatuz, gora-gora*. – Atherazkitzue eskopetak. Koxe, presta hadi. Ogia ere errea da.

Langileak eskopetak khutxatik atheratzen dituen bitartean, amak behatzen du ogia zertan den. Labetik atheratzen du, oihal batez

inguratzen, eta bi gizonetara hurbiltzen da. Eskopeta bat eskuan hartzen du.

Mutiko gazteak. – Jin nahi duzu beraz, zuk ere ?

Amak. – Ba. Joanesendako.

Athera buruz abiatzen dira.

*

*

Postface du traducteur.

Les trois pièces de théâtre qui sont présentées ici en traduction basque forment un curieux ensemble, aussi disparate que possible en apparence, par les auteurs et les sujets, autant que par leur époque. La pointe en est la comédie en trois actes de Marivaux, jouée pour la première fois sans guère de succès en 1727 au Théâtre Français à Paris, et les deux angles de base les courtes pièces parfaitement contemporaines du XXème siècle, mais si dissemblables aussi à première vue: celle de Giraudoux, donnée à la Comédie Française par la troupe de Jouvet en 1938, jeu bien élevé et mondain autant que sombre en réalité d'une séparation amoureuse, sur fond d'écho politique et européen menaçant; et celle de Brecht fuyant le nazisme, écrite à Paris en 1937 et jouée la même année au Théâtre d'Iéna, qui met le théâtre au centre même de la guerre, presque au "front", entre la République espagnole et l'avancée du fascisme franquiste.

L'île de la Raison ou les petits hommes, sous la forme et le style d'une comédie légère complétée par son "vaudeville" chanté en vers, a une visée philosophique et morale résumée dans le titre, doublée d'une vive et amusante critique sociale. Un groupe de voyageurs, condensé de la société du temps, a échoué dans une île inconnue, où tous, de la comtesse et du courtisan à la soubrette et au paysan, se trouvent tout à coup rapetissés à l'extrême, mais en proportions bien différentes: les plus "grands" ou les plus célèbres de la société sont les plus petits, et inversement. C'est que la "raison", contrairement au "bon sens" selon Descartes, n'est pas du tout la "chose la mieux partagée du monde", au moins dans la France des "Lumières" initiée sous la Régence. Elle est même en proportion inverse des situations: le simple paysan "Blaise" en est le mieux pourvu, un peu moins déjà les serviteurs des grands, et encore bien moins les grands eux-mêmes, et avec eux poètes, philosophes, médecins, que la mode et les goûts mondains élèvent jusqu'à la réputation sociale. Toute l'action consiste, dans la mesure du possible, à les ramener

à la raison, c'est-à-dire à leur vraie dimension d'êtres humains: c'est donc bien, sous l'autorité des îliens raisonnables, une école de la raison. Cette pièce difficilement présentable dans l'outillage traditionnel du théâtre, d'où sans doute une part de son échec en 1727, passerait fort bien avec l'aide des techniques modernes audio-visuelles, que plusieurs représentations, en particulier d'opéras, ont magistralement utilisées ces dernières années. La traduction basque ne permet pas, en revanche, de donner tout ce que le "patois campagnard" de Blaise avait de comique pour le public parisien du temps, ni les gasconnismes de Frontignac le secrétaire du courtisan.

Les deux courtes pièces de Giraudoux et de Brecht, deux siècles plus tard, en 1937-38, ont pour sujet la réalité humaine la plus directe, celle de l'immédiate avant-guerre, qui est aussi déjà la guerre, en Espagne, mais d'une manière tellement différente qu'elles semblent s'opposer absolument, par les lieux, les faits, les personnes, les sentiments. Chez Giraudoux (les périls imminents lui ont déjà inspiré en 1935 *La guerre de Troie n'aura pas lieu* puis en 1937 *Electre*), dans un "café" parisien à la mode, quelque part "au Bois" (de Boulogne) ou en "bord de Seine", un "Président", personnage officiel et politique de premier plan d'un âge déjà certain, a donné rendez-vous à la jeune Florence sa maîtresse, sans se douter que celle-ci viendra lui présenter Jérôme, le jeune homme avec qui elle va se marier. Le titre biblique du plus fameux des chants d'amour, *Le cantique des cantiques*, laisse entendre, derrière la façade mondaine du spectacle, la gravité du sujet. Le dialogue subtil, un langage et des sentiments raffinés, habillent une rupture en réalité violente et tragique, tandis que la grande affaire politique du moment, d'Europe et d'Allemagne (celle de Hitler et du nazisme non nommés), se perçoit à l'arrière-plan et presse l'événement.

Avec Brecht, opposant direct au nazisme et exilé d'Allemagne, la guerre est au contraire au premier plan, et dans le titre même: ces *Fusils de la mère Carrar* ce sont ceux qu'il faudra

bien prendre pour tâcher d'arrêter l'avancée des armées des "généraux" insurgés contre le gouvernement légitime de la République espagnole. Au bord de la mer, en Andalousie où l'on résiste encore, tandis que la canonnade s'approche et s'entend, la veuve Carrar (elle a perdu son mari dans les combats d'Oviedo), tout en ravaudant les filets de pêche, refuse de laisser partir ses fils au combat: l'aîné Jean qui pêche au large avec sa lampe de nuit, et le jeune José resté à la maison, impatient d'aller au "front", tandis que la radio des voisins diffuse les appels des généraux fascistes. La portée proprement politique du thème s'exprime dans les interventions prudentes et même nuancées de "l'ouvrier" frère de Thérèse Carrar, partisan républicain venu chercher les fusils, et du curé du pays, esprit ouvert et pourtant hésitant, alors que l'église est au cœur même du débat politique, et, presque entièrement, au côté des généraux. Le dénouement du drame, que la tension dramatique annonce dès le début, arrive subitement lorsque le corps de Jean tué en mer par les mitrailleuses des insurgés est apporté dans la maison, et que la Mère Carrar donne enfin ses fusils.

Les principes d'écriture et de traduction en basque, avec des traits propres au domaine dialectal dit "navarro-labourdin", sont, sur bien des points essentiels, ceux de la tradition littéraire des écrivains dits "classiques", tels qu'exposés dans la *Postface* à *Maitasunaren ikasten* (traduction basque de *L'Education sentimentale* de G. Flaubert, *Maiatz*, Bayonne 2006), dont l'écrit basque littéraire n'aurait pas dû s'écarter comme il l'a fait à partir du XVIIIe siècle, compte tenu aussi de tout ce qu'on connaît aujourd'hui des caractères multimillénaires (ils sont avérés au moins depuis le temps des premiers emprunts au latin) permanents de la langue, c'est-à-dire en résumé:

- 1) pour l'écriture et l'orthographe:
 - préfixation réelle dans le verbe conjugué de tous les préfixes, assertifs, subordonnants, modaux, temporels et

personnels avec toutes leurs conséquences phonétiques et donc orthographiques;

séquences régulières « sifflante + occlusive sourde » et « nasale + occlusive sonore » à l'intérieur des mots, composés ou non, sauf lorsque l'usage contraire, rarement, s'est imposé ;

aspiration initiale et consonnes aspirées maintenues comme dans la prononciation dialectale « traditionnelle », surtout quand elles sont étymologiques ou attestées dans l'écrit médiéval, en particulier lorsqu'elles ont une fonction diacritique dans les homonymes ou paronymes, l'aspiration réelle étant un trait phonétique aussi typique dans le basque qu'elle l'est en anglais ou en allemand ;

non redoublement des *-ee-* à l'intérieur des mots, déclinés au pluriel ou autres, sauf dans les formes suffixées des verbes conjugués quand la répétition vocalique a une fonction spécifique pleine;

utilisation du trait d'union dans certains composés comme les verbes factitifs avec *-arazi*, et dans des composés nominaux d'une certaine longueur syllabique où le premier élément a une forme de composition particulière (*euskal-*, *itsas-* etc.) ;

2) en morphosyntaxe :

génitif au complément déterminé singulier ou pluriel du nom verbal, l'indéterminé restant toujours par définition non marqué et simplement antéposé;

opposition systématique du déterminant possessif réfléchi de 3ème personne sur *ber* et non réfléchi sur démonstratif ;

réintroduction des formes conjuguées sans auxiliaire pour des verbes courants où elles se sont dialectalement perdues après l'époque des écrivains « classiques » des XVI-XVIIIe siècles ;

3) en lexique :

les emprunts romans, même aujourd'hui courants dans l'usage, sont parfois écartés, sauf nécessité soit stylistique soit sémantique, au profit des mots basques autochtones ou d'emprunts anciens bien adaptés à la phonétique basque (latinismes comme *botere* « pouvoir », *murru* « mur » etc.), qui peuvent être des composés et dérivés simples sur des bases lexicales usuelles;

en cas de variantes dialectales géographiques ou (parfois « et ») chronologiques, choix des formes les plus proches des étymologiques ou tout au moins des plus anciennes chaque fois que l'usage dialectal les a maintenues jusqu'aux temps modernes, comme *bertze* « autre », *ide* « compagnon », *ume* « petit (par extension « enfant ») » (-*kide* ou -*ume* aujourd'hui quasi uniques ne sont que des mécoupures de formes composées à occlusive de liaison), et, plus généralement, des formes phonétiquement les plus conformes aux caractères propres permanents de la langue rappelés ci-dessus.

Le style dialogué, exclusif par définition dans le théâtre, sauf pour les didascalies et autres brèves indications de l'auteur extérieures au dialogue, pose au traducteur, dans beaucoup de langues, mais tout spécialement en basque, une difficulté particulière chaque fois qu'il s'agit de passer du "tu" au "vous", ou inversement, c'est-à-dire de "voussoiement" ou de "tutoiement". C'est que bien des langues ne disent que l'un ou l'autre, comme l'anglo-américain moderne qui n'emploie que *you* c'est-à-dire étymologiquement "vous" (le *thou* ancien "tu" n'est resté que dans des textes religieux), ou bien alternent les deux de manière différente, comme précisément le français ou l'espagnol. Il faut ajouter, d'abord que le basque a un tutoiement différent au féminin et au masculin (l'affixe verbal pronominal n'est pas le même: chacun sait que c'est la seule opposition morphologique du "genre" en basque), ensuite et surtout que le basque a des formes allocutives des formes conjuguées (correspondant au

“datif d’intérêt” peu utilisé en français hors du langage familier) propres par définition au style parlé.

Le tutoiement en basque, *hi*, a dû être général et exclusif comme en latin il y a 2000 ans, mais le “vous” de déférence, *zu*, s’y est introduit très tôt, à partir d’un modèle extérieur qu’il reste à définir avec précision. Il est attesté dès le XIe siècle dans le basque médiéval et est sans doute bien plus ancien. L’emploi du “tu” et du “vous” en basque moderne diffère de celui du français sur des points essentiels. Le “tu” ne s’employait couramment, car le vousoiement tend aujourd’hui à le remplacer presque partout (selon le modèle historique de l’anglais, et non du français ou davantage de l’espagnol, où c’est le “tu” qui tend à l’emporter), que des grands-parents ou des parents aux enfants dans certaines familles (on a connu dialectalement des cas de tutoiement des enfants aux parents, peut-être tributaires de l’usage français où il est ancien), plus généralement des “grands” aux petits”, du supérieur à l’inférieur (chez Marivaux), beaucoup plus encore entre frères et sœurs et gens de même âge, compagnons de classe ou autres. La traduction en basque, dans le dialogue du roman ou du théâtre, par souci de fidélité, surtout pour des textes anciens, se doit de garder le “tu” ou le “vous” du texte original chaque fois qu’il ne contrevient pas trop fortement à ces usages. Mieux, il est obligatoire quand l’emploi de l’un ou de l’autre, et surtout le passage de l’un à l’autre, a une fonction dramatique et stylistique: exemple célèbre de Phèdre s’adressant à Hyppolite chez Racine.

L’allocutif, désignation de la “personne à qui l’on parle” quand elle n’est pas l’un des actants (sujet, objet ou bénéficiaire), donne au verbe auxiliaire des formes différentes du “non allocutif”. Cet allocutif était extrêmement fréquent et quasi obligatoire lorsque les protagonistes se tutoyaient, et c’est ainsi qu’il a été utilisé en particulier dans la pièce de Brecht pour les dialogues entre mère et fils et frère et sœur. Il offre évidemment un bénéfice théâtral tout particulier, et très naturel dans une

langue comme le basque qu'on peut dire en un sens "faite pour le dialogue".

Itzultzearen azken-hitza.

Hemen euskarara itzulirik emaiten diren hirur antzertiek badagiten bilduma bitxia da, ahal den bezain ezperdina iduriz, egile 'ta gaien aldetik, egin ziren aroarenetik bezainbat. Marivaux-ren hirur egitaldietako komedia du puntta, lehen aldian arrakasta handirik gabe jokatu zena Parisen Antzoki Frantzesean 1727-an, eta behereko bi izkinak XX-garren mendean urte bat barne eman ziren bi antzerti laburrak, nahiz hain erperdinak ere lehen behakoan: Giraudoux-ena, Komedia Frantzesean Jouvett-en jokaritaldeak eman zuena 1938-an, maitsuneko berexte baten joko ikustatezko 'ta mundutar bezain iluna egiazki, Europako politikaren oihartzun mehatxugarri bat azpitik; eta Brecht-ena nazizmoari ihes zoala Parisen izkiriatu zuena 1937-an, eta urte berean Ienako Antzokian jokatu zena, hemen antzoki-jokoa gerlaren erdi-erdian ezarria baita, abantzu "gudugunean", Espainiako Errepublikaren eta aitzineratzen ari den fazizma frankistaren artean.

Arrazoinaren irla edo gizon xipiak, komedia moldeaz eta idatzaraz arinak, neurthitzetan kantatzen den "Libertimendu" batez osaturik, badu izenburuan laburtua den filosofia 'ta moraleko xede bat, gizartearen khitzikaldi bizi bezain jostagarriarekin aldi berean. Itsas-bidari multzo batek, aro hartako gizartearen laburpena, irla ezezagun batean lurreratu behar ukan du, oro han, kondesatik eta gortelarik sehi eta laborarirano, gertatzen baitira bapatez ezin ttipiagotuak, baina arau ontsa erperdinetan: gizarteko "handienak" edo aiphatuenak dira ttipienik, eta alderantziz. Hori da arrazoina ezteletak batere, Descartes-en "zentzu on" hura bezala, "munduan den gauza hobekienik uzitua", Erreizenziarekin hasia den "Argietako" Frantzian bederen. Gizarteko izanaren arau kontrakoan da ere:

“Bladi” laborari xola da hobekienik zuzkitua, gutixago jadanik handien zerbitzariak, eta ontsa gutiago oraino handiak berak, eta hauekin modak eta munduaren gostuek gizarteko aiphamenerano goititzen dituzten poeta, filosofo, medikuak. Egintza guzia ahal den bezainbat berriz arrazoinera haien ekhartzean datza, erran nahi da gizaki bezala duten egiazko neurrira: irlatar arrazoindunen burupean, arrazoinaren eskola bat da beraz. Antzokiko tresneria ohikoan nekez eman zaitekeen komedia hori, hortik behar bada 1727-an ukan zuen ondorio on eskasetik zerbait, biziki ontsa joan laiteke entzun-ikusteko teknika berrien laguntzarekin, ikustaldi batzuek, operan bereziki, azken urte hautan nagusiki baliatu baitituzte. Euskal-itzulpenak eztezazke eman, aldiz, ez Bladiren mintzara “baserritarrak” irrigarririk zuen guzia orduko ikusle paristarrendako, ez eta gortelariaren segetari Frontiñak-en gaskoineria guziak.

Giraudoux eta Brecht-en bi antzerti laburrek, bi mende berantago, 1937-1938-etan, egintza gizatar zuzenena dute gaia, gerla aitzin-aitzinekoa, gerla bera dena ere jadanik Espainian, baina hain molde ezperdinean nun osoki elgarren kontrekoak iduri baitute, lekuez, gertakariez, jendez, sendimenduez. Giraudoux-en antzertian (lanjer hurbil-hurbilek egin-araziak dauzkote jadanik 1935-an *Troiako gerlarik ezta izanen*, gero 1937-an *Elektra*), “kafe” paristar modako batean, “Oihanean” (“Boulogne”-koan) edo “Zekuana bazter batean”, “President” bat, lehen maileko kargudun ofizial eta politikako bat adinean aitzinatua, hitz-hartua da bere maite Florenza gaztearekin, batere gogoan ukan gabe hau jinen zakola Jeromino, ezkonduko duen gizon gaztearen aitzineratzera. *Goienkantu* maitasunezko kantu aiphatuenaren izenburu bibliakoak entzun-arazten du, ikusgarriaren itxura mundutarraren gibelean, gaiaren larritasuna. Elgarrizketa arin eta biziak, hizkuntza 'ta sendimendu hautatuek, estaltzen dute berexte egiazki bortitz eta tragediako: orduan zen politikako egiteko handia, Europakoa, Alemaniakoa (izendatzen

eztiren Hitler eta nazizmarena), hautemaiten delarik gibelean gertakaria hertsatuz.

Brecht-ekin, nazizmaren etsai zuzena eta Alemaniatic herriz aldatua, gerla, aldiz, aitzin-aitzinean da, eta izenburuan berean: *Ama Karrarren eskopetak*, hartu beharko baitira Espainiako Errepublikaren gobernu legezkoaren kontra “jeneral” jazartuen aitzinatzearen geldi-araztera entseatzeko. Itsas-bazterrean, oraino han ihardokitzen den Andaluzian, kanoikada hurbiltzen ari delarik eta entzuten, Thereza Karrar alharguntsak (senarra Oviedoko guduetan galdua du), arraintzako sare antolatzen ari den batean, debekatzen du semeak gudura joan daiten: zaharrena Joanes arraintzan ari urrunago itsasoan bere gauargiarekin, eta Koxe gaztea etxean gelditua, “gudugunera” joateko ezin-egonean, auzoen irratiak hedatzen dituelarik jeneral faxizten deiak jendeari. Gaiaren helburu garbiki politikakoa agertzen da Therezaren anaia “langilearen” - alderdikari errepublikarra eskopeten bila jina - eta herriko erretoraren arteko solas zuhurtziazko eta ere neurtuetan, azken hau gogo ideki batekoa eta bizkitartean zalantzan, eliza eztabada politikazkoaren erdi-erdian delarik, eta abantzu osoan, jeneralen alde. Dramaren bururapena, hastapenetik antzertiaren tinkadurak iragartzen duena, bapatez gertatzen da Joanesen gorputza, itsasoan jazartuen mitralluzek hila, etxera ekharria denean, eta Ama Karrarek azkenean eskopetak emaiten dituenen.

*

Euskaraz idazteko eta itzultzeko arauak, euskalki eremu “lapurtar-baxe-nabartarra” dioguneko berezitasun batzuekin, “klasikoak” deitzen diren idazlen ohidurakoak dira baitezpadako gauza batzuetan, *Maitasunaren ikasten*, Flaubert-en *L’Education sentimentale*-ren itzulpeneko (Maitatz, Baiona 2006) *Postface* delakoan emanak diren bezala, ezpaitzuen euskal-idazki literaturakoak hetarik baztertu behar gure ustez, XVIII-garren

mendetik hunara egin duen bezala, gogoan harturik ere bi milako urteak iraganik (latinari egin diren lehenbiziko maileguetarik hasiz bederen) hizkuntzako berezitasunetan gaurregun ezagutzen den guzia, erran nahi da laburpenez:

1) idatzara 'ta orthografiako:

aditz jokatuako aurrizki baieztatzale, menperatzale, moduko, aroko eta personal guzien egiazki aurrizkitzea, hunek ahozkatzean eta beraz orthografian emaiten dituen ondorio guziekin;

“xixtukari + herskari gogor” eta “sudurkari + herskari ozen” jarraikaldi zuzenak hitzen barnean, elgartu ala ez, kontrako ohidura ezpada, bekan, jarria;

haskatze hastapenekoak eta konsonant hastunak atxikiak dira erran den euskalkiko ahozkatze “ohikoan” bezala, oroz gaineratik etimologiakoak direnean edo erdi-aroko idazkian ezagunak, hitz berdinean edo berdintsuetan egiteko berexkarria badutenean bereziki, haskatze egiazkoa izanez euskararen fonetikan angelesekoan edo alemanekoan den bezain ezagugarri berezia;

hitz barneko *-ee-* edo bertze bokal bikunak, deklinabide ainitzeko ala bertze, eztira izkiriartzen, baina beti bokal xoilak, salbu aditz jokatuetan hizki bikunduak egiteko berezi beteak hartzen duenean;

loturazko marra erabiltzen da hitz elgartu mota batzuetan, hala nola *-arazi* gaineratuz egiten diren egintzazko aditzetan, eta silabaz luzetasun zerbait duten izen batzuetan lehenbiziko hitzak baduelarik elgertasuneko molde berezi bat hala nola *euskal-*, *itsas-* eta bertze;

2) morfo-sintasian:

aditz izenaren osagailu mugatu bakuneko ala ainitzekoak beti genitiboan emaiten da, mugagabea geldituz zuzen den bezala deklinatu gabe;

osoki aurkatzen dira 3-garren personan jabetasunezko mugagailu egilera itzulia *ber* (-) hitzaren bidez, eta egilera ez itzulia erakuslearenez;

laguntzalerik gabeko jokabidea berrerabilia da aditz hedatu batzuetan euskalkiak galdua duelarik XVI-XVIII-garren mendetako “klasikoen” arotik landa;

3) hiztegian:

erdal-maileguak, gaurregun hedatuak izanik ere, baztertuak dira batzuetan, beharrezkoak ezpadira estiloaren edo erran-nahiaren aldetik, euskal-hitz zuzenen abantailetan (hautan izan daitezke mailegu zaharrak hala nola *botere*, *murru* latinkiak eta bertze), hauk hitz-erro ohiko batzuetan elgarturik edo atzizkiturik eginak izan baitaitezke;

lurraldetako ala (batzuetan “eta”) aroetako euskalki aldapenak badirenean, etimologiari hurbilenak hautatzen dira edo bederen lekukotasunez zaharrenak euskalkiko ohidurak han edo hemen orai arteo atxiki dituelarik, hala nola *bertze*, eta *ide*, *ume* (-*kide*, -*kume* gaurregun abantzu bakarrik erabiliak loturazko herskariekin hitz elgartuak gaizki moztuz egin dira), eta ere ahozkatzeko aldetik gorago erran diren betiereko berezitasunen araberakoenak.

*

Elgarrizketako estiloak, antzertian beharrez bakarrak, elgarrizketatik kampo diren arteko argitasun edo idazlearen bertze erakuspen laburretan salbu, bademo itzultzaleari, hizkuntza ainitzetan, baina oroz gaineratik euskarari, neke berezi bat “hi”-tik “zu”-ra iragan behar denean eta alderantziz. Hizkuntza ainitzek eztute bat edo bertzea baizik erraiten, hala nola angeles-amerikarrak eztabila *you* baizik, erran nahi da etimologikoki *zu* (“hi” zaharra *thou* ezta idazki zahar eta othoitz batzuetan baizik gelditu), edo biak ezperdinki aldizkatzen dituzte, frantzesak eta gaztelarak bezala. Gaineratu behar da, lehenik euskarako hikatzea

eztela berdin arrear eta emean (izen-ordain atzizkia ezta bera, “jeneroan” euskarak duen gramatikako berexkuntza bakarra dela jakina baita), gero eta oroz gainetik euskarak badituela elgarrizketako aditz molde bereziak: “alokutiboak”, “elgarrizketalariak” nahi bada (frantzesean “datif d’intérêt” diotena bezalatsu, baina hau mintza-molde aphaletik hara guti erabilia), erraiteko estiloaren berezitasunak.

Euzkaran “hikatzea” izana dateke bakarra eta orotakoa latinean bezala duela 2000 urte, baina jendetasunezko “zukatzea” goizik sartu da, zorrozki jakiteko gelditzen den euskaraz kampak eragin zenbaiten ondorioz. Ertaroko euskararen XI-garren mendetik ezaguna da. Oraiko euskararen “hi” eta “zu” frantzesekotik bertzela erabiliak dira baitezpadako aldi batzuetan. Duela guti “hi” ohiki erabilia zen, orai “zu” nagusitzera doanean edo ja egina, aitatxi-amatxiez edo aitamez haurretara familia batzuetan (euskal-eremu batzuetan ezagutu dira haurrak aitamer “hika” mintzatzen han edo hemen, menturaz hartan aspaldikoa den erdarari zor zen ohidura), orotakoago “handietarik ttipietara”, nagusitik sehira (Marivaux-en antzertian), biziki gehiago oraino haurride ‘ta adin bereko jenden artean, eskolakide ala bertze. Euskal-itzulpenak, elhaberriko edo antzertiko elgarrizketan, zuzen itzultzeaz axolatuz, oroz gainetik idazki zaharretan, “hi” eta “zu” idazkian diren bezala atxiki behar ditu, gizarteko ohidura horien kontra azkarkiegi eztoan aldi oroz. Hobeki, baitezpadakoa da bat eta bertzearen erabiltzea, eta bereziki batetik bertzera joatea, antzertiko eta estiloko balioa duenean (Phaedra Hipoliteri mintzo Racine-ren tragediako behazun aiphatuan).

Alokituboak, mintzatzen zakon jendea deitzen denean aditzean berean hura izan gabe aditzeko partaidetarik bat (egile edo egoilea, jasailea, ukailea) bademo aditz laguntzaleari alokutiboan eztenean ez bezalako egitura bat. Alokutibo hori ezin ohikoagoa zen eta erran daiteke beharrezkoa mintzariak hika ari zirenean, eta horrela erabili da bereziki Brecht-en antzertian ama-

seme 'ta anaia-arreben arteko elgarriketetan. Antzokiko abantail berezi bat badakhar alabaina, eta osoki jitezkoa euskara bezala "elgarrekin mintzatzeko" egina dela erran daitekeen hizkuntza batean.

J.-B. ORPUSTAN, 2020.

Aurkibidea

Arrazoinaren irla	or. 2
Goienkantu	or. 73
Ama Karraren eskopetak	or. 107
Postface du traducteur	or. 142
Itzultzalearen azken hitza	or. 148